# Euskadiko eguneko tximeletak

Yeray Monasterio León - Ruth Escobés Jiménez

# Euskadiko eguneko tximeletak

Yeray Monasterio León y Ruth Escobés Jiménez

Gidaliburu hau tximeletez gozatzen dutenei eskainia dago, eta bereziki beren ahaleginez, eskuzabalki, Euskadin horiek gehiago ezagutzen laguntzen dutenei.

# Aurkibidea

Traducción realizada por el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi
a cargo de  Iñaki Manterola y Leire Berasaluze

# Hitzaurrea

Duela urte asko jadanik, Ruth Escobés eta Yeray Monasterio ezagutzeko atsegina eta ohorea izan nuen, oraindik Jaenen ikasten ari ziren garai hartan, eta haien adeitasuna eta gainerakoei laguntzeko gogoa zirela medio, nire lanetarako behar nituen beldar aleak bidaltzen zizkidaten maiz aski. Laudagarria kontua, ezin ahaztuko dudana.

Denborarekin lepidopteroen ezagutzan eta biologian sakonduz joan ziren, harik eta ZERYNTHIA, Asociación Española para la Protección de las Mariposas y su Medio elkartea sortu zuten arte, zale eta profesional ugarik topaleku dugun elkartea eta arrakasta handia lortu duena.

Batez ere Espainiako faunarekin lan egin dute oro har, eta liburu eta artikulu asko eta garrantzi handikoak argitaratu dituzte. Aipatu dugun alorrean orobat liburu bikain eta garrantzitsu bat argitaratu dute, hala dibulgaziozko alderditik nola etorkizunari begira duen garrantzi handiagatik, jarraian azalduko dudanez.

Aurkezpen eder eta xumeaz gainera, argazki inbidiagarriz hornitua, orriz orri ikusten eta irakurtzen jarraitzea erakargarri egiten dutenak. Liburua honek paseatzailea edo irakurlea inguruan hegan ikusten dituen espezieak ezagutzera gonbidatzen du, hain erakargarri eta liluragarri zaigun lepidopteroen mundu miresgarri horretara hurbiltzen duela.

Liburu hau oinarritzen duen beste alderdia zera da, bizi garen une honetan beharrezkoa dela irakurleak orain esku artean duen bezalako liburuak argitaratzea, faunaz eta kokapen geografikoaz paregabea den lurralde bateko espezieez diharduena, gure kasuan lepidopteroez. Izan ere, gune honetan, Pirinioez gaineko asiar migrazio bide handiak eta Mediterraneoaren sarrerak –Ebro ibaiaren sakonunean zehar– bat egiten dute, eta eragina eta espezieen iturri etengabea da, egiazki gaurko fauna osatzen dutenak, azkeneko glaziazioaren herentzia ahaztu gabe, Aizkorriko tontorrean Parnassius apollo tximeletaren presentzia lekuko.

Une honetan duguna da liburu bikain honen jardungaia. Alabaina, tenperatura goratzeak dakarren aldaketa kontuan izanik eta beldarren landare elikagarriak aldaketa horretara nola moldatzen diren ikusirik, litekeena da espezie asko desagertzea beren metamorfosiak denboran jarraipenik izango ez duelako. Aldaketa horrek dakarren guztiagatik, hau bezalako liburuek datozkigun aldaketa guztiak ulertu, ezagutu edo

aurreikusteko oinarria izan behar dute; hala, zegoena eta dagoena konbinatuz eta, kasuan kasuko neurri egokiak hartuz, zenbait izurritetatik babestu edo horien kontra borrokatu ahal izango genuke. Pentsa dezagun gaur ezagutzen dugun mundu hau, bihar segur aski ez dela berbera izango.

Yeray eta Ruth adiskide minek ezin hobeki burutu dute nahitaezko liburu hau. Hitzaurre labur baina adeitsu hau bukatzeko, bihoakie, nire adiskidetasun eta estimuarekin batera, besarkada bat bihotz-bihotzez, zientzia entomologikoari hil edo bizikoa den eta izango den ekarpen hau egin dutenei.

Carlos Gómez de Aizpúrua

Entomologoa, jardunbide luzea du Iberiar Penintsulako iparraldeko eguneko zein gaueko tximeleten ikerketan. Garrantzi handiko hainbat atlas argitaratu ditu. Gutxi gorabehera 1000 espezieren beldarren morfologia dokumentatu eta argitaratu du. Zenbait elkartetako bazkide sortzailea izan da, hala nola “Sociedad Hispano-Luso-Americana de Lepidopterología (SHILAP)”, hainbat urtez elkarteko presidente izana, edo Entomologia Aplikatuko Elkartea. Orobat, ZERYNTHIA Elkarteko ohorezko kidea da.

# Sarrera

Eskura dugun informazioa jendarteratzea ikerketa bezain garrantzitsua da, interesaturik dagoen edozein pertsona informazio horretara iritsi dadin eta informazio hori areagotu ahal izan dezan. Batzuetan entomologoak ez gara hain eraginkorrak izan alor honetan. Gaur egun, zientzia eta naturarekiko interesari dagokionez, bizi dugun urrezko garai hau aprobetxatu beharra dago eta jendearengan hain "ezagunak" ez diren multzoekiko interesa piztu, hala nola ornogabeak. Ezagupena, jendarteratzea eta "herritar zientzia" deritzana batuz, eskura dugun informazioa era guztiz nabarmenean areagotu daiteke, baita lan lerro berriak ekarri ere, zeinak bestela ezin helduzkoak liratekeen.

Euskadi guztiz aintzat hartzen dugun lurraldea da, hala naturarengatik nola bertako jendearengatik. Luze eta zabal ibilia dugu eta landa jardunaldi asko eskaini diogu. Horri esker, noiz edo behin intereseko informazio berria ekarri ahal izan dugu, bertako lepidopteroen banaketa eta kontserbazioa hobeto ezagutzen laguntzeko. Eguneko tximeleten jarraipen programa eta aldian-aldian ZERYNTHIA Elkarteak ematen dituen ikastaroak direla bide, lagun sare handi bat osatu ahal izan dugu; lagun horiek gurekin batera gozatzen dute intsektu hauetaz eta horiei eskaintzen diegu bereziki liburu hau.

Guretzat pozbide handia da alor honetan jende askorentzat abiaburu izan daitekeen gida bat egin ahal izatea eta baliabide egoki bat prestatzea Euskadin dauden espezieak landa aldean identifikatu ahal izateko. Hartarako beti naturan hartutako irudiak erabili dira, beren ingurune naturalean aurkituko ditugun bezalatsuko eran erakutsi nahirik.

Gidaren luzea laburtzearren, ez da gehiegi sakondu sarrerako alderdietan. Betiere aise eraman daitekeen liburu bat gauzatzea izan dugu helburu, landan erraztasun osoz erabiltzekoa.

Gainera, atzerriko argitalpenetan aspaldi egin ohi duten bezala, eranskin batean bildu ditugu eguneko tximeletak (ropalozeroak) ez izanik ere, egunez aurkitzen ahal diren beste espezie batzuk: zigenidoak eta berez gauekoak (heterozeroak) diren baina eguneko jarduera ageri duten zenbait familia. Alderdi horretatik ez da eskuliburu oso-osoa, baina ohikoenetako batzuk ezagutzeko aukera ematen du.

# Euskadiko tximeleten azterketa eta dibulgazioa

Euskadiko lepidopteroei buruzko lehen argitalpena duela 160 urte baino gehiago agertu zen (Standfuss, 1855-1857) eta Bizkaiko dozena bat behaketa zekarren. Ordutik hona askotariko artikulu eta liburuak argitaratu dira intsektu talde honetaz. Horien artean, nabarmentzekoak dira Carlos Gómez de Aizpúruak hirurogeita hamarreko urteen erdialdetik laurogeikoen amaiera arte argitaraturiko atlasak beren garrantzi handiagatik; informazioaren kopurua eta kalitatea eta aitzindari izaera ezaugarri dituztela, Hego Euskal Herri guztia eta Iberiar Penintsulako beste eremu batzuk hartzen dituzte. Garrantzi berdinekoa da Arabako tximeletez Ibon de Olano, José Mª Salazar, Juan Mª Marcos eta Iñaki Marínek 1989an argitaraturiko atlasa. Argitalpen horiek ordura arte ezagutzen zen guztia biltzen zuten, eta gure lepidopteroen banaketaren ikuspegi orokorra ematen ziguten.

Geroago, beste zenbait egilek zuzen edo zeharka Euskadiko lepidopteroen faunaz jardun dute, eta izaera gutxi-asko dibulgatibozko aipamenak edo argitalpenak burutu dituzte (Güemes, 1990, Mezquita, 2006 eta 2009; Mezquita eta Gómez de Aizpúrua, 2007; Gipuzkoako Entomologia Elkartea, 2011).

Azken hamarkadan zenbait argitalpen agertu dira. Horiek, aurreko lanek ezarritako oinarriei esker, Euskadiko ropalozeroen ezagutza zehaztu eta areagotzeko bide eman dute, tximeleta horien banaketa eta kontserbazioari buruzko datuak ekarriz.

Erreferentzia nagusiak bibliografia atalean zehazten dira.

*Araschnia levana*

# Herritar zientzia

## Eguneko tximeleten Euskadiko jarraipen programa

Eusko Jaurlaritzak sustaturiko ekimen hau 2008an abiatu zen. Harrezkero, parte hartzaileak biltzen ari diren datuen bidez ezagutzen ahal dugu gure tximeleten kontserbazio egoerak izan duen bilakaera. Hasieran Ihobek eta Aranzadi Zientzia Elkarteak parte hartu zutela, gaur egun Hazi Fundazioa eta ZERYNTHIA Elkartea garatzen ari dira programa hau. Edozein pertsonak esku har dezake bertan. Metodologia erraza da eta hamabost egunean behin boluntario bakoitzak aurretik ezarritako ibilbidea egitea dakar berekin.

Tximeletei buruzko ezagupen urri dutela hasten dira parte hartzaile asko. Hori dela eta, koordinatzaileen etengabeko laguntza dute, zeinek batez ere espezieen identifikazio kontuetan laguntzen dieten. Halaber, prestakuntza ikastaro teoriko-praktikoak egin dira ildo beretik. Horixe izan da gida hau egitera bultzatu gaituen arrazoietako bat, landa laneko garaian pizturiko zalantza asko argitzeko baliagarria izango delakoan.

## Ornitho.eus eta Natusfera

Lepidopteroekiko interesa sustatzea da irakurleak esku artean duen gida honen helburua, besteak beste. Ziur gaude pertsona asko mendira gehixeago ateratzera animatuko direla tximeletak behatzeko eta, jakina, horiek espezie mailan identifikatzeko asmotan. Are pausu bat haratago joan gaitezke eta lepidopteroen banaketa ezagutzen lagun dezakegu egindako behaketen berri emanez. Hartarako, ditugun plataformek datuak partekatzeko aukera ematen digute: koordenatuak, data, ale kopurua, etab. Hori egin daiteke bai denbora errealean, smartphonearen bidez, bai geroago, ordenagailuaren bidez. Landan zenbat eta kolaboratzaile gehiago egon, orduan eta gehiago jakingo dugu gure tximeletez.
Euskadi mailan, ezagunenak eta, ondorioz, gomendagarrienak, ondoko hauek dira: www.ornitho.eus eta natusfera.gbif.es

## Legeria eta jardunbide egokiak

Jende askok ez daki tximeletak biltzea debekatua dagoela, baina baita horiek une batez ikusteko harrapatzea ere. Horrexegatik, soilik ikerketa zientifikoak egiterakoan erabil daiteke tximeleta sarea edo mahuka entomologikoa. Horretaz baliatuz gero, zigorra jaso genezake. Tximeletak eskuztatzea ekiditearren, askoz gomendagarriagoa da argazki kamera bat edo prismatiko egokiak erabiltzea. Faunaren erabilerari buruzko nazio mailako legeria zein autonomikoa ezagutu behar ditugu.

# ZERYNTHIA Elkartea

ZERYNTHIA Elkartea (Asociación Española para la Protección de las Mariposas y su Medio), estatu esparruko elkartea, erreferentzia da Espainiako lepidopteroen babesaren alorrean. Lurraldeko tximeleten ikerketa, kontserbazio eta dibulgaziora bideratzen ditu bere ahaleginak, hainbat ekimenen bidez.

Eguneko eta gaueko tximeleten babesean eta horien habitatak diren guneen kontserbazioan interesaturik dauden pertsonek osatzen dute ZERYNTHIA. Era berean, elkarteak ingurumenaren garrantziaz kontzientziatu nahi du gizartea, dibulgazioaren eta jarduera pedagogikoen bidez. Horretarako, hainbat bitartekoz baliatzen da: argitalpenak, ingurumen hezkuntzarekin loturiko ekimenak, arriskuan dauden espezieen populazioak babesteko kanpainak, monitorizazio leku eta programen sorrera, aholkularitza orokorra lepidopteroen kontserbazio edo kontrol neurriei buruz, etab. Proiektu horietariko askotan edozein herritarrek esku har dezake.

Parte hartzeko modu bat tximeletentzako lorategiak sortzea izan daiteke, “Tximeleten oasia” programaren barnean; era berean, eguneko zein gaueko tximeleten jarraipen programetan esku har daiteke, edo, besterik gabe, gure erakundeak kudeaturiko on-line plataformen bidez, egindako behaketak partekatuz.
Abian dauden proiektuak ezagutzeko: www.asociacion-zerynthia.org

# Euskadi, kontraste handiko lurraldea

Gure eskualdeak barne hartzen duen lepidoptero fauna ugaria, batez ere, lurraldeko kostaldearen eta iparraldearen arteko gradiente biogeografikoaren ondorioa da. Eragin atlantikoak Bizkaia eta Gipuzkoako zatirik handiena hartzen du, eremu horietan tenperatura gozoak eta euri kopuru handia eraginez. Araban klima mediterraneoa dugu nagusi, ipar-hego gradientea zehatzagoa duela. Hegoalde muturreko eremuan uda lehorrenak eta euri gutxiko negu hotzenak gertatzen dira. Itsasoaren eragina ez da ia-ia iristen eremu horretara.

Bestalde, Euskadiko orografiak ere lepidoptero espezie askoren banaketa finkatzen du. Bizkaia eta Gipuzkoa garaiera apalekoak dira; hortaz, Euskadiko iparraldeko zatirik handiena 400 metrotik beherako kotetan aurkitzen da. Hala eta guztiz, nabarmentzekoak dira Jaizkibel mendia, Irundik gertu, baita Oiz, Izarraitz eta Hernio mendiak Itsasertz Aurreko Mendilerroan. Lurraldeko erdialdean Euskal Mendiak aurkitzen ditugu, Kantauriar Mendikatearen eta Pirinioen arteko jarraitasuna markatzen dutenak. Mendikate horretako gailurrak ez dira oso garaiak, eta kotarik garaiena Gipuzkoako Aitxuri mendiari dagokio: 1551 metro. Nafarroan sartu aurretik,

◂ Sopelako kostaldea.

ondoko mendilerroak hartzen ditu: Gorobel eta Gorbeia, Urkiolamendi, Aramotz-Eskubaratz, Anboto eta Arangio, Aizkorri-Aratz eta Aralar. Araba gehiena 400 metrotik gora dago, mendilerro asko dituela, hala nola Arzena, Arkamo, Gasteizko Mendiak edo Entzia. Hegoaldeko muturrean Toloño, Kantabria eta Kodes mendilerroek Arabako Errioxaren hasiera markatzen dute, Ebro ibaia paisaian nagusi den aldean.

▼ Kantabria mendilerrotik. Lehen planoan Muela mendia, atzerago Izki Parke Naturala eta atzealdean Aizkorri-Aratz.

▲ Urkiola Parke Naturala. Ezkerretik eskuinera: Anboto, Untzillatx eta Mugarra mendiak.

▼ Gorbeiako ekialdea.

▼ Gorobel mendilerroa Urduñako Ama Birjinaren ermitatik.

Arrabako Landa, Itxinako mendigunean. Gorbeia Parke Naturala. ▸

▲ Guardia, Carralogroño-ko aintzira. Atzealdean Kantabria mendilerroa.

▲ Gipuzkoako lurraldearen ikuspegi orokorra, Aratz mendiko gailurretik.

▼ Erribera, Valderejo Parke Naturala.

◂ Arabako Errioxa (Guardia) eta Kantabria mendilerroa, Foehn efektuak eragindako hodeitza bereizgarria ageri duela.

▼ Arabako lautada, Aratz mendiko gailurretik. Atzealdean Kantabria eta Kodes mendilerroak.

▼ Karrantza Harana.

▼ Araotzeko landazabala eta mendiak, Oñatin.

# Herri izenak eta taxonomia

Tximeletek eta ornogabe gehienek ez dute herri izen berezirik espezie guztientzat, hegaztietan edo ugaztunetan ez bezala. Ordena, familia edo genero izena erabili ohi da, baina guztiz urri dira herri izen tradizionala dute espezie zehatzak.

Hala gazteleraz nola euskaraz aldez aurretik proposamenak bazeuden, nahiz ez oso sustraituak. Lehenengoei dagokienez, iberiar-balear eremuan aurkitzen diren tximeleta guztiei buruzko proposamen eguneratua aurkeztu da, aditu talde zabal batek adostua, ahal den erraztasun handiena, oinarri pedagogikoa eta adostasun zabala bilatuz (Monasterio et al., 2017).

Euskarazko izen arruntei dagokienez, ZERYNTHIA Elkarteko talde batek ¬¬–Dan Lertxundi, Joserra Undagoitia, Iker Novoa (euskaldunak), Ruth Escobés eta Yeray Monasteriok osatua– proposamen bat landu zuen eremu euskaldun osoko tximeletei buruz. Euskadiko autonomia erkidegora mugatzen ez den ikuspegi orokor horrek izen egokienak hautatzeko bidea eman digu; kontuan izan dugu, halaber, Euskadin agertu ez baina Nafarroan edo Iparraldean dauden espezieei izen koherente bat emateko premia. Aukeraturiko izenak Xabier Kintana euskaltzainak normalizatu ditu, argitalpenera begira nahitaezkotzat jo dugun kontua izanik berau. Proposamen honetan, gazteleraz bezalaxe, antzeko espezieak taldekatzen saiatu gara horien ikasketa erraztearren. Dena dela, gaztelera, ingelesa edo frantsesa bezalako hizkuntzetatiko hitzez hitzezko itzulpena ekidin dugu, ahal den neurrian. Kasu askotan aukeraturiko izenek zerikusia dute euskal kulturarekin, folklorearekin eta mitologiarekin.

Taxonomiari dagokionez, ahalik eta zerrenda eguneratuena erabili dugu, Fauna Europaeatik hartua (Karsholt & Nieukerken, 2017).

*Araschnia levana levana* forma, 1. belaunaldia (udaberrikoa)

# Tximeletak euskal kulturan

Bitxia bada ere, ez da euskal izenik batere dokumentatu espezie zehatzak izendatzeko; hitz ugari dago, ordea, lepidopteroak izendatzeko. Gure hizkuntzan sinonimorik gehien duen hitza omen. Hurrenkera alfabetikoan ematen ditugu literaturan bildutakoak:

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| abekata | altxabili | aperiko | astatxa | astoluma | atsoaren | arima |
| atxiamatxia | atximitxi | atxinini | atxitamatxi | atxitamutxita | atxiya-matxiya | axandalo |
| axandilo | azapinpirin | bitxilota | bitxilote | elguma | eskabi | farfailak |
| gau-ulika | ingoma | inguma | jainko-belatx | jainko-mandatari | jainko-oilo | kalajutxi |
| kalaputxi | lilirita | makara | mari sorgin | mariapanpilon | maripanpalona | maripuxitia |
| matxita | mitx(e)irrika | mitxelekote | mitxeleta | mitxirika | mutxutxui | oilo-zuri |
| panpina | pertxilota | pinpilin | pinpilinka | pinpilinpauxa | pinpirin | pitxilikote |
| pitxilingaria | pitxilipeta | pitxilote | pitxita | pitxoleta | poxpolin | sorgin-bitxi |
| sorginoilo | txaketa | txalumitxi | txepeleta | txibil-txori | txiketa | txilipitaina |
| tximelekote | tximeleta | tximelete | tximilita | tximilot(e)a | tximirrika | tximirrita |
| tximirrita | txinbeleta | txintxilinpalo | txintxitola | txipeleta | txiperrete | txipilipeta |
| txipilipeta | txipilita | txipillotoi | txipilota | txipirina | txipiritona | txipirrita |
| txiribiri | txirita | txirrimista | txiruliru | txitxilera | txitxipapa | ulifarfaila |

Gerhard Bähr (1928) izen ugaltze horretaz aritu zen, helduen mundu pragmatikoa eta haurren unibertsoa kontrajartzen zituela. Helduek izen bat erabili ohi dute gauza bakoitzeko; haurrak, aldiz, kasu handiagoa ematen diete ornogabeak bezalako elementuei, hain utilitarista ez den ikuspegi bat erabiliz. Ondokoa planteatzen du: *"Beti haurrak dira izen horiek ezagutzen dituztenak. Zergatik? Zeren eta ez dakizkitenean edo era lausoan gogoratzen dituztenean, beste batzuk asmatzen baitituzte, edo ia-ia. Haurrak tximeleten atzetik korrika ibiltzen dira horiek harrapatu nahian, horiekin jostatzen dute bertsoak kantatu eta ezizenak jartzen dizkietela, ferekatzen dituztela; horrek guztiak, nire iritziz, oso garbi esplikatzen du denborarekin eratuz joan den aldaera eta izen kopuru handia"*.

Esaera zaharretan ere askotan ageri dira, batez ere berriemaile gisa, berri horiek onak izan edo txarrak izan.

"Nolako tximeleta, halako berriak".

"Eskabi (tximeleta) baltzak barri txarrak".

“Mitxirrika (tximeleta) txuria, Jaungoikoaren mandataria”.

“Txipilota agertzen denean, biharamunean eskutitza etorriko omen da”.

Giza gogoen metafora gisa:

“Tximeleta, argitan erre”. Erakartzen gaituena batzuetan kaltegarri izan daitekeela adierazteko.

Era berean, badira haien fenologia nabarmentzen dutenak, eta nola hegaldi garaiaren aldaketak ondorio ez desiratuak iragartzen dituen. Batez ere, baserriko jardueraren ikuspegitik. “Kandelariotan tximeleta ikustea baino hobe ardi tartean otsoa”. (Kandelarioa: otsailak 2). Alegia: “Denboraren denborako, arbi errea abenduko”.

Hori kristau kulturari erantsi zaio. Hala, tximeleta zuriak Ama Birjinaren berriemaile zerutiartzat hartu dira, eta hortaz ez dira hil behar. Beltzak infernukotzat hartzen ziren eta gorriak (euskal kulturan laranja eta marroiaren artean dabilen kolorea) purgatoriokoak ziren. Halaber, tximeleta batek aurpegian jotzen gaituenean “Jainkoak digula berrion” esan ohi da.

Gau egun, eguneko tximeletei buruzko pertzepzio orokorra positiboa da. Hain da horrela ezen gehien erabilitako hitzak, tximeleta eta pinpilinpauxa, askotariko egiturak izendatzeko erabili ohi diren: haurtzaindegiak, kirol taldeak, musika bandak, dendak, konpartsak eta abar.

# Biologia, ziklo biologikoa eta anatomia

Tximeletek, beste intsektu batzuek bezala, hala nola koleopteroak, himenopteroak, dipteroak, etab., metamorfosi konplexua izaten dute. Estaltzearen ondoren, emeak arrautzak banaka edo multzoka kokatu ohi ditu landare elikagarriaren gainean. Beldarrak landare espezie batez edo espezie zehatzen multzo batez elikatu ohi dira. Hazi ahal izateko azala berritu behar dute zenbait aldiz. Azkeneko azalberritzeak beldarretik krisalida edo pupara aldatzea dakar. Aldi horretan aldaketa biokimiko handiak gertatzen dira, eta horien ondoren tximeleta heldua eklosionatuko da.

Garapen hori osatzeko behar den denbora oso aldakorra da espezie batetik bestera. Askok urteko belaunaldi bakarra dute (uniboltinoak); beste batzuek, aldiz, bi edo gehiago dituzte (poliboltinoak). Era berean, tximeleta espezie bakoitzak harturiko estrategiaren baitan izango da hilabete hotzenak igarotzeko modua. Batzuek hibernatzen dute arrautza itxuran, beste batzuek beldar itxuran, baina badira hotzaldiak krisalida edo heldu edo imago gisa igaroko dituztenak ere.

Tximeleten itxura izugarri aldatzen da garapenean zehar. Espezie bakoitzaren arrautzak, beldarrak eta krisalidak itxura bereizgarria dute eta helduen fasea iritsi aurretik identifika daitezke. Beldarrek egiazko sei hanka dituzte, intsektuen berezkoa dena, baina era berean “sasihankak” dituzte, geroago desagertuko direnak. Horiek azalaren tolestura eraldatuak dira, lokomozioan laguntzen dutenak muturreko kako txikiei esker, zeinek landare elikagarriari indarrez oratzeko bidea ematen dieten.



Tximeleta helduek bi hegal pare dituzte, aurreko biak eta atzeko biak. Horiek toraxean txertatzen dira, non hegan egitea ahalbidetzen dieten muskuluak kokatzen diren, baita sei hankei eragiten dietenak ere. Ninfalidoen kasuan, baita *Hamearislucinaren* arretan ere, lehenengo hanka parea atrofiatua dago eta, ikus dezakegunez, soilik lau hankaren gainean pausatzen dira. Buruan ondoko egiturak dituzte: begi konposatuak, antenak, palpoak eta espiritronpa bilgarria, azken horren bidez elikatzen direla. Azkenik, abdomenak hainbat organo nagusi dauzka, ondoko sistemei dagozkienak: arnas sistema, zirkulazio sistema, elikatze sistema eta ugaltze sistema.

Hegalek, espezie bakoitzaren bereizgarri diren koloreez gain, bestelako apaindurak ager ditzakete: sasi begiak (ozeloak), isats luzakinak, lunulak edota orbanak. Era berean, arretan androkoniak agertu ohi dira, aleen arteko komunikazio kimikoa errazten duten egiturak, batez ere gorteatze aldian. Tximeleten itxuraren deskripzioa erraztearren, hegalak gunetan zatitu dira marrazkian deskribatzen den eran.



# Familiak

## Hesperiidae edo hesperidoak

Txikiak dira eta sits itxura handiagoa dute eguneko tximeleta tipikoena baino. Oso bizkor mugitzen dira, sigi-sagan egin ohi dute hegan, eta era horretara nahasten dituzte beren harrapariak. Horietako batzuk identifikatzeko zailak izaten dira.



*Carcharodus alceae* *Thymelicus sylvestris* *Pyrgus carthami*

## Lycaenidae edo lizenidoak

Espezie ugariko familia da, oro har tamaina txikikoak. Lokatzezko istiletan aurkitu ohi ditugu, leku horietan elkarretaratzen baitira. Horietako batzuen beldarrak zenbait inurrirekin estuki loturik daude, elkarrekin bizi baitira.



*Callophrys rubi* *Glaucopsyche alexis* *Lycaena hippothoe*

## Pieridae edo pieridoak

Tamaina ertain edo handiko tximeletak dira. Gehienbat zuri, hori edo laranja kolorekoak. Espezie asko ohikoak dira eta are hiri inguruetan ere aurki ditzakegu.

*Pieris napi* *Gonepteryx cleopatra* *Colias croceus*

## Nymphalidae edo ninfalidoak

Askok kolorazio ikusgarriak ageri dituzte, are iridiszenteak ere. Hegaldi oso indartsua dute, horri esker migrazio handiak egiteko gai dira. Bere sei hanketatik lau besterik ez dute erabiltzen. Lehenengo parea, burutik gertuena, atrofiatua dute.



*Limenitis camilla* *Aglais io* *Nymphalis antiopa*

## Satyrinae edo satirinoak

Gaur egun ninfalidoen barneko azpifamiliatzat hartzen bada ere, familia bereizi gisa tratatu izan da dituzten berezitasunengatik. Horien kolorazioa iluna eta motela izan ohi da, Melanargia generoa izan ezik. Era berean, soilik lau hanketan pausatzen dira. Horien beldarrak belar landarez elikatzen dira.



*Aphantopus hyperantus* *Melanargia galathea* *Coenonympha dorus*

## Papilionidae edo papilionidoak

Euskadin familia honek lau ordezkari besterik ez du. Guztiek hegaldi astitsua dute, nahiz indartsua; erraz ezagutzen ahal dira.



*Papilio machaon* *Zerynthia rumina* *Iphiclides feisthamelii*

## Riodinidae edo riodinidoak

Europan horien ordezkari bakarra dugu. Gainerako espezieak neotropikoetan aurkitzen dira batez ere. Hauen kolorazioak ninfalidoena gogoratzen digu, baina tamainaz lizenidoen antzekoak dira; hori dela eta, azken familia horren barnean sailkatu dituzte iraganean. Arrek, ninfalidoetan gertatzen den bezalaxe, lau hanka bakarrik erabiltzen dituzte; emeak, aldiz seien gainean ibiltzen dira.

*Hamearis lucina*

# Fitxen edukia

Espeziearen familia.

Espeziearen izen zientifikoa eta deskriptorea, gaurko taxonomia erabiliz.

Izen arrunta euskaraz eta gazteleraz.

Kanpoko itxuraren deskribapen laburra, kolorazioa eta osagai anatomiko nabarmenak.

Biologia alderdi nabarmenak, batez ere helduen hegaldi garaia.

Larba fasean erabiltzen dituen landare espezieak.

Aurkitzen den ingurunea deskribatzen duten elementuak, hala nola geologia eta garaiera.

Mapek bideratzen ez duten informazio osagarria. Banaketa globala, Europakoa eta Euskadi mailakoa deskribatzen da.

Kontserbazio egoera eta espeziearen ezagupena eta kudeaketa hobetzeko hartu beharreko neurriak.

Hegalen luzera:
- Oso handia (72-84 mm)
- Handia (58-71 mm)
- Ertaina (39-57 mm)
- Txikia (27-38 mm)
- Oso txikia (22-26 mm)

Hesperiidae

*Carcharodus alceae*
(Esper, 1780)

Mamukioetako marmoratua
*Piquitos de las malvas*

**Deskribapena:** kolorazio orokorra marroia, orban ilunak eta tarte hialinoak aurreko hegaletan.

**Biologia:** helduek normalean martxo-urri artean egiten dute hegan; belaunaldi bat baino gehiago urtean. Ia garaiera guztietan ager daiteke, nahiz kota apaletan ugariagoa den.

**Landare elikagarriak:** *Malva* bereziki, baina baita *Lavatera*, *Althaea* eta *Alcea* spp. ere.

**Habitata:** eremu askotan ager daiteke, malbak bide ertzetan eta laborantza inguruneetan sortzen baitira. Itsas mailatik mendi ertaineko guneetaraino.

**Banaketa eremua:** Iberiar Penintsulatik Europako iparralderaino eta Asiaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa:** ez du kontserbazio neurririk eskatzen. Giza jarduerak zeharka mesede egiten dio tximeleta honi, horren landare elikagarrietako askori bezalaxe. Sastraka kentze ez hain gogorrek on egingo liokete, horrela landaredi erruderala iraunaraztea bideratuko litzateke eta.

Nola ezagutu?

Atzeko hegalen gainalean ez du orban zuriko nabarmenik, eta heri da espezie honen ezaugarria. Aurreko hegalen hirugarren orbana garputz aldera hurbiltzen da. Espezieak antzekotasuna *C. hispiferarekin* izan dezake.

Euskadiko banaketa mapa. Laranja koloreko orbanek ezagutzen den banaketa adierazten dute. Zenbait espezieri dagokionez, etorkizunean ager litezkeen eremua lerro zeiharrez adierazten da.

Helduen hegaldatze garaiari buruzko informazio fenologikoa.

Funtsezko ezaugarriak identifikatzeko xehetasunak. Maiz askotan, antzeko beste espezieekin alderatuz. Argigarri gisa geziak erabili dira argazki irudietan.

# Fitxen edukia

# *Carcharodus alceae*

(Esper, 1780)

Mamukioetako marmoratua

*Piquitos de las malvas*

**Deskribapena**: kolorazio orokorra marroia, orban ilunak eta tarte hialinoak aurreko hegaletan.

**Biologia**: helduek normalean martxo-urri artean egiten dute hegan; belaunaldi bat baino gehiago urtean. Ia garaiera guztietan ager daiteke, nahiz kota apaletan ugariagoa den.

**Landare elikagarriak**: *Malva* bereziki, baina baita *Lavatera*, *Althaea* eta *Alcea* spp. ere.

**Habitata**: eremu askotan ager daiteke, malbak bide ertzetan eta laborantza inguruneetan sortzen baitira. Itsas mailatik mendi ertaineko guneetaraino.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik Europako iparralderaino eta Asiaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: ez du kontserbazio neurririk eskatzen. Giza jarduerak zeharka mesede egiten dio tximeleta honi, horren landare elikagarrietako askori bezalaxe. Sastraka kentze ez hain gogorrek on egingo liokete, horrela landaredi erruderala iraunaraztea bideratuko litzateke eta.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen gainaldean ez du orban zurixka nabarmenik, eta hori da espezie honen ezaugarria. Aurreko hegalen hirugarren orbana gorputz aldera hurbiltzen da. Espezierik antzekoena *C. floccifera* izango litzateke.

orban mailaduna
orban txiki zeharrargiak
zehaztasun gutxiko orban argiak
Carcharodus generoaren ohiko atseden jarrera

# *Carcharodus baeticus*

(Rambur, 1839)

Lekugietako marmoratua

*Piquitos del marrubio*

**Deskribapena**: marroi koloreko gainaldea, aurreko hegaletan zerrenda grisaxkak eta leiho hialinoak. Atzekoetan marrazki zurixka garbia eta zabala du, eta makula sail ilunagoa ertzean. Azpialdean marra zurixken diseinua nabarmentzen da.

**Biologia**: helduek maiatzetik irailera egiten dute hegan bi belaunalditan.

**Landare elikagarriak**: *Marrubium vulgare.*

**Habitata**: gune lehorrak, bereziki bide ertzen inguruan, haren landare elikagarria gune horietan hazten baita gehienbat. Euskadin 400-600 metroko garaieran bizi da.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula gehiena, Frantzia eta Italiako hego-mendebaldea. Euskadin nagusiki Arabako Errioxan aurkitzen dugu, nahiz Gasteiz ondoan datu bat bildu den, eta beste bat Bilbotik hurbil, Luzuero (Zierbena) mendiari dagokiokeena, non haren landare elikagarria dagoen.

**Kontserbazioa**: nagusiki Arabako Errioxara mugatua bada ere, alderdi horretan ohiko tximeleta da, haren landare elikagarria ugari aurkitzen baita bertan. Nolanahi ere, Bizkaiko datu bakarra sakon aztertu beharra dago, horren egiazkotasuna onargarria delako; hortaz, baliteke kontserbazio neurri bereziak beharrezkoak izatea, gaur egun populaziorik egonez gero.

## Nola ezagutu?

Aurreko hegalen gainaldea beste espezie batzuetan baino argiagoa da. Orban diskalak ez dira gainerakoetan bezain nabarmenak. Aurreko hegalen makula zurixkak zabalak eta garbiak dira, baina ez *C. lavatherae* espeziean bezainbat.


orban ilunak
kurban lerrokatuak
gune zeharrargiak
orban gris-
urdina
marrazki argi oso
nabarmena
orban zuriko hiru serie
eta nerbio zuriak

# *Carcharodus floccifera*

(Zeller, 1847)

Marmoratu menditarra

*Piquitos serrana*

**Deskribapena**: gainaldea marroi iluna, aurreko hegaletan leiho hialinoak eta atzekoetan makula txikiak. Arrek zerrenda gorrixka bat agertzen dute aurrekoen oinaldean. Azpialdeak tonu marroi grisaxka du.

**Biologia**: helduek apiril-irail bitartean egiten dute hegan, urteko bi belaunalditan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Stachys rectaz* elikatzen dira.

**Habitata**: edozein garaieratan aurki daiteke, nahiz ugariagoa den mendialde ertainetan, 500-800 metro artean.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik Europa eta Kaukasoko erdi eta hegoaldera hedaturik dago, eta are Asiako ekialderaino. Euskadin horren presentzia Araban bakarrik dokumentatu da eta duela gutxi Gipuzkoako eremu batean.

**Kontserbazioa**: Araban banaketa zabala bide du. Gure iritziz, espezie hau ez dago arriskuan EAEn.

## Nola ezagutu?

*C. alceae* da espezierik antzekoena, baina espezie horretan aurreko hegaletako alde diskaleko hirugarren orbana ez da hain lerratua gorputz aldera. Hegal bietako azpialdean bazterreko orban zuriak ageri dira, finbrietaraino iristen direnak eta tximeleta honen bereizgarri nabarmenak direnak. .

Orban ilunak kurban C. Alceaerenak baino lerrokatuagoak
zerrenda gorrixka
orban zuri luzatuak ertzean

# *Carcharodus lavatherae*

(Esper, 1783)

Marmoratu argia

*Piquitos clara*

**Deskribapena**: gainaldea marroi horixka, aurreko hegaletan tarte hialinoak, generoaren gainerako espezieetan bezalaxe. Atzeko hegaletan orban zurixkak zabal-garbiak ageri dira. Azpialdea okre margula da eta makula zurixkak ditu.

**Biologia**: helduak maiatz-abuztu bitartean aurkitzen dira, belaunaldi bakarrekoak.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Sideritis* eta *Stachys* espezieez elikatzen dira.

**Habitata**: kareharrizko eremuetarako joera du. Ohikoagoa da mendi ertaineko lekuetan, nahiz, itsas mailatik gora, ia edozein garaieratan ager daitekeen.

**Banaketa eremua**: ipar Afrikatik eta Iberiar Penintsulatik Asia Txikiraino hedaturik dago. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen da, Gipuzkoan oso urria bada ere.

**Kontserbazioa**: ez da ugaria Euskadin. Erregistro bibliografikoak urri dira. Gipuzkoan aipamen bakarra dago. Dena den, banaketa zabalagoa izatea guztiz litekeena da.



## Nola ezagutu?

Genero honetan kolorazio argieneko espeziea da. Atzeko hegalen azpialdeko orbanak ere argiagoak eta nabarmenagoak dira.

azpialdeko marrazki margula, kontraste gutxikoa
orban zeharrargiak, generoko beste batzuetan baino handiagoak
orban ilunak kurban lerrokatuak
orban argi handiak eta ongi zehaztuak

# *Carterocephalus palaemon*

(Pallas, 1771)

Palaemon
*Palaemon*

**Deskribapena**: arrek eta emeek oso antzeko diseinua agertzen dute. Hala gainaldean nola azpialdean kolore horixka nabarmentzen da, marrazki ilunekin. Atzeko hegalen azpialdeak diseinu guztiz bereizgarria du, orban biribil argiagoak baititu.

**Biologia**: helduek apiril-ekain bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak hainbat gramineo espeziez elikatzen dira. Euskadin, seguruenik, *Brachypodium pinnatum* espezieaz baliatzen da, besteak beste.

**Habitata**: soilguneak eta bide bazterrak baso hosto erorkorren ingurunean, 450-900 metroko garaieran. Habitat artifizialak onartzen ditu, hala nola *Pinus nigra, Pinus radiata* eta *Chamaecyparis lawsoniana* dauzkaten sailak.

**Banaketa eremua**: Europan zabal banaturik ageri da eta Asian eta Siberian zehar hedaturik dago, are Japonia eta Ipar Amerikaraino. Iberiar Penintsulan soilik Europako Mendietan, Lleidan, Burgosen, Araban eta Bizkaian aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: Euskadin ditugunen artean, tximeleta urrienetako eta adierazgarrienetako bat da. Komenigarria da tximeleta hau Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartzea. UICNren irizpideak aplikatuz, Euskal Herrian horren egoera “Arriskuan” (EN) izango litzateke.

## Nola ezagutu?

Ez da beste ezein espezierekin nahasten haren diseinu nabarmenagatik.

## *Erynnis tages*
(Linnaeus, 1758)

Fraidetxoa
*Cervantes*

**Deskribapena**: gainaldea oso iluna, marrazki grisaxka eta beltzak. Atzealdea ere iluna da eta apaingarri oso gutxikoa.

**Biologia**: helduek martxo-irail bitartean egiten dute hegan; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Coronilla, Lotus, Anthyllis* eta *Hippocrepis* bezalako landare lekadunez elikatzen dira.

**Habitata**: belar landarediz hornituriko gune irekiak, oso garaiera desberdinetan, itsas mailatik 1000 metrorainokoan.

**Banaketa eremua**: Euro-siberiar espeziea da, Europa osoan eta Asian Txinaraino hedatua. Penintsula osoko guneetan agertzen da, baina ugariagoa da iparraldean. Euskal lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: espezie arrunta da eta are ugaria zenbait aldetan. Dena den, zelaietako beste espezie batzuentzat bezala, abeltzaintza eta nekazaritza jarduera tradizionalak mesedegarriak gertatzen dira tximeleta honentzat. Laborantza jarduera intentsiboek, aldiz, habitat egokien kalitatea eta hedadura murrizten dituzte.

### Nola ezagutu?

*Pyrgus, Spialia* edo *Muschampia* espezieek gainaldean dituzten orban zuri garbiak ez dira agertzen espezie honetan. Era berean, *Carcharodusek* dituen leiho hialinoak ez dira agertzen. Diseinurik soileneko hesperidoa dugu

# *Gegenes nostrodamus*

(Fabricius, 1793)

Lezka-tximista

*Veloz de las riberas*

**Deskribapena**: gainaldeko kolorazioa iluna; uniformea arretan, baina makula zuriekin emeen aurreko hegaletan. Azpialdeak marroi tonua du, ez oso ikusgarria.

**Biologia**: helduek bi belaunaldi dituzte urtean, ekain-urri bitartean.

**Landare elikagarriak**: Iberiar Penintsulan espezie honen landare elikagarri nagusia lezka (Phragmites australis) da.

**Habitata**: ur ibilbideetatik hurbil, horietan hazten baita landare elikagarria.

**Banaketa eremua**: tximeleta honen populazioak Mediterraneo ingurutik Asiako eta Indiako erdialderaino zabaltzen dira. Iberiar Penintsula osoan aurki daiteke, ipar-mendebaldean izan ezik. Euskadin ez dago erregistrorik, baina bai Logroñotik oso hurbil.

**Kontserbazioa**: Euskal Autonomia Erkidegoan tximeletaren presentzia berretsi beharko litzateke. Litekeena da Arabako Errioxako zenbait gunetan agertzea, hala nola Oionen, Guardian edo Ebroko erriberako edozein lekutan.

## Nola ezagutu?

Espezie hau nahastezina da hainbat ezaugarrirengatik: tamaina, kolorazioa eta hegaldia (azkarra, lur-arrasekoa eta sigi-sagatsua).

# *Hesperia comma*

(Linnaeus, 1758)

Urre orbanzuria

*Dorada manchas blancas*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa; arrek zerrenda androkonial bat dute aurreko hegaletan. Atzeko hegaletan azpialdea berdekara, orban zuri ongi mugatuak dituela.

**Biologia**: abuztu-irail bitartean egiten du hegan; urteko belaunaldi bakarra.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Festuca* generoko gramineoen hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: gune ireki eguzkiztatu eta heze samarretan aurkitzen da. Mendi aldeak nahiago ditu baina kostaldean ere ikus daiteke. 150 metroko garaieratik gora aurki dezakegu.

**Banaketa eremua**: Araban ongi banaturik ageri da, baina urria da beste bi euskal lurraldeetan.

**Kontserbazioa**: Araban ez du zainketa neurrien beharrik, baina Bizkaian hain urri izateak, seguruenik, tolerantzia apala adierazten du espezie aloktonoen sailekiko eta belardien erabilera gero eta handiagoarekiko. Era berean, egokia litzateke Gipuzkoan populazioak aurkitzen saiatzea, segur aski babes neurriren baten premia izango dute eta.

## Nola ezagutu?

*Ochlodes sylvanusen antzekoa da; hala eta guztiz, biak bereiztea erraza da atzeko hegalen azpialdean erakusten dituen orban zuri ongi mugatuei esker.*

♂
orban zuri ongi zehaztuak
♀
orban ongi zehaztuak emeen gainaldean
♂
androkonia

# *Heteropterus morpheus*

(Pallas, 1771)

Pinpirina
*Saltarina*

**Deskribapena**: gainaldea beltza; aurreko hegaletan makula zurixkak ditu, hedatuagoak emeetan. Azpialdea oso deigarria da: hondo horixka baten gainean makula zuri handiak ageri dira, beltzez inguratuak.

**Biologia**: helduek uztail-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean. Arrak oso lurraldekoiak dira eta beren eremua defendatzen dute beste ezein intsektu hegalari inbaditzaileren aurrean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak Brachypodium eta Molinia spp. gramineoez elikatzen dira.

**Habitata**: tximeleta hau eremu belartsu hezeekin loturik dago, txilarra izaten dutenak eta abeltzaintza estentsiboan erabili ohi direnak. Normalean, kostaldetik 1000 metroko garaieraino gehienez.

**Banaketa eremua**: ongi zabaldua Europan eta Asia epelean zehar, Siberiaraino eta Korearaino. Iberiar Penintsulan kantabriar eragin zuzenera mugatzen da. Euskadin hiru lurraldeetan ageri da.

**Kontserbazioa**: Euskadin ohiko tximeleta da, nahiz abeltzaintzaren intentsifikazioak eragina izan dezakeen haren baitan, belar luzeko guneak behar baititu.

## Nola ezagutu?

Ezin nahasizkoa da bere itxuragatik, baina baita ibileragatik ere, airean jauzi txikiak egiten baititu hegaldatzerakoan.

♂
♀
♂
arren orban zuriak
txikiagoak emeenak
baino

# *Muschampia proto*

(Ochsenheimer, 1808)

Sasi-xake berdexka
*Proto*

**Deskribapena**: gainaldea gris berdekara; makula zurixkak ditu bai aurreko eta bai atzeko hegaletan. Toraxak maiz tonu urdinxka du. Azpialdea ez da oso deigarria, marroi argi kolorekoa eta orban zuriak.

**Biologia**: urteko belaunaldi bakarra baina bizialdi luzekoa, apiril-urri bitartekoa. Beldarrek babes guztiz ikusgai bat osatzen dute landare elikagarriaren gainean, hosto batzuk metatuz.

**Landare elikagarriak**: gure eskualdean beldarra *Phlomis lychnitis* landareaz elikatzen da.

**Habitata**: landare elikagarriaz hornituriko mediterranear eremuetan, 400-600 metroko garaieran.

**Banaketa eremua**: Euskadin erregistro gutxiko espeziea da, nahiz seguruenik haren banaketa zabalagoa izango den. Arabako Errioxan aurkitzen da, baita mediterranear mendialdeetan ere, Gasteiz inguruaino.

**Kontserbazioa**: beldarraren landare ostalaria da haren mugatzaile nagusia Euskadin. Ez da espezie ugaria, baina gure ustetan ez dago arriskuan EAEn.

## Nola ezagutu?

*Pyrgus* generoaren antzekoa da, nahiz tonu orokorra argiagoa eta berdekaragoa duen. Hegalen muturreko puntuak guztiz lerrokaturik daude, *Pyrgusean* ez bezala.

hiru orban zuri
lerrokatuak

# *Ochlodes sylvanus*

(Esper, 1777)

Urre orbanlausoa

*Dorada difusa*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa; arrek marrazki argiagoak eta zerrenda androkonial beltza agertzen dituzte. Azpialdea laranja kolorekoa da eta atzeko hegaletan zerrenda argiak, oso ahulak, sumatzen dira.

**Biologia**: imagoek gehienbat maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Dactylis glomerata* bezalako gramineoez elikatzen dira.

**Habitata**: hala basoetan nola gune irekietan aurki daiteke. Era berean, edozein garaieratan ager daiteke, itsas mailatik abiatuta.

**Banaketa eremua**: oso hedatua Europa osoan, Asiako hego-mendebaldea eta erdialdean, Siberia, Mongolia eta Korearaino. Euskadin hiru lurraldeetan ageri da.

**Kontserbazioa**: espezie arrunta da, kontserbazio arazo berezirik gabea.

## Nola ezagutu?

Tamainaz eta kolorazioaz, *Hesperia commaren* antzekoa da. Hala ere, atzeko hegalen azpialdean ez du makula zuri zehazturik, *Hesperia comman* guztiz nabarmenak direnak.

♂
♀
♀
orban zuri oso ahulak,
*H. comman* ez bezala
♀
emeen gainaldean
orban lausoagoak
*H. commarenak*
baino
♀

# *Pyrgus alveus*

(Hübner, 1803)

Xake iluna

*Ajedrezada serrana*

**Deskribapena**: espezie aski handia da bere generoan. Gainaldea iluna da eta orban zuriak ditu, garbiagoak aurreko hegalean. Azpialdea marroi berdekara, makula zuriak.

**Biologia**: imagoek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Helianthemum, Halimium* eta *Potentilla* generoetako espezieez baliatzen dira elikatzeko.

**Habitata**: normalean, mendi ertaineko guneak. Sastrakadun leku belartsuetan aurkitzen da.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Iberiar Penintsula eta Europa eta Kaukaso gehienetik Asia Txikiraino. Hiru euskal lurraldeetan agertzen da, baina, antza denez, oso urria da Bizkaian eta Gipuzkoan.

**Kontserbazioa**: ezein datuk ez du adierazten tximeleta honen kontserbazio egoerak okerrera egin duenik. Litekeena da etorkizunean gure lurraldeko beste zenbait gunetan azaltzea.

## Nola ezagutu?

Euskadin *Pyrgus bellieri* espeziearekin nahasi izan da, horren aipamen batzuk daudela. Hala ere, erregistro guztiak benetan *P. alveusi* dagozkio. Haren egitura genitala aztertuz identifikazio fidagarria egin daiteke, eta generoaren gainerako espezieetatik bereizi.

*Pyrgus*en ohiko puntu zuri
ez lerrokatua

# *Pyrgus armoricanus*

(Oberthür, 1910)

Mendi-xakea

*Ajedrezada armoricana*

**Deskribapena**: kolorazio iluneko gainaldea, orban zuriz ñabartua, eta hegaletako ertza xake itxurakoa. Azpialdea marroi berdexka da eta makula zurixkak ditu.

**Biologia**: helduek nagusiki maiatz-irail bitartean egiten dute hegan; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Potentilla* espezie batzuez eta *Filipendula vulgaris*ez elikatzen dira.

**Habitata**: Euskadin garaiera ertaineko tximeleta da, 500-800 metro ingurukoa. Bereziki abeltzaintza estentsiboko belardiekin loturik ageri da.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europako erdialdean eta hegoaldean zehar, Asia Txiki, Iran eta Libanoraino. Euskadin, oraingoz, Araban bakarrik dokumentatu da.

**Kontserbazioa**: haren biziraupenari begira, mesedegarria da abeltzaintza estentsiboa bezalako jarduerak mantentzea. Abere gehiegi duten belardiek aldatu egiten dute landare konposizioa, eta gero eta desegokiagoak gertatzen dira espezie honentzat eta habitat irekiekin loturiko beste hainbat espezierentzat.

## Nola ezagutu?

Espezie mailan identifikatzeko haren genitalia aztertu behar da. Generoaren gainerako espezieen antza handia du, horietan guztietan izan daitekeen aldakortasun indibidualarengatik.

Pyrgusen ohiko puntu zuri ez lerrokatua
♀
♂
♂

# *Pyrgus carthami*

(Hübner, 1813)

Xake handia

*Ajedrezada mayor*

**Deskribapena**: espezie aski handia da bere generoan. Gainaldea grisaxka da eta makula zurixkak ditu, atzeko hegalean ere ongi zehaztuta ageri direla. Azpialdeak marrazki horixka bat du, baita kolore argiko tarte handi batzuk ere.

**Biologia**: belaunaldi bakarreko helduak ekain-abuztu bitartean hegaldatzen dira.

**Landare elikagarriak**: *Potentilla cinerea, P. verna* eta *P. reptans*.

**Habitata**: lurzoru eskaseko kareharrizko ingurune irekietarako joera du, mendi ertaineko eremuetan, 500-900 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Urduñan (Bizkaia) erregistro bat dago, baina litekeena da Burgoskoa izatea, hango habitata egokiagoa baita.

**Kontserbazioa**: ongi banaturik dago Araban, baina haren presentziaz gauza gutxi dakigu Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokienez. Azterketa horretan sakondu beharra dago, haren banaketa eta kontserbazio egoera hobeto ezagutuko baditugu.

## Nola ezagutu?

Genero bereko beste batzuk baino handiagoa da. Hegal bietako azpialdearen ertza argia du. Ziurtasunez identifikatzeko komenigarria da genitalia aztertzea, haren itxura bereizgarrienetako bat delako Euskadin dauden espezieen artean.

Pyrgusen ohiko puntu zuri ez lerrokatua
orban zuri argien serie osoa
bi hegalen ertz zuria
orban beltzak ez dira hegalen ertz muturrera iristen

# *Pyrgus cirsii*

(Rambur, 1839)

Teila-xakea

*Ajedrezada rojiza*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, orban zuri lodiak eta ongi zehaztuak. Arretan toles androkonial bat ikus daiteke, genero honen espezie guztietan agertzen dena. Azpialdeak tonu gorrixka izaten du eta finbriak xake itxurakoak dira.

**Biologia**: urteko belaunaldi bakarrekoa. Helduek ekain-irail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: *Potentilla cinerea, P. verna* eta *P. reptans*.

**Habitata**: mediterranear basoz hornituriko eremu lehorretarako joera du, garaiera ertaineko mendialdekoak gehienbat.

**Banaketa eremua**: mendebaldeko Europa, Iberiar Penintsulatik Alemaniaraino. Penintsulan, ipar-ekialdeko koadrantean bereziki. Euskadin, Arabari dagozkion aipamen gutxi batzuk besterik ez da.

**Kontserbazioa**: Euskadin bakan aipatutako espeziea da. Komenigarria litzateke tximeleta honen azterketan sakontzea eta beste populazio batzuk bilatzea, kontserbazio egoera zuzen ebaluatu ahal izateko.

## Nola ezagutu?

Aurreko hegaleko gelan kokaturiko puntua laukizuzena izan ohi da. Generoaren gainerako espezieetatik ziurtasunez bereizi ahal izateko, haren genitalia aztertu beharra dago.

ertzeko orbana gorrixka, beste hainbat
espezietan zurixka izan ohi dena
♂
*Pyrgus*en ohiko puntu zuri
ez lerrokatua
♀

# *Pyrgus malvoides*

(Elwes & Edwards, 1897)

Xake txikia

*Ajedrezada menor*

**Deskribapena**: tamaina txikikoa, genero bereko beste espezie batzuen aldean. Gainaldea iluna du, bi hegaletan ongi zehazturiko makula zuriak ditu eta finbriak xake itxurakoak dira. Atzeko hegalen azpialdea gorrixka da askotan.

**Biologia**: lehenik agertzen den generoaren espeziea da. Horren aleak ikus daitezke martxoaren amaieratik irailera arte; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak errosazeoez elikatzen dira, hala nola *Potentilla, Rubus, Fragaria, Sanguisorba* eta *Agrimonia.*

**Habitata**: belardiko espeziea da, itsas mailatik mendialderaino aurki daitekeena. Euskadin 1000 metrotik behera bizi ohi da.

**Banaketa eremua**: Europako hego-mendebaldea. Euskadin ongi banatua agertzen da hiru lurraldeetan.

**Kontserbazioa**: tximeleta arrunta da eta ez du babes neurririk behar.

## Nola ezagutu?

Tamaina txikia eta azpialdeko orban zuriak direla-eta, landa aldean identifikagarri gerta daiteke, esperientzia nahikoa izanez gero.

♀
*Pyrgusen* ohiko puntu zuri ez lerrokatua
orban zuriak, beste espezie batzuetan baino nabarmenagoak
♂

# *Pyrgus onopordi*

(Rambur, 1839)

Ingude-xakea

*Ajedrezada yunque*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, ongi zehazturiko makula zuriak ditu gainaldean eta grisaxka eta gutxi zehazturikoak atzeko hegaletan. Azpialdeak marrazki konbinatu bat erakusten du, tarte arre-horixkak eta zuriak agertzen dituena. Finbriak xake itxurakoak dira.

**Biologia**: bi belaunaldiko helduak, apiriletik irail-urrira arte hegan egiten dutenak.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Malva, Potentilla* eta *Helianthemum* generoez elikatzen dira.

**Habitata**: Maiz mediterranear landarediz horniturikо gune irekiekin loturik ageri da.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula eta Mediterraneoko eskualdea Italiaraino. Kokaleku ezagun gutxi ditu, guztiak Arabako hegoaldean bildurik. Duela gutxi Valderejoko Natura Parkean ikusi ahal izan da.

**Kontserbazioa**: tximeleta honen kontserbazio egoera ezezaguna da, baina gure lurraldean urria dela ematen du. Espezie honi buruzko informazioa biltzeko premia azpimarratu beharra dago.

## Nola ezagutu?

Aurreko hegalen gainaldean duen gelako orbanak ingude itxura izan ohi du, eta hortik datorkio izen arrunta. Nolanahi ere, aldakortasun indibiduala kontuan izanik, komenigarria da haren genitalia aztertzea.

*Pyrgusen* ohiko puntu zuri ez lerrokatua

# *Pyrgus serratulae*

(Rambur, 1839)

Obalo-xakea

*Ajedrezada verdosa*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, berdekaragoa emeetan, makula zuriz ñabartuak aurreko hegaletan eta ia markarik gabe atzekoetan. Azpialdea iluna eta makula zuriak aurrekoetan; tonu arrea atzekoetan, marka zurixkak ageri dituela.

**Biologia**: mendi ertaineko eremuetan aurkitu ohi dugu, maiatzetik urrira bitartean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Geum* eta *Potentilla* generoetako espezieez elikatzen dira. Euskadin *P. montana*ren gainean arrautzak jartzen ikusi dira.

**Habitata**: Belardi aldeak eta baso hosto erorkorretako soilguneak. Mendi ertaineko eremuetan, normalean 1000 metroko garaieraraino.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik Mongolia eta Siberiaraino. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkituko dugu.

**Kontserbazioa**: genero honen gainerako espezieetan gertatzen den bezala, ez dakigu ziur haren kontserbazio egoera. Informazio gehiago bildu beharra dago tximeleta honen banaketaz eta eskakizun ekologikoez.

## Nola ezagutu?

Generoko gainerako espezieen oso antzekoa da eta haren genitalia aztertu behar da ziurtasunez identifikatzeko. Dena dela, atzeko hegalen gainaldeko markak lausoen agertzen diren espeziea da, *P. armoricanus*ekin batera.

♀
*Pyrgusen* ohiko puntu zuri ez lerrokatua
♀
orban zuri obalatua eta bereizia
orban zuri obalatua eta bereizia
♂

# *Spialia sertorius*

(Hoffmannsegg, 1804)

Sasi-xakea
*Sertorio*

**Deskribapena**: gainaldea beltza ia-ia, orban zuriz ñabartuak hala aurreko hegaletan nola atzekoetan. Finbriak, xake itxurakoak. Azpialdea gorrixka da, eta makula zuriak ageri ditu.

**Biologia**: bi belaunaldiko helduak, apiril-irail bitartean hegan egiten dutenak.

**Landare elikagarriak**: beldarra *Sanguisorba minor*ez elikatzen da.

**Habitata**: belardiak eta landare elikagarria hazten den bide bazterrak. Normalean, 300-1000 metro bitartekoko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula osoa eta Europako erdialdea eta hego-mendebaldea. Araban ongi banaturik ageri da, baina urria da beste bi euskal lurraldeetan.

**Kontserbazioa**: mediterranear sastrakadun eremuekin eta belardiekin loturik dago tximeleta hau. Horregatik abeltzaintza intentsiboa kaltegarria da harentzat. Kontserbazioari begira, komenigarria da sastraka eta abeltzaintza estentsiboagoa egotea, landare elikagarria hazi ahal izan dadin.

## Nola ezagutu?

*Pyrgus* generoaren oso antzekoa da. *Spialia sertorius*ek, alabaina, aurreko hegalen muturreko puntuak lerrokaturik ditu, beste horretan ez bezala. Era berean, abdomenaren amaiera gorrixka kolorea du ezaugarri.

lau orban lerrokatu,
*Pyrgusen* ez bezala
♂
orban zurien serie
osoa ertzean
abdomenaren
amaiera gorrixka,
nabarmenagoa arretan
♂
azpialdea gorrixka

# *Thymelicus acteon*

(Rottemburg, 1775)

Urre iluna

*Dorada oscura*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, arren aurreko hegaletan zerrenda androkonial beltz mehe bat ageri da. Aurrekoen muturretik hurbil ere, marrazki argiago ahul bat ikus daiteke, zirkuluerdi formakoa. Azpialdeak laranja kolore uniformea agertzen du, marrazki nabarmenik gabe.

**Biologia**: belaunaldi bakarra du urtean eta helduek maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Brachypodium spp.* bezalako graminoez elikatzen dira.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrorainoko garaiera guztietan aurki dezakegu. Eremu eguzkitsu eta lehorretarako joera du.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europako hegoalde guztian eta erdialdean zehar, Ekialde Hurbileraino. Iberiar Penintsula osoan eta hiru euskal lurraldeetan ageri da.

**Kontserbazioa**: ohiko tximeleta da, ingurune guztietan agertzen da eta ongi jasaten ditu gizakiek eragindako aldaketak.

## Nola ezagutu?

*Thymelicusen* beste bi espezieak baino ilunagoa da. Aurreko hegalen muturrean marrazki lauso bat agertzen duen bakarra da, marrazki hori are argitara ikusten dela azpialdetik. Antena ilunagoak ditu luzera osoan.

antenen atzealdea iluna
♂
♀
zirkuluerdi formako marka gutxi-asko nabarmena aurreko hegaletan
♀

# *Thymelicus lineola*

(Ochsenheimer, 1808)

Urre mazobeltza

*Dorada puntas negras*

**Deskribapena**: gainaldea laranja tonukoa, hegalen ertzetan zerrenda beltz bat ageri da. Arrek aurrekoetan zerrenda androkonial mehe bat dute. Azpialdea laranja kolorekoa da, doi bat zurixka batzuetan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra du urtean eta helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Brachypodium* spp. bezalako gramineoez elikatzen dira.

**Habitata**: Aski gora dauden guneetatik itsas mailaraino aurki dezakegu hegan, askotariko habitatetan, are laborantza alorretan ere.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europa eta Asia epel ia osoan zehar hedaturik dago, Siberiaraino eta Ipar Amerikaraino, non sartutako espeziea den. Iberiar Penintsula osoan eta hiru euskal lurraldeetan ageri da. Oso urria da Bizkaian eta Gipuzkoan.

**Kontserbazioa**: Araban eta Penintsula osoan arrunta izan arren, Bizkaian eta Gipuzkoan aztertu eta babesteko espeziea izango litzateke, horren erregistro urriak direla eta.

## Nola ezagutu?

*T. acteone*tik desberdintzen da ez duelako marrazki argirik aurreko hegaletan, zeinak laranja kolore uniformekoak diren. Antenak argiak dira, muturreko sabelaldea kolore beltz bizikoa, eta horrek desberdintzen du *T. sylvestris*etik.

T. sylvestrisen baino androkonia meheagoa
♂
laranja koloreko antenak, muturreko gune bentrala beltz kolorekoa
♂

# *Thymelicus sylvestris*

(Poda, 1761)

Urre mazogorria

*Dorada puntas claras*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, zerrenda androkonial beltza ongi nabarmena eta hegalen ertza beltza ere. Azpialdea ere laranja tonukoa da, baina gainaldekoa baino askoz motelagoa.

**Biologia**: helduak ekain-abuztu bitartean agertzen dira; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Brachypodium* eta *Elymus* generoak bezalako gramineoez elikatzen dira.

**Habitata**: gune irekiak, hala sega-belardietan nola basoetako soilguneetan. Garaiera gradiente zabalean ager daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europa ia osoan eta Asia Txikian zehar, Asiako erdialderaino aurkitzen da. Penintsula osoan eta hiru euskal lurraldeetan agertzen da. Urriagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan, bereziki eskasa bigarrenean.

**Kontserbazioa**: espezie arrunta da lurralde gehienean zehar, baina oso urria Gipuzkoan, non, hala eta guztiz, gaur egungo erregistroak dauden. Komenigarria da lurralde horretan egoera zein den hobeki ezagutzea eta, tokiko kontserbazioari begira, hartu litezkeen neurriak baloratzea.

## Nola ezagutu?

Gainaldea guztiz laranja kolorekoa da, *T. acteonek* agertzen duenaren marrazki ahulik gabea. Antenak argiak dira eta muturra laranja kolorekoa da, *T. lineolarenak* ez bezala.


*T. lineolan* baino androkonia nabarmenagoa
♂
laranja koloreko antenak, muturreko gune bentrala marroi argi kolorekoa

# *Iphiclides feisthamelii*

(Duponchel, 1832)

Lirio-tximeleta
*Chupaleches*

**Deskribapena**: tamaina handiko espeziea. Diseinu bereizgarriaren jabe, luzetarako marra beltzak ageri ditu aurreko hegaletan, tigre itxura eransten diotenak. Atzeko hegaletan nabarmentzekoak dira bi isats muturrak, bi ozeloak eta tarte horretako apaingarri guztia, ilargi-erdi formako marrazkiak dituena, urdin tonu bizikoak.

**Biologia**: imagoak aurkitzen ditugu martxo-abuztu bitartean; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak basa errosazeo ugariz elikatzen dira, basak zein landuak izan, hala nola aranondoak edo almendrondoak. Elorri beltzarekiko (*Prunus spinosa*) eta oilaranarekiko (*P. mahaleb*) zaletasun handia erakusten dute.

**Habitata**: askotariko inguruneetan aurkitzen ahal dugu, kostaldeko guneetatik mendi ertain eta goi mendiko eremuetaraino. Gune irekietarako edo bideetarako joera du. Guztiz ohikoa da mendi eta mendixketako gailurrean aurkitzea, hill-topping jokabideagatik.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldean, Iberiar Penintsulan eta Frantziako hego-ekialdean besterik ez dago. Eurasiako gainerako aldeetan I. podalirius aurki dezakegu, duela gutxi espezie desberdin gisa bereizi dutena.

**Kontserbazioa**: haren kontserbazio egoera egokia da, nahiz laborantza ekologikoak eta muga eta bideetako landaresiak zaintzea mesedegarria izango litzaiokeen.

## Nola ezagutu?

Gaingiroki *Papilio machaonen* antzeko diseinua du, baina aise bereiz daitezke.

# *Papilio machaon*

Linnaeus, 1758

Makaon
*Macaón*

**Deskribapena**: tamaina handiko tximeleta. Hegalen tonu horixka nabarmentzen da, trazu beltzekin. Atzeko hegaletan zerrenda urdinxka bat eta uzki aldean bi ozelo gorri ageri ditu.

**Biologia**: bi imago belaunaldi urtean, martxo/apiriletik irailera bitartean. Krisalidak hibernatzen du, nahiz eremu beroetan beldarrak abendua arte aurki daitezkeen.

**Landare elikagarriak**: errutazeoak eta unbeliferoak. Batez ere erruda (*Ruta* sp.) eta mihilua (*Foeniculum vulgare*), baita beste landare landatu batzuk ere, hala nola azenarioaren hostoak.

**Habitata**: espezie jeneralista da, era guztietako inguruneetan ager daitekeena, itsas mailatik Aitxuriko gailurreraino.

**Banaketa eremua**: euro-siberiar elementua da. Afrikako iparraldean, Europan eta Asian bizi da eta Japoniaraino iristen da. Euskadiko edozein lekutan aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: ez dago arriskuan. Areketako sastrakak kentzerakoan, behar dituen landareak hor hazten direnez, metodo egokiak erabiltzea mesedegarria izango litzaioke, produktu fitosanitarioak erabili gabe.

## Nola ezagutu?

*Iphiclides feisthameliiren antzekoa da, nahiz zailtasunik gabe bereizten diren.*

# *Parnassius apollo*

(Linnaeus, 1758)

Apolo
*Apolo*

**Deskribapena**: tamaina handiko tximeleta, nagusiki kolore zurikoa, emeetan ilunagoa. Lau ozelo gorri ditu atzeko hegaletan, eta makula beltzak aurrekoetan. Aurreko hegaletako ertz aldean gune hialinoa ageri da, ezkata oso gutxikoa. Ernaldutako emeek *sphragis* bat agertzen dute abdomenaren amaieran.

**Biologia**: helduak ekain-abuztu bitartean agertzen dira.

**Landare elikagarriak**: gure eskualdean *Sedum* espezie batzuez elikatzen da.

**Habitata**: euskadin harkaitz azaleratzeak dituzten kare eremu irekietan agertzen da, baso atlantikoetatik hurbil. 800-1500 m bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako hegoaldetik Asiaraino hedaturik dago eta populazioak ditu mendikate nagusietan. Hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da. Bizkaian ale batzuk ageri dira Gorobel mendiko iparraldean (Urduña), nahiz eta populazio gehiena horren goialdean kokaturik dagoen, Burgosko aldean. Aizkorri-Aratz mendilerroan, hala Gipuzkoako isurialdean nola Arabakoan aurkitzen dugu. Hain zuzen ere, Arabak dauka tximeleta honen populazio kopuru handiena. Hegoaldekoena Kantabriako mendilerroan zehar hedaturik dago. *Aizpuruae* eta *odriozolae* subespeziei atxiki izan zaizkio.

**Kontserbazioa**: arabako zenbait kokagune klasikotan desagertu bide da azken hamarkadetan, hala nola Izki, Gorbeia edo Valderejoko natura parkeetan. Oraingo klima aldaketaren ondorioz seguruenik, baita XX. mendeko gehiegizko bilketagatik ere gune batzuetan.

## Nola ezagutu?

Diseinu berezia dela eta, ezin daiteke nahasi Penintsulako beste ezein espezierekin.

# *Zerynthia rumina*

(Linnaeus, 1758)

Buhamea

*Arlequín*

**Deskribapena**: tamaina txikikoa, familia osatzen duten gainerako tximeleten aldean. Hegalen tonu orokorra horixka, nahiz makula eta marrazki gorriak bereziki nabarmentzen diren. Hegaletako ertz aldean diseinu ondulatu bereizgarria erakusten du.

**Biologia**: belaunadi bakarra, udaberrian agertzen dena, apiril-ekain bitartean.

**Landare elikagarriak**: Arabako Errioxan *Aristolochia pistolochia*ren gainean finkatu ohi da, Euskadiko gainerako eremuan *A. paucinervis*en gainean.

**Habitata**: mediterranear eragin handiko lekuetan, haren landare elikagarrien hazleku direnetan, horiekin guztiz loturik baitaude. Euskadin 600 metrotik behera aurkitu ohi da.

**Banaketa eremua**: mediterraneo aldeko elementua da, Iberiar Penintsula, Frantziako hego-ekialde eta Italiako ipar-mendebaldera mugaturik dago. Afrikako iparraldean Z. africana aurkitzen da. Ez dago Kantauriko erlaitzean. Euskadin ezagutzen diren populazio bakarrak Araban daude.

**Kontserbazioa**: lurraldean sakabanaturik badirudi ere, ez da ohiko espezie bat. Haren koloniak txikiak dira eta guztiz zatikatu eta sakabanaturik daude. Garrantzitsua da litezkeen populazio guztiak hautematea ustekabez suntsitzea ekiditearren.

## Nola ezagutu?

Hegalen diseinuak nahasezina egiten du. Gure lurraldean ez dago antzeko espezierik.

# *Hamearis lucina*

(Linnaeus, 1758)

Ostoiska-tximeleta

*Lucina*

**Deskribapena**: Riodinidae familiaren ordezkari bakarra Europan. Helduak txikiak dira, kolorazio laranja gailentzen da eta diseinu ilunak ageri ditu. Azpialdean bi makula zurixka sail ageri dira.

**Biologia**: urteko belaunaldi bakarra. Helduak apiril-ekain bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: *Primula acaulis*, *P. elatior* eta *P. veris* bezalako primulazeoez elikatzen da.

**Habitata**: landare elikagarriak hazleku diren bide bazterrak, baso soilguneak eta artzaintzako belardi naturalak. Beti garaiera erdiko eremuetan, 1000 metrotik behera.

**Banaketa eremua**: Euskadin Arabako lurraldera mugaturik aurkitzen da eta Bizkaian Urduñan soilik, nahiz Gipuzkoan ager litekeen, harentzako kokaleku egokiak baitaude.

**Kontserbazioa**: ez da ohiko espeziea. Eremu askotan bakantzen ari da, basoak bertan behera uzteak soilguneak hondatzea dakarrelako.

## Nola ezagutu?

Diseinu bereizgarria du. Tamaina txikiak antzeko diseinua duten ninfalidoetatik bereizten du.
Arrek bi hanka pare besterik ez dute erabiltzen, eta horrek lizenidoetatik desberdintzen ditu.

♀
hegal zorrotzak arretan
♂
arrak soilik lau hanketan bermatzen dira

# *Anthocharis cardamines*

(Linnaeus, 1758)

Aurora zuria
*Aurora blanca*

**Deskribapena:** dimorfismo sexual nabarmena du. Bi sexuko aleek gainaldea zuria dute, eta muturra grisaxka. Arrek, gainera, ia hegalaren erdia hartzen duen laranja koloreko orbana dute. Azpialdea kolore berdekoa da eta goroldio itxura du.

**Biologia:** urteko belaunaldi bakarrekoa. Helduek martxo-ekain bitartean egiten dute hegan. Krisalidak hibernatzen du.

**Landare elikagarriak:** beldarrak brasikazeoen inflorestzentziez elikatzen dira. Euskadin ikusi dugunez, *Turritis glabra, Arabis turrita* eta *Cardamine pratensis* espezieak erabiltzen dituzte, nahiz eta, zalantzarik gabe, beste batzuk ere balia ditzaketen.

**Habitata:** belardi hezeak eta baso ingurune irekiak, garaiera tarte zabalean.

**Banaketa eremua:** Iberiar Penintsulako hegoaldea, Europa osoa eta Asia epel gehiena, Txinaraino.

**Kontserbazioa:** ohiko espeziea da Euskadin eta ez dago inolako arriskupean.

## Nola ezagutu?

Arrak nahastezinak dira. Emeek *Euchloe* generoaren antzeko itxura dute, nahiz ongi bereizten diren atzeko hegalen azpialdeko marrazkiaren itxura irregularragatik.

♂
orban zuririk gabe hegal muturrean, *Euchloe* edo *Pontian* ez bezala
♀
"goroldio" itxurako azpialdea

# *Anthocharis euphenoides*

Staudinger, 1869

Aurora horia

*Aurora amarilla*

**Deskribapena**: dimorfismo sexuala oso nabarmena azpialdean. Arrak horiak dira eta laranja koloreko orban zabala dute muturrean. Emeak zuriak dira eta makula laranja-kolorea dute, nahiz zurbilagoa eta txikiagoa den. Azpialdea horixka da.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek martxo-ekain bitartean egiten dute hegan. Krisalida fasean hibernatzen du.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Biscutella valentina*ren loreez elikatzen dira.

**Habitata**: ohikoagoa da eremu lehor-irekietan, sastrakadunak baina zuhaitz askorik gabeak. 400-1000 metroko garaiera bitartean ikus daitezke.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Frantziako hegoalde eta Italiara mugaturik dago. Euskadin Araban agertzen da, Bizkaian kokaleku bat ezagutarazi da eta Gipuzkoan, oraingoz, ez da alerik aurkitu.

**Kontserbazioa**: haren presentzia berretsi beharra dago Bizkaian. Erregistro bakarra 1981ean argitaratu zen eta ez da eguneratu. Gaur egun haren iraunkortasuna frogatuz gero, babestu beharreko populazioa izango litzateke.

## Nola ezagutu?

Zailtasunik gabe bereizten da beste espezie batzuetatik. Geldirik dagoela, *Zegris euphemeren* irudikoa da azpialdearen antzekotasuna dela eta.

# *Aporia crataegi*

(Linnaeus, 1758)

Zainbeltza
*Blanca del majuelo*

**Deskribapena**: hegalen diseinua guztiz soila da. Hegalak zuriak dira hala gainaldean nola azpialdean, nerbio egitura nabarmen beltzak ildokatuak. Emeek aurreko hegalen parte gehiena zeharrargia dute, ezkatarik ez dutelako. Arrek ere ezaugarri hori ageri dute aurreko hegalen ertzeko gune txiki batzuetan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek maiatz-uztail bitartean egiten dute hegan. Beldarrek hibernatzen dute beren landare elikagarrian.

**Landare elikagarriak**: larbak elorri beltzez (*Prunus spinosa*) eta elorri zuriz (*Crataegus monogyna*) elikatzen dira.

**Habitata**: askotariko guneetan aurki daiteke, haren landare elikagarriak egonez gero. Landare horiek lurzoruko hezetasun mailak mugaturik egoten dira.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europa osoan zehar, Asia epeleraino, Korea eta Japoniaraino. Nahiko banaturik ageri da Iberiar Penintsulan eta hiru euskal lurraldeetan aurki daiteke. Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere mendi eremuekin loturik dago.

**Kontserbazioa**: ohiko tximeleta da, Araban bereziki.

## Nola ezagutu?

Geldirik dagoela, nahastezina da. Hegaldian *Parnassius apolloren* antza izan dezake.

♀
♂
arrautzak jartzea
♀
♂

# *Colias alfacariensis*

Ribbe, 1905

Kolia larua
*Colias pálida*

**Deskribapena**: gainaldea limoi-hori kolorekoa da arretan eta zurixka emeetan. Aurreko hegaletan puntu beltz bat ageri da eta muturra ere kolore horretakoa da. Atzekoetan laranja koloreko bi puntu ditu.

**Biologia**: martxo-urri bitartean helduak hegan aurki ditzakegu, ondoz ondoko zenbait belaunalditan. Beldar gazte gisa hibernatzen du. Sakabanatze ahalmen handiko espeziea da.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Hippocrepis comosa* lekadunaz elikatzen da.

**Habitata**: zuhaixka-landarediz hornituriko kareharrizko eremu lehorretarako joera agertzen du. Kostaldetik garaiera handiko guneetaraino ikus daiteke hegan.

**Banaketa eremua**: Penintsula osoan, Europako erdialdean eta hegoaldean hedaturik dago, eta Asia Txikiraino iristen da. Euskadin hiru lurraldeetan agertzen da, nahiz Araban ohikoagoa den.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da, arrisku berezirik gabea, gainerako tximeletek jasaten dutena izan ezik.

## Nola ezagutu?

*Colias croceusekin* nahas daiteke bakarrik. Arrak ongi bereizten dira kolorazioa dela eta. Emeak helize itxura duten *C. croceusenekin* nahas daitezke.

♂
♀
zerrenda beltza beheko aldean estutzen da
beltzune gutxi atzeko hegalean
♀
♂

# *Colias croceus*

(Geoffroy, 1785)

Kolia

*Colias común*

**Deskribapena:** gainaldea hori-laranja kolorekoa, puntu beltz bat aurreko hegaletan eta laranja koloreko beste bat atzekoetan. Hegalen ertz osoak zerrenda beltz bat du; emeetan makula horixkak ageri dira zerrendaren barrenean.

**Biologia:** helduek batez ere martxo-azaro bitartean egiten dute hegan, nahiz ia urte osoan aurki daitezkeen. Espezie oso migratzailea da.

**Landare elikagarriak:** beldarrak lekadun ugariz elikatzen dira, hala nola *Medicago* , Lotus edo *Trifolium*.

**Habitata:** Ia edozein eremu eta garaieratan aurki dezakegu, nahiz ugariagoa den ingurune antropizatuetan eta laborantzakoetan.

**Banaketa eremua:** hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da, Penintsula osoan bezala. Europako hegoalde eta erdialde osoan zehar hedaturik dago, eta Asia Txikiraino eta Asiako erdialderaino iristen da.

**Kontserbazioa:** oso ohikoa da, baina pestizidarik gabeko laborantza mesedegarria izango litzaioke, laborantza sailen ertzetan hazten diren landare askoz baliatzen delako.

## Nola ezagutu?

Bai arrak eta bai emeak ongi bereizi ohi dira. Noizean behin emeek *helize* forma agertzen dute, *C. alfacariensisen* eme normalaren oso antzekoa dena.

♂
♀
*helize* itxurako emea
zerrenda beltz lodia muturrean
beltzune asko atzeko hegalaren ertzean

# *Euchloe crameri*

Butler, 1869

Zuri-berdexka nakaratua

*Blanquiverdosa común*

**Deskribapena**: gainaldea zuria. Aurreko hegaletako marrazkiak nabarmentzen dira, muturra grisaxka eta erdian makula luzanga du. Azpialdea berdekara da eta makula zuri irregularrak ditu arinki nakar-koloreak. Bigarren belaunaldiko aleetan marrazki zuri horiek zabalagoak dira eta tonu horiagoa dute.

**Biologia**:imagoek martxo-apiril bitartean eta gero maiatz-uztail bitartean egiten dute hegan, elkarren ondoko bi belaunalditan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Diplotaxis, Eruca, Biscutella, Brassica, Sisymbrium* spp. eta beste brasikazeo batzuen infloreszentziez elikatzen dira. Arrautzak aurkitzea oso erraza da udaberri osoan, bereziki horietako lehenaren lore-begietan.

**Habitata**: ohikoagoa da ingurune lehorretan eta laborantza guneetan, non beldarren landare elikagarri asko hazten diren.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Iberiar Penintsulan zehar, Frantziako hegoalderaino eta Italiaraino hedaturik dago. Hiru euskal lurraldeei buruzko datuak daude. Bizkaian, Leioa herriko datu bibliografiko bakarra bildu da.

**Kontserbazioa**: oso ohiko tximeleta, arrisku berezirik gabea. Komenigarria da Bizkaiko presentzia berrestea, lurralde horretan espezie bereziki eskasa dela baitirudi.

## Nola ezagutu?

*Euchloe tagis*ekin nahas liteke. *E. crameri* handiagoa da eta azpialdeko makulak handiagoak dira, nakar kolorekoak izateaz gainera. *Pontia daplidice*k antzeko tamaina du. Hala eta guztiz, marrazki askoz hedatuagoa du gainaldean eta ez du nakar-kolore makularik.

orban zuriak
hegal muturrean
ertz angeluduna
atzeko hegalean
hegal muturreko
markak ongi
zehaztuak
nakar itxurako
makulak

# *Euchloe tagis*

(Hübner, 1804)

## Zuri-berdexka txikia

*Blanquiverdosa menor*

**Deskribapena**: gainaldea zuria, marrazki iluna aurreko hegaletako muturrean, baita makula luzanga bat ere erdialdean. Azpialdean berdekara koloreko atzeko hegalak nabarmentzen dira.

**Biologia**: Helduek apiril-ekain bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: Euskadin *Iberis carnosa* brasikazeoaz elikatzen da.

**Habitata**: berezkoa da mediterranear landarediko eremuetan, 500-1100 metroko garaieran, non haren landare elikagarria hazten den.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula, Frantziako hegoaldea eta Italiako ipar-mendebaldea. Euskadiri dagokionez, Araban bakarrik aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: haren landare elikagarria oso gune zehatzetan hazten da; hori dela eta, leku horiek identifikatu eta landaredia honda dezaketen edozein erasotatik babestu behar dira. Azpiegiturak egitea, baso landaketak edo gehiegizko abeltzaintza, bereziki ahuntz aziendarena, kaltegarriak izango lirateke espeziearentzat.

### Nola ezagutu?

*E. crameri* baino txikiagoa da eta atzeko hegalen berdea margulagoa da. Era berean, azpialdeko makula zuriak txikiagoak dira eta dira, baina ez nakar kolorekoak.

♀
♂
orban zuriak hegal
♂
atzeko hegala *E. cramerirena* baino biribilagoa
hegal muturreko orbanak gutxi zehaztuak
orban zuri mateak

# *Gonepteryx cleopatra*

(Linnaeus, 1767)

Kleopatra
*Cleopatra*

**Deskribapena**: gainaldea hori kolore bizikoa; laranja koloreko hedapen zabala arren aurreko hegaletan. Emeen kolorea margulagoa da, baina, era berean, halako laranja koloreko tonua agertzen dute. Azpialdea horixka, nahiz laranja koloreko tonuak ere sumatzen diren bi sexuetan.

**Biologia**: *Gonepteryx rhamni*renean bezala, imagoak uztail aldean agertzen dira eta hegan jarraitzen dute ondoko urteko maiatz-ekain arte. Neguko egun beroetan ikus daiteke, baina batez ere udaberrian.

**Landare elikagarriak**: *Rhamnus* espezie batzuk, hala nola *R. alaternus* edo *R. lycioides* Arabako Errioxan.

**Habitata**: mediterranear landarediko eremuetarako joera du, *G. rhamni*k baino askoz gehiago. Kostaldetik 1000 metro inguruko garaieraraino aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula osoan eta hiru euskal lurraldeetan ageri da. Afrikako ipar-mendebaldetik, Europako hegoaldean zehar, Ekialde Hurbileraino hedatzen da.

**Kontserbazioa**: gaur egun ez du arrisku berezirik.

## Nola ezagutu?

Arrek itxura guztiz berezia du, hegaldian ere nabarmendu daitekeena. Emeak *G. rhamni*renen oso antzekoak dira. Hala ere, maiz aski halako laranja koloreko tonua agertzen dute gainaldean eta laranja koloreko zerrenda lauso bat aurreko hegalen azpialdean. Gainera, aurreko hegalen muturra ez da hain zorrotza.

♂
♂
♀
zerrenda
laranja-kolore
ahula
♀
hegal muturra
G. rhamnirena
baino gutxiago
markatua

# *Gonepteryx rhamni*

(Linnaeus, 1758)

Limoia
*Limonera*

**Deskribapena**: geldirik dagoela, hosto hilaren itxura du. Arren gainaldea hori bizia da; emeak, ordea, hilagoak dira. Bi-biek laranja koloreko orbana agertzen dute hegaletako bakoitzean.

**Biologia**: Belaunaldi bakarra, baina oso bizitza luzekoa. Helduak uztail aldean agertzen dira; hegaldatzen jarraitzen dute udazken osoan eta hibernatzen dute. Neguko egun beroetan ikusten ahal dira eta apiril-ekain bitartean berriro jarduerari ekingo diote bete-betean.

**Landare elikagarriak**: *Rhamnus alaternus* eta *R. frangula,* batez ere.

**Habitata**: gune freskoetarako joera du, ibaien ibilbideen ondoan eta basoetatik hurbil. Haranetan eta mendi ertaineko guneetan berezkoagoa da, baina leku garaietan ere ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europa eta Asia epelean zehar, Japoniarainoko guztian. Iberiar Penintsula osoan eta hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: haren iraupenari begira ez dago neurri berezirik hartu beharrik. EAEn ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Arrak ongi bereizten dira G. cleopatratik, azkeneko horrek ez duelako laranja koloreko orbanik. Bi espezie horietako emeak oso antzekoak dira. G. rhamniren emeek ez dute laranja koloreko zerrenda lausorik aurreko hegalen azpialdean. Gainera, aurreko hegalen muturra zorrotzagoa da.

♂
♂
G.rhamni
G.cleopatra
laranja koloreko
zerrendarik gabe
♀
hegal muturra
G. cleopatrarena
baino
markatuagoa

# *Leptidea sinapis*

(Linnaeus, 1758)

Lerdena

*Esbelta común*

**Deskribapena**: tximeleta fina, eta hori are hegaldian ere nabari dezakegu. Diseinua aldakorra du hala aleen artean nola belaunadien artean.Kolorazio nagusia zuria, muturrean makula beltz bat du.

**Biologia**: tximeleta honen aleak otsail/martxotik irailera arte ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: *Dorycnium pentaphyllum* edo *Lotus corniculatus* bezalako lekadunetan arrautzak jartzen ikusi ditugu.

**Habitata**: askotariko inguruneetan ikus daitezke, kostaldetik 1000 metro inguruko garaieraraino.

**Banaketa eremua**: Europa osoan banaturiko espeziea da eta Asiako erdialderaino eta Siberiaraino iristen da. Penintsula osoan ageri da eta Euskadin nonahi aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da eta haren populazioak ez daude inolako arriskupean.

## Nola ezagutu?

*Leptidea* generoa ongi bereizten da gainerako generoetatik, bere tamaina txikiagatik eta hegalen forma luzangagatik. Soilik *Leptidea realirekin* nahas daiteke, eta harengandik bereizteko laborategiko lana behar da. Gaur arte, Euskadin azterturiko ale guztiak *L. sinapis* generokoak dira.

# *Pieris brassicae*

(Linnaeus, 1758)

Aza-tximeleta handia

*Blanca de la col*

**Deskribapena:** arren gainaldea zuria, muturra beltza, beste inolako marrazkirik gabe. Emeetan makula bat eta bi puntu beltz ageri dira aurreko hegalen oinaldean. Azpialdean, bi-biek bina puntu ageri dituzte aurreko hegaletan eta tonu horixka atzekoetan.

**Biologia:** belaunaldi batzuk izaten ditu urtean eta pupa edo beldar egoeran hibernatzen du. Helduak martxo/apiriletik urrira arte ikus daitezke.

**Landare elikagarriak:** Beldarrak brasikazeoez elikatzen dira. Hiri eta landa inguruneetan aza du elikagai nagusia, baina arbi hostoez ere baliatzen da. Basa ingurunean beste batzuk ere erabiltzen ditu, hala nola *Alliaria petiolata, Diplotaxis erucoides* edo *Cardaria draba*.

**Habitata:** bai hiri inguruneetan, bai baso ongi kontserbatuetan, ikus dezakegu. Bereziki ugaria da gune antropizatuetan.

**Banaketa eremua:** Afrikako iparraldetik, Europa osoan zehar hedaturik dago eta Ekialde Urruneraino iristen da. Euskal Autonomi Erkidego osoa hartzen du.

**Kontserbazioa:** ohiko espeziea da, inolako babes neurriren beharrik ez duena.

## Nola ezagutu?

Bere generoko tximeletarik handiena da; hortaz, arazorik gabe bereiz daiteke are hegaldi betean ere.

punturik gabeko gainaldea
♂
♀
hegal muturreko zerrenda beltza lehen puntua baino beherago jaisten da
♀

# *Pieris mannii*

(Mayer, 1851)

Kare aza-tximeleta

*Blanca de Mann*

**Deskribapena**: tamaina ertaineko espeziea da. Gainaldea zuria eta muturra beltza, aurreko hegaletako makulak bezala, emeetan askoz nabarmenagoak. Azpialdea horixka da, ezkata ilunak barreiaturik ageri ditu.

**Biologia**: apiril amaieratik abuztu/irailera bitartean egiten du hegan.

**Landare elikagarriak**: gure aldean beldarrak *Iberis carnosa*z elikatzen dira.

**Habitata**: kareharrizko substratuko eremu lehorrak, 300-1200 metro bitartean, artea eta ezpela landaredi nagusia izaten diren inguruneetan.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldetik, Europako hegoaldean zehar, Asia Txikiraino eta Siriaraino. Euskadiri dagokionez, Araban eta Gipuzkoan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: Euskadin tximeleta honen presentzia berriki dokumentatu da. Populazioen kokaleku diren habitatak ongi kontserbaturik daudela ematen du, gune menditsuak eta harritsuak baitira.

## Nola ezagutu?

*Pieris rapae* espeziearen oso antzekoa da, batez ere lehenengo belaunaldiko aleak. Aurreko hegaletako puntuen forma karratua du bereizgarri, eta *P. rapaen* ez bezala, muturra ez da bitan banatzen.

V8 nerbioa ez da adarkatzen
hegal muturrean
♂
orban beltza
puntuaren mailaraino
iristen da
puntu angeluduna
ez biribildua
♀
♂

# *Pieris napi*

(Linnaeus, 1758)

Aza-tximeleta marrasendoa

*Blanca verdinervada*

**Deskribapena:** generoko beste espezie batzuen oso antzekoa. Gainaldea zuria, muturra eta lunulak kolore ilunekoak. Azpialdea horixka, bereziki atzeko hegaletan, non nerbiazioaren tonu berdea nabarmentzen den.

**Biologia:** martxo-urri bitartean egiten du hegan; belaunaldi batzuk urtean.

**Landare elikagarriak:** beldarrak hainbat brasikazeoz baliatzen da, hala nola *Sisymbrium, Alliaria, Cardamine, Arabis, Brassica, Cardaria* edo *Coronopus* spp.

**Habitata:** gune fresko eta hezeetarako joera du, nahiz habitat askotan aurki daitekeen, hala nola laborantza alorrak.

**Banaketa eremua:** oso hedatua, Afrikako ipar-mendebaldetik, Europa osoan zehar eta Japoniaraino iristen da. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa:** ohiko espeziea da, giza jarduerak mesede egiten diona. Ez du kontserbazio neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

Erraza da generoko gainerako tximeletetatik bereiztea, atzeko hegalen azpialdean ageri duen nerbiazio berdekarari esker. Diseinu hori ez da hain nabarmena udako aleetan. Kasu guztietan komenigarria da aleak geldirik daudela begiztatzea, hegan doala *P. rapae*rekin nahas daiteke eta.


♀
bi puntu
puntu gris bat
edo batere ez
♂
♀
ezkata berdexkadun
nerbioak

# *Pieris rapae*

(Linnaeus, 1758)

Aza-tximeleta
*Blanquita de la col*

**Deskribapena**: gainaldea zuria, puntu beltz bat arren aurreko hegaletan eta bi puntu emeen kasuan. Azpialdean, bi-biek bina puntu ageri dituzten aurreko hegaletan. Atzekoak horixkak dira.

**Biologia**: imagoak urtarril-abendu bitartean ikus daitezke, ondoz ondoko belaunaldi batzuetan.

**Landare elikagarriak**: seguruenik, beldarrek gehien erabilitako landarea baratzetako aza da. Basa egoeran bertako brasikazeo ugariz elikatzen dira, hala nola *Biscutella, Diplotaxis, Eruca, Sinapis* edo *Sisymbrium* generoak.

**Habitata**: ingurune mota guztietan ikus daiteke, nahiz laborantza guneetan bereziki ugaria den.

**Banaketa eremua**: oso hedadura handia hartzen du Afrikako iparraldetik eta Makaronesiatik, Europa osoan zehar, Asiaraino eta are Ipar Amerikaraino ere, non sartua izan den. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: ondo moldaturiko tximeleta hau oso ugaria da eta ez du babes neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

*P. napi* espezietik ongi bereizten da, azpialdean nerbiazio berdekararik ez duenez. Aurreko hegaletako puntuak biribilak dira beti, eta muturreraino iristen den nerbioa bistaratzen da muturrean, *P. mannii* tximeletan gertatzen ez den bezala.

V8 nerbioa adarkatua
hegal muturrean
emea, bi puntu
♀
♂
hegal muturreko orban beltza
ez da iristen puntuaren mailara
arra, puntu biribil
bakarra

# *Pontia daplidice*

(Linnaeus, 1758)

Zuri-berdexka
*Blanquiverdosa*

**Deskribapena:** gainaldea zuria, makula beltzak ageri dituela, bai atzeko hegaletan eta bai aurrekoetan. Azpialdean diseinu berdekara da nagusi, makula zuriek etenda, baita beltzek ere aurreko hegaletan.

**Biologia:** helduek martxo-urri bitartean egiten dute hegan; belaunaldi batzuk urtean.

**Landare elikagarriak:** beldarrak kruzifero ugariz elikatzen dira, batez ere *Sisymbrium*, *Diplotaxis* eta *Eruca*.

**Habitata:** eremu lehorretarako joera du, baina ongi moldatzen da era askotako inguruneetara. Batez ere, laborantza alorretan garatzen da hobekien. Garaiera gradiente osoan aurki daiteke.

**Banaketa eremua:** Afrikako iparraldea eta Europako hego-mendebaldea. Iberiar Penintsula osoan aurki dezakegu, baita hiru euskal lurraldeetan ere.

**Kontserbazioa:** inolako arazorik ez duenez, ez du babes neurririk behar.

## Nola ezagutu?

Beste pierido batzuetan ez bezala, aurreko hegalen gainaldeak marrazki beltz oso hedatua du. Azpialdeak diseinu bereizgarria ageri du, bereziki atzeko hegalen ertzean. Beste espezie batzuen, hala nola Euchloe generokoen, antzekoa gerta daiteke.

arretan
ez dago
orbanik
♀
lerro zuria gelako
orban beltzean
orban zuri
handia
marrazki uniforme
koskaduna

# *Zegris eupheme*

(Esper, 1804)

Zegria
*Zegris*

**Deskribapena:** gainaldea zuria; aurreko hegalen muturretan laranja eta beltz koloreko marrazki bat du. Azpialdea nagusiki horia, marrazki zurixkekin.

**Biologia:** udaberrian egiten du hegan, apiril-maiatz bitartean. Helduak lore horiko brasikazeoen gainean egoten dira, eta era horretara benetako kamuflajea lortzen dute.

**Landare elikagarriak:** *Hirschfeldia incana, Sisymbrium austriacum* eta *Rapistrum rugosum*.

**Habitata:** mediterranear inguruneak, normalean laborantza alorretatik hurbil daudenak eta landare elikagarrien hazleku direnak. Euskadi 400 metroko garaiera inguruan ikusi da.

**Banaketa eremua:** Marokon eta Iberiar Penintsulan *meridionalis* subespeziea aurki daiteke, askorentzat espezie mailakoa dena. Beste populazioa Itsaso Beltzean eta Asia Txikian kokaturik dago. Euskadin soil-soilik Oionen aipatua ageri da.

**Kontserbazioa:** oso espezie urria Euskadin, azken hiru hamarkadetan ia erregistrorik ez duena. Nolanahi ere, Arabako Errioxako gune gehiagotan azal liteke.

## Nola ezagutu?

Hegan doala, beste pierido batzuekin nahas daiteke. Haren azpialdea *A. euphenoides*enaren antzekoa da, baina itxura oso bereizgarria du.

# *Aglais io*

(Linnaeus, 1758)

Io vanesa
*Pavo real*

**Deskribapena**: ez du dimorfismo sexual handirik ageri. Azpialdea oso iluna, kamuflaje ona ematen diona, bereziki negualdian. Gainaldea, ordea, guztiz ikusgarria da, batez ere gorria; ozelo bana du lau hegaletan, non tonu urdinak nagusi diren.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean. Helduek hibernatzen dute eta neguko egun eguzkitsuetan ikus daitezke. Udaberrian agertzen dira berriro eta arrak emea estaltzen du. Ondoko belaunaldiko helduak maiatz-ekain bitartean azaltzen dira.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak taldean bizi dira *Urtica dioica*ren gainean.

**Habitata**: ingurune mota guztietan aurki daiteke, barreiatze ahalmen handia dute eta, laborantza lurretatik baso ongi kontserbatuetaraino. Itsas mailatik eskualdeko gailurrik garaienetaraino.

**Banaketa eremua**: Europa osoa eta Asia epela, Japoniaraino. Euskadiko edozein lekutan aurki daiteke

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da Euskadin. Ur ibilbideen inguruko belar landarediaren kontserbazioak mesede egiten dio, non asunak ugari hazten diren.

## Nola ezagutu?

Espezie berezienetako bat izanik, tximeleta hau sailkatzea erraza da.

# *Aglais urticae*

(Linnaeus, 1758)

Asunetako vanesa

*Ortiguera*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolore bizikoa; aurreko hegaletan makula beltzak ditu eta hegal bien ertzean makula urdinen lerro bat ageri du. Azpialdea iluna, batez ere neguko hiletan.

**Biologia**: belaunaldi batzuk urtean. Helduaroan hibernatzen dute eta horrek ia urte osoan ikusteko aukera ematen du, are neguko egun beroetan ere.

**Landare elikagarriak**: beldarrak taldetan elikatzen dira *Urtica dioica* eta *U. urens* espezieez.

**Habitata**: batez ere eremu menditsuetan bizi da, asunak azaltzeko mesedegarriak diren abeltzaintza guneetan. Nolanahi ere, garaiera gradiente osoan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Europa osoa hartzen du, Asia Txikian zehar hedaturik dago eta Ekialde Urruneraino iristen da, Korea barne. Euskadi osoan aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: lekuka ugaria den tximeleta dugu, bereziki hil beroenetan. Ez du inolako babes neurriren beharrik.

## Nola ezagutu?

*Nymphalis polychloros* espeziearen antzekoa da, nahiz makula urdinak dituen lau hegalen gainaldeko ertzean. Era berean, gune beltz handiagoa du atzeko hegalen gainaldean. Bi espezie horiek arazorik gabe desberdin daitezke.


gune beltz zabala
♀
arrautzak jartzea

# *Apatura ilia*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Distira-lamia handia

*Tornasolada chica*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, makula zuriak eta ozelo ondo zehaztua hegal guztietan. Arrak irisatuak dira. Azpialdea marroi argia, makula zuriak eta ozelo bat hegal guztietan, handiagoa aurrekoetan.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean, maiatz-irail bitartean. Behaketa gehienak uztailean gertatzen dira.

**Landare elikagarriak**: sahatsak eta zumeak; batez ere, seguruenik, makala (*Populus nigra*).

**Habitata**: ibai ertzeko basoak, hosto erorkorrei loturiko guneak nagusiki. Euskadin, itsas mailatik 900 metroko garaieraraino, nahiz gorago ikus daitekeen. Hiri ingurunea ere hartu du, eta ondorioz ohiko espeziea bilakatu da Gasteizko zenbait parketan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldea, Europa osoan zehar, Asia epel eta Japoniaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan ikus daiteke. Bizkaian berriki aurkitu da.

**Kontserbazioa**: Euskadin, tximeleta honen kontserbazio egoera ona dela dirudi. Oso komenigarria litzateke Gasteizko hiri barnean finkaturiko populazioa modu egokian kontserbatu eta kudeatzea.

## Nola ezagutu?

*Apatura irisen* antzekoa da, baina espezie horrek ez bezala, laranja koloreko ozelo ongi zehaztua erakusten du aurreko hegalen gainaldean. Era berean, atzeko hegalen azpialdeko zerrenda zuria ez da *A. irisarena* bezain zehaztua.

ozeloa aurreko hegaletan
♂
atzeko hegaleko marrazkia *A. irisena* baino kontraste gutxiagokoa
♂

# *Apatura iris*

(Linnaeus, 1758)

Distira-lamia begiduna
*Tornasolada mayor*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, irisatua arretan, makula zuriak eta ozelo bat aurreko hegal guztietan. Azpialdea marroi iluna gehienbat; ozelo bat du hegal bakoitzean, handiagoa aurrekoetan, eta zerrenda zuri zehaztua atzekoetan.

**Biologia**: helduek ekain erdialdetik abuztu erdialdera egiten dute hegan, belaunaldi bakarrean. Ohikoa da lokatz gainean edo ugaztunen gorotzetan xurgatzen ikustea.

**Landare elikagarriak**: beldarrak Salix espezi batzuez eta makalaz (Populus nigra) elikatzen dira.

**Habitata**: baso hosto erorkorretarako joera du, 150-900 metro bitarteko garaieran normalean.

**Banaketa eremua**: Europa osoa, Asia epel eta Japoniaraino. Iberiar Penintsulako erdialdea eta iparraldea. Euskadiko hiru lurraldeetan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: kontserbazio egoera ona dela dirudi, azken urteetan behaketa ugari izan baitira.



## Nola ezagutu?

*Apatura ilia* espeziearekin bakarrik nahas daiteke. Espezie horrek ez bezala, gainaldean ozelo zehaztu bakarra erakusten du atzeko hegaletan. Gainera, azpialdeko zerrenda zuria ondo zehaztua ageri da.

♂
zerrenda zuri oso
gardena eta horzduna
ozelorik
gabe
♂

# *Araschnia levana*

(Linnaeus, 1758)

Amaraun-tximeleta

*Levana*

**Deskribapena**: dimorfismo sexuala ez da oso nabarmena. Gainaldea laranja kolorekoa lehenengo belaunaldian eta beltza udako aleetan. Azpialdeak diseinu konplexua ageri du: zuriz markaturiko zainak eta gune zuriak, horixkak eta marroiak, baita makula urdinxka bat ere uzki muturrean.

**Biologia**: lehenengo belaunaldiak martxoaren amaieratik ekainaren lehenengo astera bitartean egiten du hegan. Ondoren, ekain-irail bitartean aurkituko dugu. Guztira, hiru belaunaldi urtean gutxienez.

**Landare elikagarriak**: beldarrak taldean elikatzen dira *Urtica dioica*ren gainean.

**Habitata**: gune fresko eta hezeekin loturik ageri da, asunak hazten baitira bertan. Itsas mailatik 1000 metrora bitartean aurki dezakegu, eta are gorago ere.

**Banaketa eremua**: Euskadin, Pirinioetan eta Europa osoan zehar zabaldurik dago, eta Asia epeleraino eta Japoniaraino iristen da. Gaur egun, Kantabria da tximeletaren Europako mendebaldeko muga. Euskadiko hiru lurraldeetan ikus dezakegu. Ugariagoa da kostaldean eta urriagoa Araban.

**Kontserbazioa**: ez du inolako kontserbazio arazorik; aitzitik, zabaltzen ari den espeziea da. Iberiar Penintsulan lehen aldiz 1964an ikusi zenetik, urtez urte eremu berriak kolonizatzen ditu, hegoalderantz zein ekialderantz.

## Nola ezagutu?

Azpialdeko diseinua nahastezina du. Udaberriko aleen gainaldea *Melitaea* generokoen antzekoa da. Udakoek, aldiz, *Limenitis camilla*ren antza dute.

♂
*prorsa* forma,
2. belaunaldia
(udakoa)
laranja koloreko lerroa
♀
*levana* forma,
1. belaunaldia
(udaberrikoa)
*prorsa* formaren
azpialdea
♂

# *Argynnis adippe*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Galtzaundi tantagorria

*Nacarada adipe*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula beltzak eta bi zerrenda androkonial arretan. Azpialdea laranja kolorekoa da, eta atzeko hegalak berdexkagoak, nakar koloreko makulekin; era berean, ertzen azpiko gunean, laranja koloreko ozelo sail bat ageri nini zuriekin. Cleodoxa formak ez du nakar koloreko makularik agertzen.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioletez (*Viola* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: mendialdea hobesten du. Basoen soilguneetan eta bide bazterretan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik Europa osora zabaltzen da, Asia epeleraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: ez da espezie oso ugaria, baina haren kontserbazio egoera egokia dela dirudi. Araban ohikoagoa da.

## Nola ezagutu?

*Argynnis aglajaren* antzekoa da, biek nakar koloreko makulak baitituzte, baina espezie horrek ez du laranja koloreko ozelorik atzeko hegalen azpialdean. Bestalde, *F. cleodoxa* espeziea *Argynnis niobearen* antzekoa da, nahiz bigarren hori ez den Euskadin aurkitu.

♂
ozelo ilara
♂
androkonia

# *Argynnis aglaja*

(Linnaeus, 1758)

Aglaja galtzaundia

*Nacarada aglaja*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, ilunagoa eta irisatuagoa emeetan. Atzeko hegalen azpialdea berdexka da eta zilar koloreko makula biribilak ageri ditu.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean, ekain-abuztu bitartean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioleta (*Viola* spp.) espezie desberdinen hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: beti mendialdeetan aurkitzen dugu, 200 metro ingurutik eremu nahiko garaietaraino. Baso hosto erorkorren inguruko eremu irekiak hobesten ditu, baita bide bazterrak ere.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea eta Europa ia osoa, Siberia eta Japoniaraino. Iberiar Penintsulako ipar-erdialdea eta mendikate Betikoaren ekialdea hartzen ditu. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki daiteke, kostaldean izan ezik.

**Kontserbazioa**: ohiko tximeleta da eta ez du kudeaketa neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

Euskadin *Argynnis adippe* espeziearekin bakarrik nahas daiteke, biek azpialdean nakar koloreko orbanak baitituzte. Atzeko hegaletan laranja koloreko ozelorik ez duelako desberdintzen da.

androkonia
♂
ozelorik gabeko
zerrenda horia
♀

# *Argynnis pandora*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Pandora galtzaundia

*Nacarada pandora*

**Deskribapena**: bainaldea laranja-berdekara, ilunagoa emeetan. Azpialdea gorrixka da aurreko hegaletan eta berdekara atzekoetan, non gainera, lerro zurixka oso nabarmenak ere ageri diren.

**Biologia**: helduek maiatz-irail bitartean egiten dute hegan. Belaunaldi bakarra urtean, bizialdi oso luzea baitute.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioletez (*Viola* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: garaiera tarte zabala hartzen du, eta are eskualdeko gailur altuenetan ere ikus dezakegu. Gune lehorretarako joera du, baina ingurune mota ugaritan ikus daiteke, tximeleta honen barreiatze ahalmen handiari esker.

**Banaketa eremua**: Kanariar Uharteak, Afrikako iparraldea, Europako hegoalde gehiena, Erdialdeko Asiaraino eta Txinaraino. Euskadiko hiru lurraldeetan erregistratu da, baina ohikoagoa da eskualdearen hegoaldean.

**Kontserbazioa**: tximeleta hau ez da bereziki ugaria, baina populazioen egoera egokia dela uste dugu.

## Nola ezagutu?

Gainerako espezieetatik ondo bereizten da, tonu orokor berdekara eta aurreko hegalen azpialdeko tonu gorrixka direla eta. Azpialdeko marrazkiari dagokionez, espezierik antzekoena *A. paphia* litzateke.

aurreko hegaleko
azpialdea
gorrimin- kolorea
♀
♂
♂
androkonia

# *Argynnis paphia*

(Linnaeus, 1758)

Masustetako galtzaundia

*Nacarada pafia*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, ilunagoa emeetan, zeinek tonu grisaxka ageri dezaketen *valesina* formaren kasuan. Azpialdean, atzeko hegalen zerrenda nakar-koloreak nabarmentzen dira.

**Biologia**: helduek ekain-irail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean. Gorteiatzerakoan, arra bertikalean hegaldatzen da emearen inguruan, zirkuluak eginez.

**Landare elikagarriak**: emeek arrautzak zuhaitz enborretan jartzen badituzte ere, beldarrak bioletez (*Viola* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: bai itsas mailan, bai 1000 metro eta gehiagoko garaieran aurki daiteke. Beti baso hosto erorkorren soilgune eta bazterren inguruan. Era berean, konifero edo eukalipto sailen ondoan eta ibaiertzetan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europako alde gehiena eta Asia epela, Japoniaraino. Euskadin ohikoa da hiru lurraldeetan.

**Kontserbazioa**: oso espezie ohikoa da eta haren populazioen egoera bikaina da.

## Nola ezagutu?

Ez du nakar koloreko makula biribilik, hortaz soilik *A. pandora*rekin nahas daiteke, batez ere emea. *A. paphia* espezieak inoiz ez du aurreko hegalen azpialdea gorrixka ageri.

emea, ohiko kolorazioa
androkonia
♂
♀
♀
♂
valezina f. emea
♂

# *Boloria dia*

(Linnaeus, 1767)

Boloria morea

*Perlada violeta*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula eta kolore beltzeko puntu ugarirekin azal osoan zehar. Azpialdeak tonu gorrixkak, bioletak eta gune nakar-koloreak ageri ditu.

**Biologia**: belaunaldi batzuk urtean, apiriletik irailera ondoz ondo agertzen direnak.

**Landare elikagarriak**: beldarra bioleta espezie desberdinez (*Viola* spp.)elikatzen da.

**Habitata**: kostaldetik 1000 metro eta gehiagoko guneetaraino. Belardi eta baso soilguneekin loturik ageri da.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldea, oso ondo banatua Europako erdialdean eta Asian zehar Txinaraino. Hiru euskal lurraldeetan aipaturik dago.

**Kontserbazioa**: ondo banaturiko espeziea da eta haren populazioek kontserbazio egoera ona ageri dute.

## Nola ezagutu?

Tamaina txikiak desberdintzen du laranja-koloreko beste ninfalido espezieetatik. Bere generoaren barrenean, bi bereizgarri ditu: atzeko hegalen azpialdeko tonu morea eta gune horretako oinaldean puntu beltz ongi nabarmendurik ez izatea. Azken hori zurixka da espezie honetan.

♂
more koloreko
zerrenda
♂
gainaldeko orban
beltzak oso lodiak

# *Boloria euphrosyne*

(Linnaeus, 1758)

Teila boloria
*Perlada rojiza*

**Deskribapena**: bi sexuetako aleek antzeko itxura dute. Gainaldea laranja kolorekoa da, eta azpialdea laranja kolore margula ageri dute, nakar koloreko guneekin atzeko hegalen erdialdean eta ertzean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan, garaieraren arabera.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioleten (Viola spp.) hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: zenbait lekutan itsasotik hurbil dauden guneetan agertzen da. Normalean, mendi ertaineko aldeetan, baina 1000 metrotik gorako mailetara irits daiteke. Baso hosto erorkorretara loturik dago, non soilgune, bazter eta bideetan bizi den.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, gainerako Europa osoan zehar hedaturik dago eta Asia epeleraino iristen da. Hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: ohikoa da Araba gehienean, baina urria beste bi lurraldeetan. Hortaz, populazio batzuk babesteari begira, komenigarria da espeziearen banaketa hobeto ezagutzea.

## Nola ezagutu?

Tamaina txikiak bereizten du laranja koloreko beste ninfalidoetatik. Genero bereko tximeletatik atzeko hegaletan nakar koloreko guneak izateak bereizten du, zeinetan teila kolorea nagusi den.
Atzeko hegalen azpialdean, oinaldeko puntu beltza *B. selene* espeziearena baino txikiagoa da.

♂
♂
Puntua B. selenerena baino txikiagoa
gelaxka nakar-kolorea

# *Boloria selene*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Boloria punttuduna

*Perlada selene*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, marrazki eta makula beltz ugarirekin. Azpialdean marrazki zuriak, horixkak, marroiak eta laranja kolorekoak konbinatzen ditu.

**Biologia**: maiatzaren amaieratik abuztura arte egiten du hegan bizpahiru belaunalditan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioletez (*Viola* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: garaiera tarte zabala hartzen du, kostaldetik 1000 metrotik goragoko guneetaraino. Halako hezetasun bat duten lekuetan aurkitu ohi da, askotan baso hosto erorkorren inguruan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsularen iparraldeko erdian eta Europa gehienean ageri da, salbu eta Mediterraneotik hurbileneko aldean; Asia eta Ipar Amerikaraino iristen da. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: ongi banaturik ageri den espeziea da eta ez du babes neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

Tamaina txikiagoak bereizten du laranja koloreko beste ninfalidoetatik. Espezie honetan, atzeko hegaletako azpialdean, oinaldeko puntu beltza nabarmentzen da, *B. euphrosyne*rena baino handiagoa.
Ez du nakar koloreko gelarik eta ertzeko makula zuriak handiak eta triangeluarrak dira.

♂
puntu oso
nabarmena
♂
puntu oso
nabarmena eta maiz
zuriz inguratua
♀

# *Brenthis daphne*

(Bergsträsser, 1780)

Dafne sorgina

*Bipunteada dafne*

**Deskribapena**: gainaldea laranja-kolorea, makula eta puntu beltz ugarirekin. Azpialdean, atzeko hegalen tonu morea nabarmentzen da.

**Biologia**: belaunaldi bakarrekoa; helduek ekain-uztail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak hainbat lahar espeziez eta masusta gorriz (*Rubus* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: mendiko tximeleta da, 300 metrotik gora aurki daitekeena. Zuhaitzez eta sastrakaz hornituriko leku irekiekin loturik egon ohi da.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Europako erdialdea eta hegoaldea, Japoniaraino. Hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: espezie hau aski urria da Bizkaian eta Gipuzkoan. Hortaz, komenigarria da tximeleta honen banaketa hobeto ezagutzea eta babes neurrien beharra izan dezaketen populazioak hautematea.

## Nola ezagutu?

Bitarteko tamaina du, *Boloria* generokoak baino handiagoa baina *Argynnis*ekoak baino txikiagoa. *Brenthis* inoren antzekoa da, baina hark ez bezala, atzeko hegalen azpialdeko erdiko gelaxka bi kolorekoa du, gradientean.

♂
ilarako gainerakoak baino puntu txikiagoa
orban beltz etenak
kolore biko gela gradientean
♀
♂
B. inorena baino gutxiago zehazturiko gunea

# *Brenthis hecate*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Hekate sorgina
*Bipunteada hecate*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, puntu beltzez osaturiko bi zerrendarekin hala aurreko hegaletan nola atzekoetan. Azpialdeak laranja koloreko eta krema koloreko guneak ageri ditu, puntu beltzezko bi zerrendarekin.

**Biologia**: helduek ekain-uztail bitartean egiten dute hegan, urteko belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Dorycnium* spp. eta *Filipendula vulgaris* espezieez elikatzen dira.

**Habitata**: Karrantza Haranetik (350 m) Toloñoko mendilerroraino (1000 m) aurkitzen dugu. Mediterranear eraginpeko guneetako espeziea da eta bere landare elikagarriekin oso loturik dago.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europako hegoalde eta erdialdean zehar, Erdialdeko Asiaraino. Euskadiri dagokionez, Araba eta Bizkaiko leku bakanetan baizik ez da agertzen.

**Kontserbazioa**: Euskadin espezie hau zenbait leku zehatzetan aurkitzen da soilik. Hortaz, komenigarria da populazioak zehatz-mehatz aztertzea. Bereziki aztertzekoa da Karrantza haranekoa (Bizkaia), kontuan harturik horko datuaren antzinatasuna, populazioaren bakartasuna eta Penintsulako iparraldekoena izatea.

## Nola ezagutu?

*Argynnis* generokoak baino txikiagoa da, baina *Boloria*koak baino handiagoa.
Atzeko hegalen azpialdeak ongi bereizten du *B. ino*, *B. daphne* eta beste edozeinetatik, tonu morerik ez duelako eta puntu beltzezko bi ilara dituelako gune postdiskalean.

ilarako gainerakoen
tamaina bereko puntua
♂
♂
♀
lerro beltzak oso
nabarmenak
bi puntu-ilara
azpialdean

# *Brenthis ino*

(Rottemburg, 1775)

Ino sorgina
*Bipunteada ino*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula beltz ugarirekin, zeinek marrak eta puntu beltzezko bi ilara osatzen dituzten bi hegalen gune postdiskalean. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta morea atzekoetan, krema koloreko zenbait gelarekin.

**Biologia**: helduak ekain-uztail bitartean egiten dute hegan urteko belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: *Filipendula* spp., *Potentilla* spp. eta *Sanguisorba* spp.

**Habitata**: 300-1000 metro bitarteko garaieran aurkitu ohi da. Beti baso formazioen inguruan. Gune irekietan, soilguneetan eta bideetan ikus daiteke; izan ere, horien ondoan sasiak hazten dira maiz eta nektarra lortzen du horietatik.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako erdialdetik, Europa gehienean eta Asia epelean zehar, Japoniaraino. Euskadin ongi banatua agertzen da Arabako lurraldean eta Urduñan (Bizkaia).

**Kontserbazioa**: Interes berezia du Urduñako populazioak, Bizkaian ezagutzen den bakarra baita. Gainerantzean, tximeleta hau ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Tamaina ertaina du, *Boloria* generokoak baino handiagoa da baina *Argynnis* generokoak baino txikiagoa. *Brenthis daphneren* oso antzekoa da, baina atzeko hegalen azpialdeak bereizten du, erdiko gelaren krema-kolore uniformeagatik.

garbi zehazturiko gunea
ilarako gainerakoak baino puntu txikiagoa
kolore uniformeko gela
ertz beltz marjinala *B. daphne*rena baino jarraituagoa

# *Danaus plexippus*

(Linnaeus, 1758)

Erregina tximeleta

*Mariposa monarca*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, hiru lerro beltz eta makula zuriak. Emea ilunagoa da eta arrak androkoniak ditu atzeko hegaletan. Azpialdean antzeko ezaugarriak, atzeko hegalak horiagoak.

**Biologia**: Tximeleta hau mundu osoan ezaguna da urtero neguko babeslekuetara egiten duen migrazio ikusgarriagatik; izan ere, Kalifornia eta Mexikon milioika ale elkartzen dira. Udazkeneko migrazio horretan, ale batzuk ibilbidetik desbideratu, Atlantikoa zeharkatu eta Europako kostaldeetara iristen dira. Hala Frantzian, Erresuma Batuan, Portugalen eta Espainian aurkitzen ditugu; azkenari dagokionez, erregistroak oraingoz Galiziara mugatzen dira.

**Landare elikagarriak**: asklepidazeoak. *Araujia sericifera* basaturik aurkitzen da kostaldeko leku batzuetan, eta horrek, agian, ugalketarako bidea eman lezake.

**Habitata**: era irregularrean ospakizun zibil eta erlijiosoetan askatu ohi denez, ia edozein lekutan ager daiteke.

**Banaketa eremua**: populazio ugalkorrak Amerikako kontinente osoan ageri dira, baita Hawaiin, Australian, Zeelanda Berrian, Makaronesian eta Iberiar Penintsulako hegoaldean ere. Euskadin ikusi dira, ia seguruenik askatze artifizialekin zerikusia dutenak. Irail-urri bitartean kostaldeko gune batzuetan ikus daitezkeenak, era naturalean iristen diren ale migratzaileei dagozkieke.

**Kontserbazioa**: irail-urri inguruan egin litezkeen behaketak garrantzi handia izan dezakete. Amerikar kontinentetik datozkeen aleen helduera iradokiko lukete eta, Europako mendebaldeko beste kostalde batzuetan gertatzen den bezala.

## Nola ezagutu?

Ezin nahasizko espeziea da, are hegan doala ere, tamaina handiagatik eta hegaldi planeatzaileagatik.

♂
androkonia
♀

# *Euphydryas aurinia*

(Rottemburg, 1775)

Uhingorria

*Ondas rojas europea*

**Deskribapena**: bai gainaldea, bai azpialdea laranja kolorekoak dira, gune gutxi-asko ilunekin; aleen arteko aldakortasun handia. Atzeko hegaletan puntu beltzezko ilara bat ageri du.

**Biologia**: helduek maiatz-ekain bitartean egiten dute hegan, belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: Atxaparra. Euskadin, *Lonicera periclymenum* eta *L. etrusca.*

**Habitata**: ingurune fresko eta hezeak, belardiak, askotan ur ibilbideen ondokoak eta iratzea dutenak. Ingurune apaletatik gutxi gorabehera 1000 metroko garaieraraino aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Europa gehiena hartzen du eta Asiako alderdi epeletaraino hedaturik dago. Euskadin ohikoa da eta hiru lurraldeetan ikus daiteke.

**Kontserbazioa**: bernako Hitzarmenaren II. Eranskinean eta Habitatak Zuzentarauaren II. Eranskinean sartua dago. Nolanahi ere, ohiko espeziea da eta eskualde mailan ez du babes neurririk behar. Berriki iradoki dutenez, kontinente eskalako aldakortasunaz egindako azterketaren ondorioz, Penintsulakoa espezie desberdina da (E. beckeri), eta hala jaso da Fauna Europaearen gaur egungo bertsioan. Hala eta guztiz ere, Penintsulako egoera izugarri konplexua da eta gaur arte ukipen eremuan egindako azterlanak ez dira eztabaidaezinak gertatu. Hortaz, oraingoz, Iberiar Penintsulakoak E. auriniaren populaziotzat hartuko ditugu.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen puntu beltzezko ilarak bereizten du laranja koloreko ninfalidoen beste espezieetatik. Atzeko hegalen gainaldeko ertzean dituen makula triangeluarrak zuriak izan daitezke, baina inoiz ez aurreko hegaletan, eta horrek desberdintzen du *E. desfontainii* espezietik. Era berean, ez du makula beltzik aurreko hegalen azpialdeko gune postdiskalean.

♀
aurreko hegaletako ertzeko lunulak laranja kolorekoak beti
atzeko hegaletako ertzeko lunulak zuriak batzuetan
♂
puntu beltzak
orban beltz gutxi nabarmenduak edo orbanik gabe
puntu beltzak
♂
♀

# *Euphydryas desfontainii*

(Godart, 1819)

Uhinargia

*Ondas blancas*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa; atzeko hegaletan puntu beltzezko ilara bat eta lau hegaletako ertzean makula zuriak ditu. Azpialdean gune zurien eta laranja-koloreen arteko kontrastea nabarmentzen da, eta aurreko hegaletan makula beltzak ageri dira.

**Biologia**: urteko belaunaldi bakarra. Helduek maiatz-ekain bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Cephalaria leucanthaz* elikatzen dira.

**Habitata**: mediterranear eremuetan berezko espeziea da eta 600-700 metroko garaieran azaldu ohi da.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Iberiar Penintsula eta Frantziako zenbait kokaleku. Arabako gune batzuetan aurkitzen da. Bizkaian, Aizpúruak haren presentzia jaso zuen 1983an, baina geroago ez da ageri (Aizpúrua, 1988); hortaz, zuzenketa bat dela uste dugu. Bestalde, Aranzadi Zientzia Elkartean ez da Bizkaiko alerik batere gorde, ezta Arabako Natur Zientzien Museoan ere.

**Kontserbazioa**: populazio oso txikiak eta bakartuak ditu; hortaz, arreta berezia jarri beharra dago horien babesean.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegaletako puntu beltzezko ilarak bereizten du laranja koloreko beste ninfalidoetatik. *E. auriniak* ez bezala, aurreko hegalen gainaldeko ertzeko orban triangeluarrak beti kolore zurikoak dira, baita atzekoetakoak ere. Gainera, makula beltz bereizgarri batzuk ageri ditu aurreko hegalen azpialdeko gune postdiskalean.

♀
puntu beltzak
lunula zuriak bi hegalen ertzean
♂
puntu beltzak
orban beltz garbiak
♀

# *Issoria lathonia*

(Linnaeus, 1758)

Zilar-printzaduna
*Espejitos*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula beltz lotura gabeak azalera guztian eta oinaldea berdexka. Azpialdeak zilar koloreko makula handiak ditu atzeko hegaletan zein aurreko hegalen muturrean.

**Biologia**: hiru belaunaldi urtean gehienez. Helduek martxo-urri bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak bioletez (*Viola* spp.) elikatzen dira.

**Habitata**: espeziea jeneralista da eta barreiatze ahalmen handia du. Horregatik askotariko inguruneak koloniza ditzake: abeltzaintzarako eremuetatik goi mendietaraino. Tximeleta hau itsas mailan zein gailurretan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Kanariar Uharteak eta Afrikako iparraldetik, Europa osoan zehar, Asia epeleraino. Euskadin, edozein lekutan aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da, barreiatze ahalmen handikoa. Hori dela eta, ez du kontserbazio neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

Laranja koloreko beste ninfalidoek ez bezala, gainaldeko orban beltzek ez dute haien arteko loturarik. Azpialdea nahasezina da, zilar koloreko gune handiak ditu eta.

makula beltz
biribilduak
♂
ertz ahurra
orban
zilarkarak
♂

# *Limenitis camilla*

(Linnaeus, 1764)

Lamia lerrobikoitza

*Ninfa del bosque*

**Deskribapena**: gainaldea oso iluna, zenbait makula zurik bi hegalak zeharkatzen dituztela. Azpialdea marroi kolorekoa da, oinarri urdinxka eta zerrenda zuri zentral oso zabala.

**Biologia**: helduek uztail-abuztu bitartean egiten dute hegan, belaunaldi bakarra urtean. Beldarrek negua babesgune indibidualean iragaten dute, beren landare elikagarriaren gainean.

**Landare elikagarriak**: atxaparra (*Lonicera periclymenum*).

**Habitata**: beti baso guneetan eta normalean mendi ertaineko aldeetan. Ohikoa da zuhaitzen itzalpean hegan ikustea. Kostaldetik ia 1000 metrorainokoan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik Erdialdeko Europaren zati handian zehar, Japoniaraino. Euskadin hiru lurraldeetan ikus daiteke.

**Kontserbazioa**: bizkaian oso behaketa gutxi izan dira. Horietatik gehienak aspaldikoak dira, horregatik informazio gehiago biltzea egokia litzateke. Beharrezkoa duen habitata ongi hedaturik dago gure eskualdean; hortaz, oro har, arriskuan ez dagoela uste dugu.

## Nola ezagutu?

*L reducta* espeziearen antzekoa da, nahiz eta gainaldean ez duen iridiszentzia urdinxkarik. Azpialdeko ertz azpiko gunean puntuz osaturiko bi lerro ditu.

♂
♂
♂
puntu beltzezko
bi ilara

# *Limenitis reducta*

Staudinger, 1901

Lamia lerrobakarra

*Ninfa de los arroyos*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, iridiszentzia urdinxka nabarmena eta makula zuri zabalak bi hegaletan. Azpialdea zuria, grisaxka eta laranja kolorekoa da, puntu beltzez osaturiko lerroa duela.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean. Helduek maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: zenbait atxapar espezie (*Lonicera* spp.).

**Habitata**: 400-1000 m bitarteko garaieran ikusi ohi da. Mediterranear eragina duen mendialdeari loturik agertzen da.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik eta Europako hegoaldetik, Ekialde Hurbileraino. Euskadin, hiru lurraldeetan erregistratu da, nahiz oso urria den Bizkaian eta Gipuzkoan. Kostaldean erregistro bakarra dago.

**Kontserbazioa**: kostaldeko lurraldeetan urria den arren, Araban ondo banaturik ageri da, espeziearen garapenerako leku egoki ugari baitaude bertan. Oso interesgarria litzateke kostaldean duen presentziari buruzko informazio gehiago biltzea.

## Nola ezagutu?

*L. camilla* espeziearekin ondo bereiz daiteke bi ezaugarrirengatik: gainaldeko irisazio urdinxka eta puntu beltzez osatua dagoen hegalen azpialdeko lerro bakarra.

♂
puntu beltzezko
ilara bat
♂

# *Melitaea cinxia*

(Linnaeus, 1758)

Galtzagorri pikarta
*Doncella punteada*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, marra beltz ugari. Azpialdea ere laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta zurixka atzekoetan, laranja koloreko guneekin. Bi aldeetan puntu beltzez osaturiko lerro bat erakusten du aurreko hegalen ertzean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak ekain-uztail bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: plantaina (*Plantago* spp).

**Habitata**: kostaldetik 600 metroko garaieraraino. Eremu irekietan aurki daiteke, belardiak edo bide bazterrak adibidez. Gune ez oso hezeetarako joera dute.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europa ia osoa eta Asia epela. Araban ohiko espeziea da. Bizkaia eta Gipuzkoan leku zehatz batzuetan besterik ez da ikusten. Gipuzkoako lurraldean, argitaraturiko behaketa guztiak hiriburuaren inguruan kokaturik daude.

**Kontserbazioa**: abeltzaintza estentsiboaren beharra du, plantaina hazteko eremu irekiak behar direlako. Garrantzitsua da Donostiako populazioen gaur egungo egoera ezagutzea eta Bizkaian toki gehiago aurkitzea, populazio horien babesaren beharra duten lekuak hautemateko.

## Nola ezagutu?

*Melitaea* generoko beste edozein espeziek ez bezala, espezie honek puntu beltzez osaturiko lerro bat du ikusgai atzeko hegalen gainaldean zein azpialdean. Ezaugarri honi dagokionez, *Euphydryas* generoaren antzekoa da, nahiz arazorik gabe bereizi daitezkeen.

puntu ilara
puntu ilara
orban beltzak
oinaldean
kolore argiko
nerbioak

# *Melitaea deione*

(Geyer, 1832)

Deione galtzagorria
*Doncella deione*

**Deskribapena**: gainaldeak laranja koloreko tonua du, marra beltzak gainazal guztian. Azpialdea laranja kolorekoa da, gune zurixkekin.

**Biologia**: bi belaunaldi ditu urtean, maiatz-irail bitartean.

**Landare elikagarriak**: *Antirrhinum, Linaria, Chaenorhinum* spp., *Cymbalaria muralis, Misopates orontium, Asarina procumbens* eta *Plantago lanceolata*.

**Habitata**: Arabako aipamenak 700-1000 metro bitarteko garaierara mugatzen dira eta zelai hezeetan, ingurune mediterranearrean eta kareharrizko eremuetan agertzen dira. Bizkaian, espeziearen ekologia ezezaguna da.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Iberiar Penintsula, Frantziako hegoaldea, Suitza eta Italiako iparraldea. Euskadin, Arabako bi gunetan (Arkamo-Gibijo eta Valderejoko mendikateak) eta Bizkaiko toki bakarrean (Bilbotik gertu) besterik ez da aurkitu.

**Kontserbazioa**: tximeleta honi buruzko informazioa urria denez, litekeena da populazio gehiago egotea. Era berean, komenigarria litzateke ezagunak diren populazioak egiaztatzea eta horien kontserbazio maila ikertzea.

## Nola ezagutu?

*M. nevadensis* espezieak bezala, ertz azpiko marra beltz bakarra du aurreko hegalen azpialdean. Marra hori ez beheko aldean zabaltzen. Ohikoa da atzeko hegalen gainaldeko gune diskalean bi marra beltz agertzea.

♂
bi puntu beltz oso nabarmenak
ilarako gainerakoak baino gune askoz handiagoa
zerrenda oso bakarra
gune horizko zerrenda, erdialdea laranja kolorekoa
♂

# *Melitaea diamina*

(Lang, 1789)

Galtzagorri iluna

*Doncella oscura*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja koloreko guneak. Azpialdea laranja tonukoa da, gune zurixka zabalak dituela aurreko hegaletan.

**Biologia**: ekain-uztail bitartean egiten du hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Valeriana* generoko espezieak.

**Habitata**: espezie honen ohiko ingurunea belardi hezea da, baso formazioetatik gertu. Gure eskualdean ditugun datuen arabera, 650 metroko garaieran aurkitzen da, nahiz eta Iberiar Penintsulako populazioen batez besteko garaiera 1300 metro izan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik hasita, Europa ia osoan zehar, Japoniaraino. Euskadin, erregistro bakarra besterik ez da bildu Araban, Aiurdingo gainean, Murgiatik gertu.

**Kontserbazioa**: Euskadin ezagutu den erregistro bakar hori egiaztatu beharra dago, azken ia lau hamarkadetan ez baita datu berririk aurkitu. Gure habitataren ezaugarriak espeziearentzat ohikoak ez direnez, identifikazio akats bat izatea gerta liteke. Populazioaren presentzia berretsiz gero, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartzea ezinbestekoa litzateke.

## Nola ezagutu?

*Melitaea* generoko espezieen artean ilunena da, gainaldean bereziki.
Espezie honen ale argiagoak edo beste espezieren baten ale ilunagoak egon daitezke, horregatik beti beharrezkoa da bere genitaliaren ikertzea. Arrena oso bereizgarria da, kuskuak "Y" formarekin amaitzen baitira. Ezaugarri hori landan dagoela ere hauteman daiteke.

♂
♂
laranja koloreko gune zerrenda, erdialde horiduna
♂

# *Melitaea didyma*

(Esper, 1778)

Galtzagorri bizia
*Doncella didima*

**Deskribapena**: arren gainaldea laranja kolore bizikoa, makula beltzak azal guztian. Emeen aurreko hegalak kolore argikoak dira eta atzekoak laranja-tonu argikoak. Azpialdea nagusiki laranja kolorekoa aurreko hegaletan; zuria atzekoetan.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean; helduak maiatz-ekain eta uztail-abuztu bitartean agertzen dira.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak plantainaz, *Linariaz*, *Antirrhinum majus* eta *Odontites luteus* espezieaz elikatzen dira.

**Habitata**: Euskadin ezagutzen diren kokaleku bakarrak 600-800 metro bitarteko garaieran aurkitzen dira. Tximeleta hau berezkoa da ingurune lehorretan eta mediterranear eragin handia duten tokietan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Iberiar Penintsula osoan eta Europako hegoaldean eta erdialdean zehar, Txinaraino iristen da. Euskadin, Arabako toki guztiz zehatzetan bakarrik ikus daiteke: Valderejoko Parke Naturala eta gertuko ingurunea.

**Kontserbazioa**: espezie hau ez da batere ohikoa, eta horregatik beharrezkoa da populazio berriak bilatzea. Gaur egun gure eskualdean ditugun datuen arabera, tximeleta hau Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sar liteke.

## Nola ezagutu?

Espezie hau bereizten erraza da, arraren laranja kolore bizia eta emearen kolore margula direla eta. *M. trivia*rekin bakarrik nahas daiteke, baina espezie hori ez da Euskadin aurkitu.

♀
puntu beltz biribilduak
oinaldeko orban beltzak
♂
♂
kolore argiko nerbiazioa

# *Melitaea nevadensis*

Oberthür, 1904

Galtzagorri marralodia
*Doncella meridional*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, lerro beltz ugari. Azpialdean, aurreko hegalek laranja koloreko tonuak dituzte, atzekoek gune argiagoak. Finbriak xake itxurakoak dira.

**Biologia**: helduak ekain-uztail bitartean egiten dute hegan, belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Digitalis, Plantago* eta *Veronica* generoko landareak.

**Habitata**: kostaldetik 1000 metroko garaieraraino. Zelaietan eta baso hosto erorkorretako soilguneetan aurkitu ohi da.

**Banaketa eremua**: Europako hego-ekialdean aurki daiteke. Iberiar Penintsula, Frantzia eta Suitzako hegoaldea, Italiar Penintsula eta Sizilia. Euskadin, tximeleta honen erregistroak hiru lurraldeetan bildu dira. Duela urte gutxira arte, espezie multzo honen Paleartikoko populazio guztiak M. athalia espezietzat hartu dira. Gaur egun, bi taxoi desberdin direla onartzen da.

**Kontserbazioa**: gure eskualdean ondo barreiaturik dago, nahiz eta populazioen egoera zein den ez jakin.

## Nola ezagutu?

Aurreko hegalaren azpialdean ertz azpiko lerro bakarra ageri du, eta gainera beheko zatian zabaldu egiten da.
Halaber, orban beltz bakarra du atzeko hegalen gainaldeko gune diskalean. *M. deione* eta *M. parthenoides* espezien oso antzekoa da. Ondo bereizteko laborategiko lana behar da.



puntu bat gehienetan, batzuetan bi
gune horizko zerrenda, erdialdea laranja kolorekoa
zerrenda oso bakarra
kolore beltzeko nerbioak
ilarako gainerakoak baino gune askoz handiagoa
lerro beltz lodia

# *Melitaea parthenoides*

Keferstein, 1851

Galtzagorri marrabikoitza

*Doncella atenea*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, margulagoa emeetan, hegalak zeharkatzen dituzten marra beltzekin. Azpialdean gune zurixkak, laranja kolorekoak eta horixkak konbinatzen dira.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak plantainaz besterik ez dira elikatzen (*Plantago lanceolata*).

**Habitata**: kostalde ingurutik hasita, 1000 metrotik gorako guneetaraino. Espezie hau berezkoa da belardiekin loturiko ingurune mota guztietan.

**Banaketa eremua**: Europako hego-mendebaldera mugatzen da, Iberiar Penintsulako hegoaldetik, Bavariako (Alemania) hego-mendebaldera. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: abeltzaintzan gertatu diren aldaketek eragina izan dute espezie honetan. Mesedegarria da abeltzaintza estentsiboa eta antzeko jarduerak mantentzea, era horretara belardi zabalak bermatzen baitira.

## Nola ezagutu?

*M. nevadensis* eta *M. deione* espezieen oso antzekoa da. Atzeko hegalen gainaldeko gune diskalean ez du orbanik eta aurreko hegalen azpialdean bigarren marra bat azaltzen du (eme askotan ageri ez dena). Identifikazioa zehatza izateko genitalia ikertu beharra dago.

♂
gehienetan puntu zehatzik gabe
♀
gune horizko zerrenda, erdialdea laranja kolorekoa
bi zerrenda oso
♀
♂
ilarako gainerakoen antzeko tamainako gunea
♂

# *Melitaea phoebe*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Galtzagorri nagusia

*Doncella mayor*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa; bertan gune ilunagoak eta argiagoak ageri dira, trazu beltz ongi markatuekin.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean. Helduek maiatz-ekain eta uztail-irail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Centaurea* spp. eta *Carlina acaulis* espezieez elikatzen dira.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik beheragoko garaietaraino. Ingurune ireki eta belardietarako joera du, nahiz horiek ez duten hezetasun gehiegirik behar. Laborantza inguruneak ere onartzen ditu.

**Banaketa eremua**: Espainiako hegoaldetik Europako hego eta erdialdean eta Asia Txikian zehar, Txinaraino. Araban eta Gipuzkoan ageri da, baina oraingoz ez dago Bizkaiko erregistrorik.

**Kontserbazioa**: tximeleta jeneralista da eta barreiatze ahalmen handikoa; beraz, ez du babes neurri berezirik behar.

## Nola ezagutu?

Generoko tximeletarik handiena. Gainaldeko laranja koloreko guneak beste espezieetan baino handiagoak dira eta hainbat tonutako zerrendak dituzte. Aurreko hegalen gainaldeko ertzaren seigarren lunula gainerakoak baino nabarmen handiagoa da.

gune aldendua,
ilarako gainerakoak
baino handiagoa
oinaldeko orban
beltzak
lunula beltz
etenak
kolore argiko
nerbiazioa

# *Nymphalis antiopa*

(Linnaeus, 1758)

Antiopa vanesa

*Antiopa*

**Deskribapena**: gainaldea granate oso iluna du, hegalen ertza horia eta makula urdinen ilara bat. Azpialdea beltza, ertzean zerrenda hori bat duela.

**Biologia**: belaunaldi bakarrekoa, nahiz oso bizitza luzekoa. Helduak ekainean ateratzen dira arrautzetatik, udako parte batean estibatzen dute eta hilabete hotzetan hibernatzen dute. Ondoko urteko martxotik maiatzera aktibatzen dira berriro, eta orduan behatzen ahal dira hobekien. Ale asko ekain arte biziko dira, eta horrela helduaroko urtebeteko bizialdia osatzen dute.

**Landare elikagarriak**: beldarrak taldean bizi dira haltz, urki, sahats, makal eta zumarren gainean.

**Habitata**: 500-1000 metro bitarteko garaieran aurkitu ohi da. Beti hosto erorkorren baso masen ingurunean, batez ere ur ibilbideetatik hurbil.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik eta Europa gehienetik Asiaraino eta Ipar Amerikaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan erregistratu da.

**Kontserbazioa**: Gipuzkoako presentziari buruzko informazio gehiago bildu beharra dago, baita Bizkaiko populazioen existentzia berretsi ere, tximeletaren babesera bideraturiko estrategiak diseinatu ahal izateko.

## Nola ezagutu?

Espeziearen diseinu bereizgarriak nahastezina egiten du.

zerrenda horia
urteko aleetan
hibernazio ondoko
zerrenda zurixka

# *Nymphalis polychloros*

(Linnaeus, 1758)

Zumar-vanesa

*Olmera*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula beltzak lau hegaletan. Atzekoen ertzean lunula urdinxka batzuk ditu. Azpialdea oso iluna, urdin, beltz eta marroi koloreko zerrendekin.

**Biologia**: belaunaldi bakarrekoa, nahiz ia urte osoan ikus daitekeen. Imagoak maiatz-uztail bitartean eklosionatzen dira. Udako parte batean estibatzen dute eta hilabete hotz gehienetan hibernatzen dute, nahiz neguko egun eguzkitsuetan ikusten ahal diren. Martxoan aktibatzen dira berriro eta orduan arrak emea estaltzen du.

**Landare elikagarriak**: normalean zumarra, baina baita elorri zuria, sahatsa, makala eta fruitu arbolak ere.

**Habitata**: kostalde ondoko ingurune apaletatik 900 metroko altueraraino. Ohikoa da baso hosto erorkorren gune irekietan aurkitzea, batez ere ur bazterreko landaredi inguruan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa gehienean zehar, Asiaraino. Iberiar Penintsulan ongi barreiaturik ageri da, baita Euskadin ere, non hiru lurraldeetan aurki dezakegun.

**Kontserbazioa**: ongi banaturik dago eta ez dago arriskuan. Nolanahi ere, komenigarria litzateke informazio gehiago biltzea Bizkaian eta Gipuzkoan duen presentziari buruz.

## Nola ezagutu?

*Aglais urticae* espeziearen antzekoa da, baina handiagoa da eta ez du makula urdinik aurreko hegalen azpialdeko ertzean.

orban hau ez
da A. urticaen
agertzen
A. urticaerena baino
orban askoz txikiagoa

# *Polygonia c-album*

(Linnaeus, 1758)

C-zuria
*C-blanca*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, makula beltz eta horiak. Azpialdea marroi kolorekoa, “c” formako orban zuri batekin. Hegalek ertz irregular bereizgarria dute, hosto lehor baten itxura oroitarazten dutena.

**Biologia**: urtean hiru belaunaldi izatera iritsi daiteke, eta horrek urte osoan zehar helduak ikustea ahalbidetzen du. Uda amaieran jaiotakoek hibernatu egiten dute eta martxo-apiril bitartean aktibatzen dira berriro. Neguko egun eguzkitsuenetan ere ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: asuna (*Urtica* spp.), otsahiena (*Humulus lupulus*), zumarra (*Ulmus* spp.), sahatsa (*Salix* spp.), andere-mahatsa (*Ribes* spp.), hurritza (*Corylus avellana*) eta urkia (*Betula pubescens*).

**Habitata**: baso hosto erorkorretarako eta ibaiertzetarako joera izan ohi du. Itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaietaraino.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa osoan zehar, Japoniaraino. Iberiar Penintsulan oso zabaldua dago. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: banaketa zabala du eta ez du kontserbazio arazorik.

## Nola ezagutu?

Espezie hau nahastezina da bere ezaugarriak direla eta: kolorazioa, itxura eta atzeko hegalen azpialdean duen “C” formako marka.

# *Vanessa atalanta*

(Linnaeus, 1758)

Atalanta vanesa

*Atalanta*

**Deskribapena**: azpialdea beltza, laranja koloreko zerrendekin eta makula zuriekin; marrazki urdinxka bat uzki inguruan. Antzeko azpialdea aurreko hegaletan eta iluna atzekoetan, tonu desberdineko trazu ugarirekin.

**Biologia**: Europako erdialdean eta iparraldean bizi diren aleek udazkenean hegoaldera migratzen dute ugaltzeko. Beldarrak neguan zehar hazten dira eta pupek udaberrian eklosionatzen dute. Helduek ere hibernatzen dute eta neguko egun eguzkitsuetan ikus daitezke. Udaberrian iparralderantz migratzen dute.

**Landare elikagarriak**: asunak (*Urtica dioica, U. urens*) eta *Parietaria officinalis*.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaietaraino. Ia edozein ingurunetan aurki daiteke, barreiatze ahalmen handia du eta. Bereziki ugaria da landare elikagarria aurki dezakegun lekuetan, hala nola abeltzaintza jarduerako guneetan.

**Banaketa eremua**: espezie oso zabaldua. Makaronesia, Afrikako iparraldea, Europa osoa, Asia, Ipar Amerika eta Zeelanda Berria. Iberiar Penintsulan eta Euskadiko hiru lurraldeetan ere aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da, oso ugaria eta barreiatze ahalmen handikoa. Hortaz, tximeleta hau ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Hegalen diseinua dela eta, espezie hau nahastezina da.

# *Vanessa cardui*

(Linnaeus, 1758)

Kardu-vanesa
*Cardera*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, aurreko hegalen punta beltza eta makula zuriak eta beltzak. Azpialdea arrosa kolorekoa da aurreko hegaletan eta horixka atzekoetan, zenbait ozelorekin ertz azpiko gunean.

**Biologia**: hilabete epeletan ikus daiteke. Urtean zenbait belaunaldi ditu. Ez da negutik bizirik ateratzen eta horregatik ale askok Europatik Afrikara migratzen dute 4000 km-rainoko bidaia eginez. Udaberria iristean, Andaluziako kostaldetik eta Afrikako iparraldetik zenbait ale itzultzen dira gurera, lurraldea berriro kolonizatzen dutelarik.

**Landare elikagarriak**: *Malva sylvestris, Cirsium* spp., *Carduus* spp., *Silybum marianum* eta *Galactites tomentosus*.

**Habitata**: itsas mailatik eskualdeko gailurrik gorenetaraino aurki daiteke. Jokabide migratzailea dela eta, edozein ingurunetan ikus dezakegu, baita itsas gainean hegan doala ere.

**Banaketa eremua**: tximeleta hau mundu guztian aurki daiteke, Hego Amerikan izan ezik. Iberiar Penintsula osoan ondo zabaldurik dago. Euskadin lurralde guztian ikusten ahal dugu.

**Kontserbazioa**: espezie hau ez dago arriskuan. Izaera migratzailearen eraginez, urtetik urtera aleen ugaritasuna aldakorra da.

## Nola ezagutu?

Ezin daiteke beste inolako espezierekin nahasi.

# *Aphantopus hyperantus*

(Linnaeus, 1758)

Xirrindola
*Sortijitas*

**Deskribapena**: azpialdea oso iluna, ozelo beltz txiki batzuk lau hegaletan, txikiagoak arretan. Azpialdea marroi kolorekoa da eta ongi zehazturiko ozeloak ditu, hori eta beltz koloreko eraztun zentrokideekin eta pupila zuri batekin.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: *Carex* spp., *Agrostis* spp., *Arrhenatherum elatius*, *Bromus erectus* eta *Brachypodium* spp. Euskadin *Brachypodium sylvaticumen* gainean ikusi dugu.

**Habitata**: kostalde inguruko eremuetatik 1000 metroko garaieraraino gutxi gorabehera. Espezie honek larreetarako edo belardi hezeetarako joera du.

**Banaketa eremua**: Espainiako iparraldetik, Europa gehienean zehar, Asiaraino. Euskadin tximeleta hau oso zabaldua dago eta lurraldeko edozein tokitan aurki dezakegu.

**Kontserbazioa**: oso ohiko espeziea da eta itxuraz ez du inolako arrisku zehatzik. Mesedegarria da abeltzaintza estentsiboa eta antzeko jarduerak mantentzea, era horretara belardi zabalak bermatzen baitira.

## Nola ezagutu?

Espezie hau bereizten erraza da. *Lopinga achineren* antzekoa bada ere, zenbait desberdintasun ditu: gainaldeko ozeloak askoz garatuagoak dira eta ez du zerrenda zuri zehazturik atzeko hegalen azpialdean.

ozelo ez oso nabarmenak
♂
♀
ozelo beltzak, laranja-kolore ahulez inguratuak

# *Arethusana arethusa*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Saretatxoa
*Aretusa*

**Deskribapena**: gainaldea marroi kolorekoa, zerrenda zabal laranja-kolorea gune postdiskalean, ozelo beltz txikiekin. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta grisaxka atzekoetan, zerrenda argiago batekin.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek uztail-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: *Brachypodium phoenicoides, Bromus erectus, Festuca ovina,* eta segur aski beste zenbait gramineo.

**Habitata**: batez ere garaiera apaletan, 400-700 metro bitartean, mediterranear mendialdearen berezko landaredia duten inguruneetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europako hegoaldean zehar, Asia Txikiraino eta Erdialdeko Asiaraino. Iberiar Penintsularen iparraldeko erdialdean aurkitzen da, Kantauriko zerrendan izan ezik, non A. boabdil espezieak ordezkatu duen, ekialdeko Andaluzian gertatu den bezala. Euskadin Arabako lurraldera mugatzen da.

**Kontserbazioa**: ohikoa da Arabako Errioxan, baina urria Arabako gainerako lurraldean. Tximeleta hau ez dago arriskuan, populazioen kontserbazio egoera ona baita.

## Nola ezagutu?

*A. boabdil*en oso antzekoa da. Gainaldeko ertz azpiko marra beltza bi modutan ager daiteke: zuzena bi hegaletan, edo arinki ondulatua aurrekoetan eta marra biribilduz osatua atzekoetan.
*A. boabdil* espeziean, aldiz, marrazki horibeltz koloreko marra triangeluarrez osaturik dago. *H. semele* espezietik bereizteko bi ezaugarri nabarmendu daitezke: atzeko hegalen nerbiazio argia eta aurreko hegalen ozelo bakarra.

# *Arethusana boabdil*

(Rambur, 1840)

Boabdil saretatxoa

*Boabdil*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, makula laranja-kolorez osaturiko zerrenda batekin bi hegalen gune postdiskalean, non ozelo beltz txikiak agertzen diren. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta grisaxka atzekoetan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek uztail-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: Sierra Nevadan *Helictotrichon filifolium*. Euskadin ezezaguna da, nahiz eta segur aski genero horretako gramineoez edo beste genero batzuez baliatuko den, hala nola *Brachypodium, Bromus* eta *Festuca*.

**Habitata**: txilardiak, otadiak eta iralekuak nagusi diren ingurune atlantikoei loturik agertzen da. 150-1000 metro bitarteko garaieran egiten du hegan eta kostaldetik oso gertu dauden eremuetara iritsi daiteke.

**Banaketa eremua**: kantauriko zerrendan agertzen da, Galiziatik hasita zenbait eskualde frantsesetaraino (Pirinio Atlantikoak, Landak eta Gironda). Granadan eta Jaenen ere ikusi da, baita, zenbait egileren arabera, Marokoko Atlas Garaian eta Sizilian ere. Euskadin, Bizkaian eta Gipuzkoan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: bizi den ingurunea Habitatak Zuzentarauak (txilardi lehor azidofiloak) babesten duenez, landaredi mota horren adierazle egokitzat har daiteke tximeleta hau. Kantauriko populazioak *A. arethusa*ren subespezietzat (*dentata*) hartu dira. Egin berri diren ikerketa genetikoek A. boabdil espeziearen populazio bat direla adierazi dute, zeina orain arte Betikako endemismotzat jotzen zuten.

## Nola ezagutu?

*A. arethusa*ren oso antzekoa da. Triangelu beltzek osatzen duten marrazkiari esker bereizten da, zeina lau hegalen azpialdeko ertz azpiko gunean ageri den. Ale batzuek marrazki hori ez hain nabarmena ageri badute ere, populazioaren gehiengoak irizpide hori betetzen du. *H. semele* espezieak ez bezala, honek atzeko hegalen nerbiazioa zurixka du eta aurreko hegaletan ozelo bakar bat erakusten du.

ertz azpiko
triangeluak
♂
♀
♂
♀

# *Brintesia circe*

(Fabricius, 1775)

Basanderea
*Circe*

**Deskribapena**: tamaina oso handiko tximeleta. Gainaldea beltza, lau hegalen gune postdiskalean orban zuriz osaturiko zerrenda. Azpialdea iluna du, leku berean zerrenda zuri bat ageri duela. Alde bietan ozelo beltz bat erakusten du aurreko hegalen muturrean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek ekain-irail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: *Anthoxanthum, Arrhenatherum, Brachypodium, Bromus, Elytrigia* eta *Festuca* generoetako gramineoak eta ziperazeak.

**Habitata**: 400-900 metro bitarteko garaieran ikusi ohi da. Espezie hau berezkoa da gune bero zuhaiztunetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako hegoaldetik, Europako hegoalde eta erdialdean zehar, Erdialdeko Asiaraino. Euskadin, Araban eta Bizkaiko Urduña udalerrian bakarrik aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: espezie hau ez dago arriskuan. Klima aldaketaren eraginez, litekeena da iparrerago zabaltzea (Bizkaia eta Gipuzkoa), itxuraz azken hamarkadetan Asturiasen gertatu den prozesuaren antzera.

## Nola ezagutu?

Tximeleta nahastezina da, tamaina eta kolorazioa direla eta.

zerrenda zuria
♂
♂
♀
♂

# *Coenonympha arcania*

(Linnaeus, 1761)

Xingoladun pikarta
*Ocelada banda blanca*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa aurreko hegaletan eta iluna atzekoetan. Azpialdea laranja kolorekoa aurreko hegaletan, muturrean ozelo bat eta zilar koloreko ertza; atzekoetan ongi zehazturiko ozelo sorta bat ageri da, horietatik gertu zerrenda bat duela.

**Biologia**: helduek maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak gramineoez elikatzen dira, *Brachypodium, Festuca, Holcus* eta *Melica* generoez adibidez.

**Habitata**: kostalde inguruko garaiera oso apaletatik, 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Eremu irekietan aurkitzen dugu, belardietan eta basoko soilguneetan, adibidez.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparreko erdialdetik Kaukasoraino. Euskadin, oso hedatua dago lurralde guztian.

**Kontserbazioa**: oso ohiko espeziea da eta ez du inolako arriskurik.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdean zerrenda zuri zabala eta zehaztua ageri da, osorik edo ia osorik ozeloen barnealdean kokatua. Ozeloak hegalaren ertzetik gertu daude.

zerrenda zuri oso
nabarmena ozeloen
barnealdean

# *Coenonympha dorus*

(Esper, 1782)

Nafar pikarta
*Ocelada dorus*

**Deskribapena**: arren gainaldea iluna, atzeko hegalen azalera gehiena laranja kolorekoa. Emeen gainalde guztia laranja kolorekoa. Azpialdea laranja-kolore ahula da aurreko hegaletan eta ozelo nabarmen bat du muturrean; atzeko hegaletan, marroi kolorekoa. Ozeloz osaturiko lerro bat du, zerrenda zurixka batzuen ondoan. Ertz azpiko gunean marra zilarkara bat agertzen da.

**Biologia**: helduek ekain-irail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Carex, Stipa, Brachypodium* eta *Festuca* generoetako gramineoak eta ziperazeak.

**Habitata**: landaredi gutxiko eremu irekietan aurki dezakegu, mediterranear eragina nagusia duten eta maiz lehorrak diren guneetan, 400-700 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Frantziako eta Italiako hegoaldea. Euskadin, Araban aurki dezakegu. Bizkaiko ale bat dago Natura Zientzien Museo Nazionalean; beste ale bat 1898an aipatu zen “Bilboko aldirietan”. Hala ere, espeziearen presentzia zalantzazkoa da lurralde horretan.

**Kontserbazioa**: espezie urria da, Arabako Errioxan izan ezik. Hala eta guztiz ere, ez dirudi arriskuan dagoenik, gune horretan bizitzeko beharko lukeen habitata zabala baita.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdeko ozeloak ertzetik urrundurik ageri dira eta bi alboetan zerrenda zuri bat dute. Zerrenda hori krema kolorekoa da kanpoaldean eta zuria barnealdean.


♂
bi ozelo, ertz alderago kokatuak
krema koloreko zerrenda ozeloen bi aldeetan
zerrenda zilarkara
♂
♀
♀

# *Coenonympha glycerion*

(Borkhausen, 1788)

Pikarta grisaska

*Ocelada uniforme*

**Deskribapena**: aurreko hegalak laranja kolorekoak dira gainaldean zein azpialdean. Atzeko hegalak ilunak dira barnealdean eta grisaxkak kanpoaldean, non ozelo ia zirkularrez osaturiko lerro bat ageri den.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak *Brachypodium, Briza, Bromus, Cynosurus, Festuca, Melica, Stipa* edo *Poa* generoen hostoez elikatzen dira, besteak beste.

**Habitata**: 400-1000 metro bitarteko garaieran aurki daiteke, baita gorago ere. Belardi hezeetan eta istingetan garatzen da, are baso hosto erorkorretan eta gailurretan ere.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparreko erdialdetik, Europa epelean zehar, Korearaino. Euskadin, ondo banaturik dago Arabako eskualdean; Bizkaian kokaleku oso zehatzetan aurkitzen da. Litekeena da Gipuzkoan ere egotea, baina ez da orain arte alerik batere ikusi.

**Kontserbazioa**: tximeleta hau nahiko zabaldua dago eta ez dago arriskuan. Gipuzkoan arreta jarri behar diogu populazioak aurkitzeko aukerari, horiek ikertu eta kontserbatu beharrean egon gintezke eta.

## Nola ezagutu?

*C. arcania* eta *C. dorus* espezieetan ez bezala, ozeloek ez dute zerrenda zuririk ondoan. Batzuetan, ozeloren baten ondoan marka zuri txiki bat ager daiteke.

zerrenda zuririk gabea, makula txiki bat soilik
♂
antzeko tamainako ozeloak, erdizirkuluan kokatuak

# *Coenonympha pamphilus*

(Linnaeus, 1758)

Pikarta biluzia
*Ocelada común*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa. Aurreko hegalen azpialdea laranja kolorekoa da eta ozelo beltz ongi zehaztu bat du muturrean. Atzeko hegalak grisaxkak dira, ozelo txiki ez oso zehaztuekin.

**Biologia**: zenbait belaunaldi ditu urtean, horregatik ale helduak apiril-irail bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: *Agrostis, Anthoxanthum, Cynosurus, Digitaria, Festuca, Nardus* edo *Poa* generoko gramineoez elikatzen da, besteak beste.

**Habitata**: Itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Berezkoa da belardiz osaturiko eremu irekietan eta oso ondo onartzen ditu sega lana zein abeltzaintza.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europa ia osoa, Kaukasoa, Libano eta Iran. Euskadiko lurraldean oso hedaturik dago eta ohikoa da.

**Kontserbazioa**: oso ohiko tximeleta da, baina eremu irekiak behar ditu. Hori dela eta, abeltzaintza estentsiboaren jarduerak oso garrantzitsuak dira haren kontserbaziorako.

## Nola ezagutu?

Espeziearen tamaina txikiak eta kolorazioak nahastezina egiten du. Genero honen gainerako espezieek ez bezala, ez du ozelo zehazturik agertzen.

♂
ozelorik gabe, oso gutxi nabarmenduak edo gutxi zehaztuak

# *Chazara briseis*

(Linnaeus, 1764)

Sareta
*Briseis*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, bi hegalak zeharkatzen dituen zerrenda zuria eta bi ozelo beltz aurreko hegaletan. Aurreko hegalen azpialdea marroi argi kolorekoa da, bi ozelorekin. Emeak atzeko hegalen azpialdean marroi koloreko marrazki guztiz monotonoa erakusten du; arrak, aldiz, kontraste handiagoko gune ilunak eta argiak ditu.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek batez ere uztail-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: Iberiar Penintsulan *Stipa parviflora* espeziea besterik ez da dokumentatu. Espezie hori oso urria da Euskadin; hortaz, inguruko herrialdeetan ez bezala, beste gramineo batzuk erabiliko ditu, hala nola *Brachypodium, Bromus, Festuca* edo *Sesleria*.

**Habitata**: 400-1000 metro bitarteko garaieran aurkitu ohi dugu. Berezko espeziea da mediterranear eragina duten malda lehor eta harritsuetan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europako hegoaldean zehar, Asia Txikiraino eta Erdialdeko Asiaraino. Euskadin, Arabako lurralde historikoan bakarrik aipatu da. Urduñan (Bizkaia) erregistro bat dago, baina litekeena da Burgoskoa izatea, hango habitata egokiagoa baita.

**Kontserbazioa**: espezie honek Europako zenbait lurraldetan atzerakada egin du. Euskadiko populazio historikoak ongi mantendu direla dirudi, eta leku berean ale asko aurkitzen ez diren arren, ongi zabaldurik dago, gehienak Arabako Lautadan biltzen direlarik. Urduñako aipamena segur aski goi lautadari dagokio, Burgosko lurretan. Horregatik, Bizkaiko lurraldean espeziearen presentzia egiaztatzea beharrezkoa litzateke.

## Nola ezagutu?

Ez du identifikazio arazorik.
Genero honetan oso bereizgarriak dira golf makil itxurako antenak.

bi ozelo
♀
♀
marroi koloreko
zerrenda etena
♂
♀
golf makil formako
antena

# *Erebia epiphron*

(Knoch, 1783)

Erebia txikia

*Erebia menor*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja koloreko zerrendak bi hegalen gune postdiskalean. Hegaletan zenbait puntu beltz ageri dira, pupila zuririk gabeak. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta iluna atzekoetan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean, nahiz eta beldarren garapena bi urtekoa izan. Helduek orokorrean uztailetik abuztuaren lehenengo astera bitartean egiten dute hegan. Euskadiko ale bakarra abuztuaren 20an jaso zen, etiketak adierazten duenez.

**Landare elikagarriak**: beldarrak gramineoez elikatzen dira, *Aira, Deschampsia, Festuca, Nardus* edo *Poa* generoez adibidez.

**Habitata**: Euskadiko erregistro bakarrak 800 metroko garaieran kokatzen du. Berezko espeziea da ongi mantendutako mendialdeko belardi hezeetan.

**Banaketa eremua**: europako mendialde gehienak: Kantauriar mendikatea, Erresuma Batua, Alpeak eta Karpatoak. Euskadin, erregistro bakarra Arantzazukoa (Gipuzkoa) da. Urduña inguruan jaso ziren datuak identifikazio akatsak direla uste dugu, E. euryale espezieari baitagozkio.

**Kontserbazioa**: gure lurraldean jasotako ale bakarra 1964koa da, eta gaur egun Aranzadi Zientzia Elkartearen bilduman gorderik dago. Datu hori ez da berretsi ahal izan berriki egindako ikerketetan. Populazio bat egotekotan, horren babesa lehentasunezkoa litzateke autonomia esparruan.

## Nola ezagutu?

*E. eurygaleren antzekoa da. Hala ere, espezie horretan ez bezala, hegalen ertza ez da xake itxurakoa eta laranja koloreko orbanak handiagoak dira. Bestalde, atzeko hegalen azpialdea oso homogeneoa da.*

ozelo zuriak, pupilarik gabe
♀
♀
ozelo zuriak, pupilarik gabe
♂

# *Erebia euryale*

(Esper, 1805)

Erebia xakeduna

*Erebia ajedrezada*

**Deskribapena**: gainaldea oso iluna, laranja koloreko makulak eta puntu beltzak bi hegalen gune postdiskalean. Azpialdea iluna, halako tonu gorrixka eta orban zurixka askoz hedatuagoak emeetan. Finbriak xake itxurakoak dira.

**Biologia**: ekain-uztail bitartean egiten du hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak gramineo, junkazeo eta ziperazeo ugariz elikatzen dira, Carex, Luzula, Anthoxanthum, Briza, Bromus, Dactylis, Danthonia, Deschampsia, Festuca, Molinia, Nardus, Poa edo Sesleria generoez adibidez.

**Habitata**: 600-1000 metro bitarteko garaieran, nahiz hori asko aldatzen den Euskadin ezagutzen diren guneetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldeko mendietan eta Europako erdialdean eta hegoaldean aurkitzen da. Euskadin, hiru lurraldeetan ikus daiteke, Gorobel, Ordunteko mendilerro eta Lizarrusti inguruan.

**Kontserbazioa**: espezie hau Euskadin urri dago eta toki oso zehatzetan aurkitzen da. Tximeleta honek izan dezakeen arrisku nagusia abeltzaintza jardueraren areagotzea da, eta hori oso nabaria da Ordunteko mendilerroan. Euskal Mendietako beste gune batzuetan bitarteko populazioak azal daitezke.

## Nola ezagutu?

*E. epiphronen* antzekoa da. Espezie horrek ez bezala, aldian behin pupila zuriko ozelo batzuk erakusten ditu. Gainaldeko orban laranja-koloreak txikiagoak dira. Finbriak xake itxurakoak dira eta hegalen azpialdeko marrazkia oso bereizgarria du.

xake formako ertza
zerrenda argia
ozeloak, pupila zuririk gabe gehienetan

# *Erebia meolans*

(Prunner, 1798)

Erebia arrunta

*Erebia común*

**Deskribapena**: gainaldea iluna da, iridiszentzia apur batekin eta laranja koloreko zerrenda banarekin hegaletan; zerrenda horren gainean pupila zuriko zenbait ozelo ageri dira. Azpialdea marroi kolorekoa da; aurreko hegaletan laranja koloreko zerrenda ikus daiteke eta ozeloak gainaldean zuten posizio berean ageri dira.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak gramineoez elikatzen dira, *Agrostis Danthonia*, *Deschampsia*, *Festuca* edo *Nardus* generoez adibidez.

**Habitata**: espezie hau mendialdeko larreei loturik dago, 1000 metroko garaieraraino. Hala ere, 400 metrotik behera ere aurki dezakegu, kostaldetik gertuko eremuetan.

**Banaketa eremua**: tximeleta honen populazioak Espainia eta Austria arteko mendialdeetan ikus daitezke. Euskadin, hiru lurraldeetan ageri da.

**Kontserbazioa**: tximeleta hau gure lurraldean ondo banaturik dago eta itxura denez ez du inolako arriskurik. Bizi den larreetan abere gehiegi biltzeak kalte egin diezaioke.

## Nola ezagutu?

*E. triariaren* oso antzekoa da. Aurreko hegalen gainaldeko zerrenda laranja-koloreek marrazki oro har zuzena dute barnealdeko mugan; *E. triariaren* kasuan, ordea, barnealdeko muga hori gakoduna da.

iridiszentzia
laranja koloreko gunearen
barnealde zuzena

# *Erebia triaria*

(Prunner, 1798)

Erebia goiztiarra
*Erebia acodada*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja koloreko zerrenda zabalekin hegal bietan, non pupila zuriko zenbait ozelo ilun agertzen diren.

**Biologia**: helduek maiatz-uztail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: larba egoeran gramineoez elikatzen da; zehazki, Festuca generoko espezieen gainean ikusi da.

**Habitata**: 700-1000 metro bitarteko garaieran, era askotako inguruneetan. Hala ere, eremu horiek irekiak eta lore ugarikoak izan behar dute, basoen inguruan kokatuak.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako, Alpeetako eta Balkanetako mendialdeetan soilik aurkitzen da. Euskadin, hiru lurraldeetan ikus daiteke, nahiz eta Gipuzkoan leku zehatzetara mugaturik dagoen (Aizkorriko mendilerroa). Bizkaian ere tximeleta honen banaketa Urduñako udalerrira mugatzen da.

**Kontserbazioa**: ez dago arriskuan, baina espezie honen babesa bereziki garrantzitsua da Bizkaian eta Gipuzkoan, non arreta jarri behar den, populazio berriak ager litezke eta.

## Nola ezagutu?

*E. meolansen* oso antzekoa da. Espezie horrek ez bezala, aurreko hegalen azpialdeko orban laranja-koloreak itxura ahurra du.

laranja koloreko gunearen barnealde ahurra
laranja koloreko gunearen barnealde ahurra

# *Hipparchia fagi*

(Scopoli, 1763)

Oihaneko bidezaina

*Sátiro del bosque*

**Deskribapena**: gainaldea beltza, zerrenda zuri batekin bi hegaletan; hegalen muturrean tamaina ertaineko ozelo bat du, azpialdean ere agertzen dena. Ozelo txikiago batzuk ere ikus daitezke. Sabelaldea iluna da, zerrenda argiekin.

**Biologia**: helduak uztail-abuztu bitartean ikus daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Avenula, Brachypodium, Bromus, Festuca* eta *Holcus* generoetako gramineoak, besteak beste.

**Habitata**: 500-1000 metro bitarteko garaieran, eskuarki basoetatik hurbil dauden eremu harritsuetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, Europako hegoalde osoan zehar, Errusiako hego-ekialderaino. Euskadin, espezie honen erregistroak Arabako lurraldera eta Gipuzkoako kostaldeko kokaleku bakarrera mugatzen dira

**Kontserbazioa**: tximeleta honek Bizkaian eta Gipuzkoan duen banaketa berrikusi beharko litzateke, populazio gehiago egon litezke eta. *H. hermione* espeziearekin duen antzekotasun handia dela eta, populazio horiek azken honekin nahastea gertatu bide da.

## Nola ezagutu?

*H. hermionen* itxura berdina du. Bereizi ahal izateko Jullien-en organoa ikertu beharra dago, arraren abdomenaren muturrean kokaturik dagoena. *H. hermionek* ez bezala, espezie honek soilik 3-5 hagaxka beltz eta lodi ditu.

Jullien organoa, 3-5
hagatxo beltzekin

# *Hipparchia hermione*

(Linnaeus, 1764)

Hermione bidezaina

*Sátiro de Hermione*

**Deskribapena**: gainaldea kolore ilunekoa, zerrenda zuri bat hegal bien gune postdiskalean. Azpialdea iluna, zerrenda argi bat atzeko hegaletan eta horixka aurrekoetan. Ozelo bat ageri du aurreko hegalaren bi aldeetako muturrean.

**Biologia**: uztail-irail bitartean egiten du hegan. Urteko belaunaldi bakarra.

**Landare elikagarriak**: larba egoeran poazeoez elikatzen da, hala nola *Arrhenatherum, Brachypodium* edo *Festuca*.

**Habitata**: eremu apaletatik, 400 metrotik gora, 1200 metroko gailurrak dituzten guneetaraino aurki daiteke, hala nola Toloñoko mendilerroan. Baso masekin loturik ageri ohi da eta ingurune irekietan eta bideetan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako hegoaldetik Norvegiaraino eta Ukrainaraino. Ongi banaturik dago hiru euskal lurraldeetan.

**Kontserbazioa**: lurraldean zehar ongi hedaturiko tximeleta da, itxuraz kontserbazio egoera onean dagoena.

## Nola ezagutu?

Landa aldean *H.fagi*tik bereizezina da, Jullien-en organoagatik izan ezik, arren abdomenaren amaieran kokaturik dagoena. Espezie honek 15-30 hagatxo beltz ditu, *H.fagi*renak baino meheagoak.

Jullien organoa,
15-30 hagatxo
beltzekin

# *Hipparchia fidia*

(Linnaeus, 1767)

Bidezain urratua

*Sátiro rayado*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, bi ozelo beltzekin aurreko hegaletan; ozeloen artean bi orban zuri ageri dira. Azpialdea gris kolorea da, tigre itxura ematen dioten marra beltz eta zerrenda zuriekin. Atzeko hegaletako ozeloak beltzak dira, kanpoaldeko eraztun horixka eta pupila zuria dutenak.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak uztail-abuztu bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: *Brachypodium, Piptatherum* edo *Stipa* generoetako gramineoak, besteak beste.

**Habitata**: espezie hau mediterranear mendialdeko landaredia duten eremuetan agertzen da, gune harritsuetan maiz askotan. Eskuarki 500-900 metro bitarteko garaieran ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula gehiena, Balear Uharteak, Frantziako hegoaldea eta Italiako ipar-mendebaldea. Euskadin, espeziearen banaketa Arabako lurraldera mugatzen da.

**Kontserbazioa**: gure lurraldean tximeleta honek hartzen duen hedadura urria da. Nekazaritza jarduera areagotzeak kalte egin liezaioke, herrek habitata murrizten duelako.

## Nola ezagutu?

Tximeleta nahastezina da, azpialdearen itxura tigrekaragatik. Espezierik antzekoena *H. statilinus* litzateke.

bi orban zuri
lerro beltza, oso nabarmena eta angeluduna

# *Hipparchia semele*

(Linnaeus, 1758)

Bidezain gorria
*Sátiro rubio*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja-koloreko gune batzuekin, zabalagoak emeetan. Azpialdea laranja-kolorea aurreko hegaletan; iluna atzekoetan, marra beltzak eta zerrenda zurixka bat ageri dituztela. Gainera, bi ozelo ditu lehen hegal parean eta txiki bat bigarrenean.

**Biologia**: urteko belaunaldi luze bat ematen du, ekain-irail bitartean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak gramineoez elikatzen dira, esaterako *Agrostis, Aira, Ammophila, Arrhenatherum, Brachypodium, Briza, Bromus* edo *Deschampsia* generoez.

**Habitata**: itsas mailatik kota gorenetara, 1200 metro ingurukoetaraino. Bai eremu lehor eta mediterranearretan, bai kostaldeko edo mendialdeko inguruneetan aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako hegoaldetik Fennoskandiako eta Errusiako hegoalderaino. Euskadiko hiru lurraldeetan agertzen da, nahiz Araban ugariagoa den.

**Kontserbazioa**: lurraldeko hedadura handiko eremuetan aurkitzen den espeziea da; hortaz, ez dirudi arriskuan dagoenik.

## Nola ezagutu?

*Arethusanaren antzekoa da. Alabaina, hark ez bezala, ez du nerbiazio garbirik agertzen atzeko hegalen azpialdean eta bi ozelo ditu aurreko hegaletan.*

lerro beltz irregularra
eta angeluduna
♀
♂
♀
bi ozelo, pupila
zuridunak

# *Hipparchia statilinus*

(Hufnagel, 1766)

Errauts bidezaina

*Sátiro gris*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, aurreko hegaletan bi ozelo eta horien artean bi makula zuri dituela. Arretan androkonia ilunago bat ikusten da. Azpialdea grisaxka da, marrazki eskasekoa, eta bi ozelo ditu lehenengo hegal parean.

**Biologia**: urteko belaunaldi bakarrekoa. Helduek berandu egiten dute hegan, uztail-irail bitartean.

**Landare elikagarriak**: poazeo eta ziperazeo espezie ugari, hala nola *Carex*, *Brachypodium, Dactylis, Festuca, Koeleria, Nardus* edo *Stipa*.

**Habitata**: kostaldetik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Gune ireki, lehor eta harritsuetan aurkitzen da.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Iberiar Penintsulan eta Europako erdialde eta hegoaldean zehar, Errusiako hegoalderaino eta Asia Txikiraino. Euskadin, Arabako eremu zabaletan aurkitzen da, baita Bizkaiko kokaleku batzuetan ere. Gipuzkoan, aldiz, ez dago horren presentziaren aipamenik.

**Kontserbazioa**: ongi banaturik dago arabar eskualdean, baina lurraldeko gainerakoetan urriagoa da. Interesgarria izango litzateke Gipuzkoan populazioren bat aurkitzea. Bizkaiko populazioek ere, urriak izanik, arreta berezia merezi dute.

## Nola ezagutu?

*Satyrus actaea*rekin ez nahasteko, atzeko hegalen ertzean jarri behar dugu arreta, askoz ondulatuagoa baita, azpialdeko marrazkia bezalatsu, askotan sigi-saga egiten duena *S. actaea*n. Gainera, *S. actaea*ren arrek ozelo bakarra dute aurreko hegaletan, baina *H. statilinus*ek bi ageri ditu beti.

bi orban zuri
bi orban zuri
lerro beltza, ez oso nabarmena eta bihurria

# *Hyponephele lupina*

(Costa, 1836)

Uztai otso-tximeleta

*Lobo anillado*

**Deskribapena**: gainaldea ilun uniformea, ozelo txiki bat arraren muturrean eta bi ozelo emearen aurreko hegalen gune postdiskalean. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta grisaxka atzekoetan, azken horien ertza ondulatua dela.

**Biologia**: helduek uztail-abuztuan egiten dute hegan. Belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Aegilops geniculata, Stipa offneri* eta *Stipa parviflora* gramineoak erabiltzen dituzte elikagai gisa.

**Habitata**: mediterranear eraginpeko eremu irekiak eta lehorrak, 600-700 metroko garaieraren inguruan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europako hegoalde osoan zehar, Asia Txiki eta erdialdeko, Siberia eta Mongoliaraino. Erregistro batzuk Valderejoko Parke Naturaletik oso gertukoak dira. Datu bat Trebiñu Konderriari dagokio, nahiz ez den kokaleku zehatza ezagutzen (Araba/Burgos?). Guztiz litekeena da Araban egotea baina hori berretsi beharra dago.

**Kontserbazioa**: garrantzitsua da Trebiñu Konderriaren inguruan bilaketak egitea, Euskadin presentzia duen berresteko. Udalerri horretako alea ez da kontserbatu ez Aranzadi Zientzia Elkarteko bilduman, ez eta Arabako Natura Zientzien Museoarenean ere.

## Nola ezagutu?

*Maniola jurtina* baino txikiagoa da, baina *Hyponephele lycaonen* oso antzekoa. Arren aurreko hegaletako androkonia handia, obalatua, nabarmena eta nerbiorik gabea du bereizgarri. Aurreko hegalaren gainaldeko muturraren puntua txikiagoa da eta ez dago laranja-kolore ahuleko zerrenda lauso haren barrenean, *H. lycaonen* dagoen bezala.

♂
♀
ertz uhinduna

# *Hyponephele lycaon*

(Kühn, 1774)

Otso-tximeleta
*Lobo*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, aurreko hegaletan laranja-kolore ahuleko barreiadura ageri duela; arrak muturreko ozelo bat du. Emeak bi ozelo beltz handi ditu, eta laranja koloreko zerrenda bat lehenengo hegal pareko gune postidiskalean. Azpialdea grisaxka da atzeko hegaletan, eta laranja kolorekoa aurrekoetan.

**Biologia**: urtean belaunaldi bakarra du. Helduek uztailean eta abuztuan egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: *Festuca ovina, F. rubra* eta *Stipa pennatar*en gainean dokumentatu da.

**Habitata**: 600-1000 metro bitarteko garaieran, mediterranear eraginpeko eremu eguzkitsu eta lehorretan.

**Banaketa eremua**: Europako hegoalde eta erdialde gehiena hartzen du Finlandia eta Asia Txikiraino; Kaukaso, Siberia, Mongolia eta Txinaraino iristen da. Euskal lurraldeari dagokionez, Araban bakarrik ageri da.

**Kontserbazioa**: guztiz kokaleku jakinetan hazten den tximeleta, Euskadiko hegoaldean kokaleku ezagun gutxi dituena eta horiek, populazio dentsitate apalekoak. Informazio gehiago bildu behar da banaketa erreala ezagutu eta, haren kontserbazioari begira, litezkeen neurriak ebaluatu ahal izateko.

## Nola ezagutu?

*H. lupinus*ek ez bezala, arrak laranja-kolore ahula ageri du aurreko hegalen gainaldeko gune postdiskalean, zeinak muturreko ozeloa inguratzen duen. Bi nerbiok eteten dute androkonia luzanga. *M. jurtina* baino txikiagoa da eta ongi bereizten da horretatik arraren androkonia dela eta.

ozelo bat
androkonia oso estua
♂
♂
bi ozelo
♀
♂

# *Lasiommata maera*

(Linnaeus, 1758)

Tarttalo
*Pedregosa*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, ilunagoa arretan. Azpialdea laranja kolorekoa lehenengo hegal parean eta gris zilarkara distiragabea bigarrenean. Ozelo bat du aurreko hegalen muturrean eta batzuk atzekoen ertz azpiko gunean, bai gainaldean nola azpialdean.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean; hortaz, helduak hegan ekainetik irailera ikus ditzakegu.

**Landare elikagarriak**: *Brachypodium, Bromus, Calamagrostis, Deschampsia, Festuca, Holcus, Nardus* eta *Poa* generoetako gramineoak, besteak beste seguruenik.

**Habitata**: kostaldeko eremuetatik 1000 metrotik goragokoetaraino, oso ingurune desberdinetan aurkitzen da, nahiz beti harkaitzez hornituak izan behar. Ohikoagoa da mendi ertaineko guneetan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europako alde gehienetan zehar, Erdialdeko Asia eta Siberiaraino. Euskadiko hiru lurraldeetan ongi banaturik dago.

**Kontserbazioa**: ongi banaturik dago eta toki batzuetan ugaria da. Gure lurraldean ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*L. megeraren oso antzekoa da, baina handiagoa. Emea argiagoak da eta arra ilunagoa. Gainera, azpialdea argiagoa da, marra gutxiagokoa, eta itxura zilarkara du.*

bi trazu motz
♀
♀
ertz biribildua
apaindura gutxiko
marrazki grisaxka
androkonia
♀
♂

# *Lasiommata megera*

(Linnaeus, 1767)

Tarttalo txikia
*Saltacercas*

**Deskribapena**: gainaldea laranja tonukoa, marra beltzekin; arrak zerrenda androkoniala du. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan eta grisaxka atzekoetan, Lehenengo hegal parearen bi aldeetako muturrean ozelo bat ageri da, eta ozelo txikiago batzuek osaturiko sorta bat bigarren parearen ertz azpiko gunean.

**Biologia**: hiru belaunaldi ematen dituzte hilabete beroetan zehar. Helduak martxo-urri bitartean ikus daitezke, nahiz gehiago ere luza daitekeen.

**Landare elikagarriak**: Graminea genero asko, hala nola *Aegilops, Brachypodium, Bromus, Cynodon, Dactylis, Festuca, Piptatherum, Poa* eta *Stipa.*

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Plastizitate ekologiko handikoa, tximeleta hau bai ingurune andeatuetan, bai gune ongi kontserbatuetan eta landaredi mota guztiek osatuetan hazten da.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa gehienean zehar, Asia Txiki, Ekialde Hurbil, Iran eta Kazakhstaneraino. Euskal Autonomia Erkidego guztian hedaturik dago.

**Kontserbazioa**: eskakizun ekologikoei dagokienez, espezie ohikoenetakoa, ugarienetakoa eta jeneralistenetakoa da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*L. maera* baino txikiagoa da. Atzeko hegalen azpialdea ilunagoa da eta diseinu apainduagoa du. P. aegeriarekin era nahasi ohi da. Alabaina, *L. megeraren* atzeko hegalen ertza ez da ondulatua.

hiru trazu motz
ertz biribildua
♀
androkonia
♂
lerro ongi zehaztuak
apaindura handiko marrazkia

# *Lopinga achine*

(Scopoli, 1763)

Lopinga
*Lopinga*

**Deskribapena**: gainalde eta azpialdeko gune postdiskalean, hori kolorez inguraturiko ozelo beltzen ilara bat ageri du. Hegaletako gainerako azala tonu gehienbat ilunekoa da, bigarren hegal parean zerrenda zuri garbiak ageri dituela.

**Biologia**: helduek ekainaren amaieratik abuztuaren hasiera bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: euskadin, batez ere *Carex caudata* eta *C. flacca*, seguruenik, nahiz eta beste genero batzuk ere aipatu diren, hala nola *Luzula, Brachypodium, Deschampsia, Festuca* eta *Poa*.

**Habitata**: 500-900 metro bitarteko garaieran. Baso hosto erorkorren soilguneetako berezko espeziea da. Baso horiek Euskadin gehienbat pagoak eta haritzak osaturik daude.

**Banaketa eremua**: Penintsulako iparraldetik (Europako Mendiak eta Gorobel), Europako erdialdean eta Fenoskandiako hegoaldean zehar, Japoniaraino Asiako baso hosto erorkorreko eremu guztietan barna. Euskadin Araba eta Bizkaiko lurraldeetan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: guztiz kokaleku zehatzetan hazten den tximeleta da, populazioa oso zatikatua duena eta gaur egun habitat guztiz mugatua eta andeatua duena. Era aktiboan babestu eta Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartu beharreko espeziea dugu.

## Nola ezagutu?

*Aphantopus hyperantusen* antzekoa da. Hark ez bezala, gainaldean eraztun horiz inguraturiko ozelo beltz handi batzuk ageri ditu. Azpialdean ere ozelo horiek tamaina handikoak dira eta ondoan zerrenda zuri batzuk dituzte, *A. hyperantusen* ez daudenak.


marroi koloreko hiru lerro garbi
ozelo handi lerrokatuak, beltzak eta horiz inguratuak
zerrenda zuria

# *Maniola jurtina*

(Linnaeus, 1758)

Maniola
*Loba*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, arren gune postdiskalean laranja koloreko orban txikiak ageri dira, emeetan askoz hedadura handiagokoak. Aurreko hegalen azpialdea laranja-kolorea da, muturrean ozelo bat duela; atzealdekoena, aldiz, tonu grisaxkakoa da.

**Biologia**: belaunaldi bakarra du urtean. Helduek maiatz-irail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: gramineo ugari. *Alopecurus, Anthoxanthum, Avenula, Brachypodium, Bromus, Cynosurus, Dactylis, Elytrigia. Elymus, Festuca, Poa* eta *Stipa* generoen espezieez baliatzen direla ezagutzen da.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaietaraino, nahiz garaiera ertain eta apaletan ugariagoa den. Ingurune mota guztietan aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Kanariar uharteetatik eta Afrikako iparraldetik, Europa eta Asia Txikiko gehienean zehar, Irak Iran eta Siberiaraino. Euskadiko lurralde osoan guztiz banaturik dago.

**Kontserbazioa**: espezie ohikoenetakoa eta banaketa handienetakoa da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Hyponephele* generoaren antzekoa da, baina tamaina handiagokoa eta askoz ohikoagoa. Arreen androkonia askoz handiagoa da eta ozelo bakarra du; emeetan laranja tonua askoz hedatuagoa dago, eta ozelo bakarra du aurreko hegaletan.

♂
♂
♀
♂
androkonia
handia

# *Melanargia galathea*

(Linnaeus, 1758)

Doluerdia

*Medioluto norteña*

**Deskribapena**: gainaldea zuria, makula beltz zabalekin eta ozelo sorta batekin atzeko hegalen gune postdiskalean. Azpialdeak antzeko kolorazioa du aurreko hegaletan eta krema tonukoa da atzekoetan. Bestalde, leucomelas formak ez du ia marrazkirik erakusten atzeko hegalen azpialdean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrek *Carex* (ziperazeoak) generoa onartzen dute, baita askotariko gramineoak ere, *Agrostis, Ammophila, Avenula, Brachypodium, Bromus, Dactylis* eta *Festuca* adibidez.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik gorako guneetaraino aurki dezakegu, nahiz eta garaiera ertainetan ugariagoa den. Espezie hau berezkoa da gramineo ugari duten eremu irekietan.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Espainiako iparraldea, Europako erdialde gehiena, Asia Txikiko hegoalde gehiena eta Iran. Euskadin, lurralde guztian ikus dezakegu.

**Kontserbazioa**: Euskadin espezie ohikoenetako bat da. Errioxan populazioen atzerakada bortitza ikusi dugu, eta horregatik arretaz jarraitu beharko ditugu Arabako hegoaldeko populazioak, ondorengo hamarkadetan antzeko prozesurik gerta ez dadin. M. lachesisekin espezieen arteko kopulak ikusi dira Herrerako portuan eta Gatzaga Buradon udalerrian.

## Nola ezagutu?

*M. lachesis*ekin batera, aurreko hegaletako gelan marra beltzik erakusten ez duten espezie bakarrak dira genero honetan. *M. lachesis*ek ez bezala, gela beltz biribila du eta orban beltz nabarmena ikusten zaio atzeko hegalen gainaldean.

♂
♀
marrazkia nabarmenki beltza arretan
♀
marrazki beltz zabala atzeko hegalen erdigunean
♂
*leucomelas* forma, marrazki ahula atzeko hegalean

# *Melanargia lachesis*

(Hübner, 1790)

Nafar doluerdia

*Medioluto ibérica*

**Deskribapena**: gainaldea zuria, makula beltzak eta ozeloak atzeko hegalen gune postdiskalean. Azpialdea zuria da, trazu grisaxkak arretan eta horixkak emeetan. *Cataleuca* formak ia ez du marrazkirik atzeko hegalen azpialdean.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Brachypodium, Bromus, Dactylis, Elytrigia, Festuca, Phleum* eta *Poa* generoez elikatzen dira, baita, segur aski, beste zenbait gramineoz ere.

**Habitata**: 400-1000 metro bitarteko garaieran gutxi gorabehera, mediterranear eraginpeko askotariko inguruneetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula eta Frantziako hegoaldea. Euskadin, gehienbat Araban aurki daiteke; hau da hain zuzen ere, espezie honen banaketak Iberiar Penintsulan duen iparraldeko muga. Gipuzkoari dagokionez, Lizarrustiko gainean aurkituriko ale bat Aranzadi Zientzia Elkartearen bilduman dago, eta Berastegiko beste bat Natura Zientzien Museo Nazionalean. Hala ere, ordutik ez da erregistro berririk aurkitu.

**Kontserbazioa**: arabako hegoaldean ohiko espeziea da eta ez dugu uste arriskuan dagoenik. Populazioen garapena ikertzea interesgarria izan daiteke, hurrengo urteetan iparralderagoko eremuak har baititzake, egungo klima aldaketak lagunduta. Gipuzkoan horren presentzia berrestea komenigarria litzateke.

## Nola ezagutu?

Generoan, tximeleta honen eta *M. galathea*ren ezaugarri batek gainerako espezieetatik bereizten ditu: lehenengo hegal pareko gela ez du inolako marrak zeharkatzen. *M. galathea* espezieak ez bezala, ez du orban beltzik atzeko hegalen gainaldearen oinarrian. Horretaz gain, aurreko hegalen gainaldeko gela ez dago beltzez mugatua.

♂
♀
♀
zerrenda beltzik ez atzeko hegalaren erdialdean, *M. galathean* ohikoa
ozelo urdinak

# *Melanargia ines*

(Hoffmansegg, 1804)

Ines doluerdia

*Medioluto ines*

**Deskribapena**: azpialdea zuria, marra beltzekin; ozelo urdinxka sorta bat atzeko hegalen gune postdiskalean eta aurreko hegalen mutur azpiko gunean. Azpialdea zuria da, atzeko hegalen nerbiazioa beltzez nabarmendua dagoelarik. Hemen ere zenbait ozelo ageri dira gune postdiskalean, kolore beltz, zuri, gorri eta urdineko eraztunekin eta pupila zuriarekin.

**Biologia**: udaberrian egiten du hegan, maiatz-ekain bitartean; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Stipa* generoko gramineoez elikatzen da. Gure lurraldean segur aski *S. offneri* espezieaz.

**Habitata**: mediterranear eragin nabarmeneko eremu lehorretan agertzen da, Ebroko haranaren harearrizko lurzoruan. 400-500 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea eta Iberiar Penintsula gehiena. Euskadin, Arabako Errioxako kokaleku gutxi batzuetara mugatzen da.

**Kontserbazioa**: Euskadin oso espezie urria da eta kokaleku gutxi ezagutzen dira. Horregatik, kontuan hartu beharko litzateke autonomia mailako kontserbazioa. Nekazaritza jarduera areagotzeak kalte egin diezaioke, batez ere ardogintzak, haren hegaldatze eremua hartzen baitu, pestizidak erabiliz.

## Nola ezagutu?

*M. occitanicaren antzekoa da, baina erraz bereiz daiteke: M. occitanicak atzeko hegalen nerbiazioa herdoil kolorekoa duen bitartean, M. inesen nerbiazioa beltza da. Halaber, espezie honetan gainaldeko pigmentazio beltza zabalduagoa dago.*

nerbiazio
beltza
zenbait
koloretako
ozeloak
ozelo urdinak

# *Melanargia occitanica*

(Esper, 1793)

Doluerdi herdoildua
*Medioluto herrumbrosa*

**Deskribapena**: gainaldea zuria, trazu beltzak eta ozelo urdinxkak aurreko hegalen gune postdiskalean. Azpialdeak herdoil koloreko nerbiazio nabarmena du, baita pupila urdineko ozelo ikusgarri sorta bat ere gune postdiskalean.

**Biologia**: maiatz-uztail bitartean ikus daiteke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak batez ere Brachypodium, Festuca, Phleum eta Stipa generoez elikatzen dira, nahiz eta segur aski beste gramineo batzuk ere erabiltzen dituzten.

**Habitata**: 400-1000 metro bitarteko garaieran, zuhaixka ugariko eta zuhaitz gutxiko ingurune lehor eta harritsuetan.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea eta Europako hego-mendebaldea, Iberiar Penintsula gehiena barne. Euskadin, Arabako lurraldean aurki dezakegu soilik.

**Kontserbazioa**: Arabako lurraldean banaketa zabala du, nahiz eta haren populazioak sakabanatuta egon. Itxuraz ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*M. inesen* antzekoa da, baina bereizten erraza, azpialdean duen okre tonuko nerbiazio nabarmenarengatik. Gainaldeko orban beltzak ez dira *M. inesenak* bezain zabalak.


ozelo urdinak
zenbait koloretako ozeloak
herdoil koloreko nerbiazioa

# *Melanargia russiae*

(Esper, 1783)

Tximista doluerdia

*Medioluto montañesa*

**Deskribapena**: hegalen gainaldean zein azpialdean kolore zuriko eta beltzeko guneak konbinatzen ditu; ozelo sorta bat gune postdiskalean.

**Biologia**: helduak uztail-abuztu bitartean ikus daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak batez ere Brachypodium, Festuca, Phleum eta Stipa generoez elikatzen dira, nahiz eta segur aski beste gramineo batzuk ere erabiltzen dituzten.

**Habitata**: 600-1200 metro bitarteko garaieran, mendialdean.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Frantziako hegoaldea, Italia, Balkanetako Penintsula, Asia Txikia, Kaukasoa, Errusia, Erdialdeko Asia eta Siberia, elkarretatik banatuta dauden lau taldetan zatiturik. Euskadin, Arabako Errioxan bakarrik aurki dezakegu. Sukarrietako udalerrian (Bizkaia) jasotako ale bat Natura Zientzien Museo Nazionalean gorderik dago, nahiz zaila den udalerri horretan populaziorik egotea, garaiera apala dela eta.

**Kontserbazioa**: espezie urria da eta haren kokaleku gutxi ezagutzen dira. Espeziearen kontserbazio egoera ona dela uste den arren, haren garapena jarraitzea komeni da.



## Nola ezagutu?

Aurreko hegalen gela sigi-sagako marra beltz batez etenda dago, eta horrek tximeleta hau nahastezina egiten du. Azpialdea oso argia da, arren kasuan batez ere, ondo zehaztutako marra beltzek zeharkatua.

♀
hegalak generoko beste espezieetan baino zorrotzagoak
♂
lerro beltz oso garbiak
♀
sigi-sagako lerro batek zatituriko gela
makula zuriak

# *Minois dryas*

(Scopoli, 1763)

Begiurdina

*Minois*

**Deskribapena**: gainaldeko zein azpialdeko diseinua oso iluna, bi ozelo urdinxka aurreko hegaletan eta ozelo bakarra atzekoetan. Emeetan ozelo horiek handiagoak dira eta batzuetan hirugarren ozelo txikiago bat erakusten dute lehen bi hegaletan. Aurreko hegalen azpialdeak zerrenda zuri bat du, ahulagoa arretan.

**Biologia**: helduek batez ere abuztuan egiten dute hegan, baina baita uztail amaieran ere; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak gramineo eta ziperazeo genero ugariz elika daitezke, hala nola *Carex, Avenula, Brachypodium, Briza, Bromus, Calamagrostis, Dactylis, Festuca, Koeleria, Molinia* eta *Phragmites*.

**Habitata**: itsas mailatik 900 metroko garaieraraino, gutxi gora behera. Ohikoagoa da kostaldean eta txilardi, otadi eta iraleku atlantiarrez osaturiko inguruneetan.

**Banaketa eremua**: Espainiako iparraldea (Asturias, Kantabria, Burgos, Euskadi y Nafarroa), Europako erdialdea, eta Asia epela, Japoniaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki daiteke, nahiz eta Araban oso urria izan.

**Kontserbazioa**: Espainian banaketa mugatua duen arren, Euskadin ohikotzat har daiteke leku askotan eta ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Nahastezina da tamainagatik eta hegalen diseinuagatik. Espezierik antzekoena *Satyrus actaea* litzateke.

# *Pararge aegeria*

(Linnaeus, 1758)

Basozaina
*Ondulada*

**Deskribapena**: gainaldea marroi kolorekoa, makula laranja-koloreak, ozelo bat muturrean eta ozelo sorta bat atzeko hegalen gune postdiskalean. Azpialdeak kolorazio marroia du, trazu oso ahulekin atzeko hegaletan; ozeloek gainaldeko kokapen bera dute.

**Biologia**: hilabete beroetan ondoz ondoko hiru belaunaldi ditu. Helduak martxo-azaro bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: beldarrak zenbait genero belarkaraz elikatzen dira, *Carex, Agrostis, Avena, Arrhenatherum, Brachypodium, Calamagrostis, Dactylis, Deschampsia, Elytrigia, Festuca, Glyceria* eta *Holcus* adibidez.

**Habitata**: tximeleta hau beti tamaina bateko zuhaitz edo zuhaixken babesean aurkitzen da, horien itzalpean gordetzen baita. Ia edozein garaieratan ikus daiteke, nahiz eta hezetasun apur bat beharrezkoa duen.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa gehienean zehar, Asia Txiki eta Uraletaraino. Iberiar Penintsula eta Euskadi osoan zabaldurik dago.

**Kontserbazioa**: gure lurraldeko ropalozero ohikoenetako bat da. Ia edozein leku eta garaitan ikus daiteke. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Lasiommata megera*rekin nahasten erraza da. Beste ezaugarri batzuen artean, atzeko hegalen ertz uhindua eta azpialdeko diseinua ditu espezie honek bereizgarri, azken hori *L. megera*renak baino askoz xumeagoa izanik.

♂
androkonia
♀
ertz
uhinduna
apaindura
gutxiko
diseinua

# *Pyronia bathseba*

(Fabricius, 1793)

Sugar begihandia
*Lobito de banda blanca*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, orban androkonial iluna arretan. Ozeloak ageri ditu aurreko hegalen mutur azpiko gunean eta atzeko hegalen gune postdiskalean. Lehen hegal parearen azpialdea laranja kolorekoa da, ertz marroiarekin eta ozelo batekin mutur azpiko gunean. Atzeko hegalak marroi kolorekoak dira, ozelo sorta bat eta zerrenda zurixka postdiskal ongi zehaztu bat dutela.

**Biologia**: helduak uztail-abuztu bitartean ikus daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: badakigu *Brachypodium phoenicoides* eta *Poa trivialis* espezieak erabiltzen dituela, baina baliteke beste gramineo espezie asko onartzea.

**Habitata**: mediterranear eraginpeko guneetarako joera du eta bide zein eremu irekietan aurki dezakegu. 400-900 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula eta Frantziako hegoaldea. Euskadin, batez ere Arabako lurraldean ikus dezakegu. 1941ean Sukarrietan (Bizkaia) bildu zen alea Natura Zientzien Museo Nazionalean dago, nahiz eta etiketatze akats bat izan daitekeen. Gipuzkoako hegoaldean tximeleta hau egotea litekeena da.

**Kontserbazioa**: oso ohiko espeziea da Arabako lurraldean eta ez du inolako arriskurik. Gipuzkoako hegoaldean populazioak bilatzea oso interesgarria litzateke, baita Bizkaiko presentzia berrestea ere.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdean duen zerrenda zuriak genero honen gainerako espezieetatik bereizten du.

♀
zerrenda androkonial zabala
♂
ozelo beltzak, pupila zuridunak
banda zurixka bereizgarria
♂

# *Pyronia cecilia*

(Vallantin, 1894)

Sugar itsua
*Lobito listado*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa, ertz azpiko gunea iluna; arren aurreko hegaletan orban androkonial errektangularra. Azpialdea laranja kolorekoa da lehenengo hegal parean eta grisaxka bigarrenean. Aurreko hegalen muturrean pupila zuri bikoitzeko ozelo beltz bat erakusten du alde bietan.

**Biologia**: helduak uztail-irail bitartean aurki daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldar egoeran *Brachypodium, Poa* eta beste zenbait gramineo espeziez elikatzen da.

**Habitata**: espezie honek habitat mediterranear lehorretarako joera handia du, 400-900 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europako hegoaldea eta Asia Txikia. Iberiar Penintsula gehienean aurki dezakegu. Euskadin, Arabako lurraldean bakarrik ikus daiteke, eremu hori espeziearen Iberiar Penintsulako ipar mugetako bat delarik.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da Arabako hegoaldean, baina latitudean gora joan ahala, urrituz doa. Ez dago arriskuan; are gehiago, klima aldaketak onura egin liezaioke.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdearen itxura grisaxkagatik bereiz daiteke, genero bereko beste espezieek ez bezala, ozelorik ez baitu.

errauts
kolorekoa eta
ozelorik gabea
♀
androkonia
laukizuzena, laranja
koloreko nerbioduna
♀
♂

# *Pyronia tithonus*

(Linnaeus, 1771)

Sugar begitxikia
*Lobito jaspeado*

**Deskribapena**: azpialdea laranja kolorekoa, ertz azpiko gunea beltza. Arrek aurreko hegaletan orban androkonial bat dute, gutxi-asko triangeluarra; atzeko hegalen oinaldea ilunagoa da. Azpialdea laranja kolorekoa da aurreko hegaletan; marroi kolorea gune argiagoekin atzekoetan, beltzez inguraturiko ozelo zuri txiki batzuk dituela, bereizten zailak izan daitezkeenak. Bi aldeetako mutur azpiko gunean ozelo bana ageri du.

**Biologia**: helduek uztail-irail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrek askotariko gramineo eta ziperazeoak onar ditzakete. *Carex, Agrostis, Anthoxanthum, Brachypodium, Bromus, Dactylis, Elytrigia, Festuca, Lolium, Phleum* edo *Poa* generoak erabiltzen dituztela egiaztatu da.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Askotariko belardi inguruneak hartzen ditu, baita hiriguneetatik hurbil daudenak ere.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europako hegoaldea zein erdialdea, Asia Txikiraino. Iberiar Penintsula eta Euskadi osoan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: gure lurraldeko espezie ugarienetako bat da eta populazioen dentsitatea ere handia da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Generoko espezieen artean ohikoena da. Bereizten erraza da azpialdeari begiratzen badiogu: *P. bathsebak* ez bezala, ez du zerrenda zuririk eta, *P. ceciliak* ez bezala, ozelo txikiak ditu.

♀
androkonia
luzanga
♂
zerrenda horixka
irregularra
ozelo zuri txikiak,
ertz beltz ahulak
♂

# *Satyrus actaea*

(Esper, 1781)

Akerbeltza

*Sátiro negro*

**Deskribapena**: gainaldea beltza da arretan eta marroi iluna emeetan. Arrek gainaldean zein azpialdean pupila zuriko ozelo bat dute; emeek bi ozelo dituzte, mutur azpiko ozeloaren azpian bi makula zuri erakusten dituztela. Azpialdearen diseinua aldakorra da. Atzeko hegaletan orokorrean iluna da, gune argiagoekin; trazu beltzak ere ageri ditu, horzdunak askotan.

**Biologia**: helduak uztail, abuztu eta irailean aurki daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: orain arte beldarrak *Brachypodium, Stipa* eta *Festuca* generoez elikatzen ikusi dira. Hala ere, espezie gehiago onartzen dituela uste dugu.

**Habitata**: espezie honek mendialderako joera du, 600 metroko garaieratik 1000 metrotik gorako guneetaraino. Eremu ireki eta harritsuetan ikus daiteke, non helduek babesleku egokia aurkitzen duten.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Frantziako hegoaldea eta Italiako ipar-mendebaldea. Euskadin, Araban bakarrik aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: Arabako lurraldeko gune askotan ohikoa da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*S. actaea* espeziearen arrek ozelo bakarra dute aurreko hegalen gainaldean, *H. statilinus* espeziearen arrek ordea, bi dituzte. Horretaz gain, espezie hartatik bereizteko beste ezaugarri batzuk ditu: atzeko hegalen azpialdearen diseinua ez da inolaz ere horren ahul eta bihurria, sigi-sagako marrazkia du eta hegalen ertza ez da uhindua.


♀
bi puntu zuri
bi ozelo
♂
bi puntu zuri
♀
lerro horzduna
♂
ozelo bat

# *Aricia cramera*

(Eschscholtz, 1821)

Arretxoa
*Morena común*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja koloreko makula sorta bat duela ertz azpiko gune guztian zehar. Azpialdea marroi kolorekoa da, laranja koloreko lunula sorta berarekin eta zuriz inguraturiko makula beltz ugarirekin.

**Biologia**: urtean bi belaunaldi edo gehiago ditu. Helduak martxo-apiril edo irail-azaro bitartean ikus daitezke, klimatologiaren arabera.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Helianthemum* generoko zistazeoez eta *Erodium* eta Geranium generoko gramineoez elikatzen dira.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metro goragoko garaieraraino. Belardi mota guztietan ikus daiteke.

**Banaketa eremua**: Kanariar Uharteak, Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula, Balear Uharteak eta Sardinia. Europako gainerakoan eta Erdialdeko Asian *A. agestis* espezieak ordezkatzen du, zeina Kataluniako iparraldean ere ageri den. Euskadin, ohikoa da Arabako Errioxan; gainerako lurraldean urria da. Bizkaian ez da ia daturik argitaratu, nahiz eta zenbait kokalekutan badagoen.

**Kontserbazioa**: Euskadin ohiko espeziea da, nahiz eta latitudean gora joan ahala, urrituz doan. Tximeleta hau ez dago arriskuan, baina kostaldeko populazioen jarraipen bat egitea interesgarria litzateke, nahiko urria baita bertan.

## Nola ezagutu?

Genero honen espezieen artean, hegalen gainaldeko ertzean makula laranja-koloreak muturreraino iristen diren bakarra da.
Orban horiek oso zehazturik ageri dira. *Polyommatus* generoko emeek ez bezala, espezie honek ez du ezkata urdinik; horretaz gain, atzeko hegalen azpialdean bi puntu diskal ditu, bata bestetik oso hurbil daudenak, *Aricia* spp. espeziean berezkoa denez.

bi puntu elkarren ondoan
orban laranja-koloreak ertz guztian hegal muturreraino

# *Aricia montensis*

Verity, 1928

Arretxo lerroetena

*Morena serrana*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, ertz azpiko gunean laranja koloreko puntuak, aurreko hegalen muturrera iristen ez direnak. Azpialdea krema kolorekoa da, eta ertz azpiko gunean makula laranja-kolorez osaturiko lerroa du bi hegaletan, zuriz inguraturiko puntu beltzekin.

**Biologia**: espezie honetan helduek ekain-irail bitartean egiten dute hegan; bi belaunaldi urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Helianthemum* generoko landareez elikatzen dira.

**Habitata**: espezie honek mendialderako joera du; belardietan egiten du hegan, basoetatik hurbil. 600-900 metro bitarteko garaieran aurki dezakegu.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea eta Iberiar Penintsula. Gainerako Europan eta Asia Txikian *A. artaxerxes*ek ordezkatzen du. Oso zabaldua dago Arabako lurraldean. Gipuzkoan ez da hainbeste zabaldu eta oso urria da Bizkaian.

**Kontserbazioa**: Euskadi osoa kontuan harturik, ondo zabaldurik dagoela esan daiteke. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*A. cramerar*en antzekoa da, baina gainaldeko makula laranja-koloreak ez dira inoiz aurreko hegalen muturrera iristen.

orban laranja-koloreak ez dira hegal muturreraino iristen
bi puntu elkarren ondoan

# *Aricia morronensis*

Ribbe, 1910

Harkaitzetako arretxoa

*Morena española*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, apur bat irisatua, puntu beltz bat aurreko hegalen gelan eta makula txiki laranja-koloreak atzeko hegalen uzki aldean. Azpialdea marroi kolorekoa da, makula laranja-kolore ilara batekin hegalen ertzean eta zuriz inguraturiko puntu beltz askorekin.

**Biologia**: helduak uztail amaieran eta abuztuan aurki daitezke; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: *Erodium glandulosum* landarea, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan "bakan" moduan sailkatu dutena.

**Habitata**: mendialdeko kareharrizko harkaitzak, horietan hazten baita beharrezkoa duen landare elikagarria. 800 metrotik 1200 metro eta goragoko guneetaraino.

**Banaketa eremua**: Espainiako mendialde nagusiak eta bi kokaleku Pirinioetako ipar isurialdean. Euskadin, Arabako lurraldean aurki dezakegu oso leku jakinetan.

**Kontserbazioa**: espeziearen landare elikagarri bakarra Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartua dagoenez, tximeleta honek arreta maila berdina jaso beharko luke eta autonomia mailan babestu beharko litzateke.

## Nola ezagutu?

Generoko beste espezieek ez bezala, gainaldeko makula laranja-koloreak atzeko hegalen uzki aldean biltzen dira, eta ez dira aurrekoetan agertzen. Azpialdeko puntu beltzak zehaztuagoak ditu.


puntu beltz oso garatuak eta garbiak
bi puntu elkarren ondoan
puntu oso nabarmena eta zuriz inguratua
laranja koloreko orbanik ez
orbanak uzki aldean soilik

# *Cacyreus marshalli*

Butler, 1898

Geranio-tximeleta
*Taladro del geranio*

**Deskribapena**: gainaldea marroi ilun kolorekoa. Azpialdean tigre itxura ematen dizkioten zerrenda marroi eta zuriak erakusten ditu. Atzeko hegaletako bakoitzean ezkata urdineko ozelo beltz bat eta isats-luzakin bat ageri ditu uzki aldean.

**Biologia**: maiatz-azaro bitartean ikusi ohi da; hainbat belaunaldi izan ditzake urtean.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak landatutako geranioen (*Pelargonium* spp.) zurtoinen barnealdeaz elikatzen dira eta, geroago, horien hostoez.

**Habitata**: edozein hirigunetatik hurbil ager daiteke, itsas mailatik gora.

**Banaketa eremua**: espezie hau nahi gabe sartu zen Hegoafrikatik, geranioen inportazioaren eraginez. Iberiar Penintsula osoan, Kanariar Uharteetan eta klima egokia duten Mediterraneoko eskualdeetan aurki daiteke 1978-1989 urteetatik aurrera. Euskadin 1997tik aurrera ikusi da.

**Kontserbazioa**: bizkaiko lehenengo datuak orain dela gutxi argitaratu dira. Hala ere, gure lurraldean duela nahiko dagoela badakigu. Espezie inbaditzailea bada ere, ez dirudi bertako ekosistemei kalte egiten dienik, haren larbak geranio apaingarriz soilik elikatzen baitira.

## Nola ezagutu?

Espezie hau ezagutzen oso erraza da.
*Lampides boeticus* eta *Leptotes pirithous* espezieen antza du, baina horiek isats-luzakinak eta ozelo bakarra badituzten ere, diseinu orokorra desberdina da.

# *Callophrys avis*

Chapman, 1909

Gurbitzetako esmeralda

*Cejirrubia*

**Deskribapena**: gainaldea marroi iluna, marka androkonial ilunagoak arren aurreko hegaletan. Azpialdea berde kolorekoa da, marra zuri mehe batekin.

**Biologia**: helduak udaberrian agertzen dira apiril-maiatz bitartean; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: gure lurraldean beldarrak gurbitzaz (*Arbutus unedo*) besterik ez dira elikatzen.

**Habitata**: mediterranear landaredia duten kareharrizko mendialdeak. 500-800 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsulako zenbait eskualde, Frantziako hegoaldea eta Italiako ipar-mendebaldea. Euskadin, Arabako erdialde zein hego-mendebaldeko gune zehatzetara mugatzen da.

**Kontserbazioa**: banaketa guztiz mugatuko espeziea da Euskadin eta horren populazio gutxi ezagutzen dira. Hori dela eta, egokia litzateke autonomia mailako lege-babesa edo haren habitataren babesa aintzat hartzea.

## Nola ezagutu?

*C. rubiren oso antzekoa da. Begien inguruko ezkaten kolorazioak bereizten ditu. Espezie honen kasuan kolorazio hori gorrixka da.*

♀
ezkata gorrixkak begien gainean eta inguruan
♀
androkoniarik gabeko emeak
♂

# *Callophrys rubi*

(Linnaeus, 1758)

Esmeralda
*Cejiblanca*

**Deskribapena**: gainaldea marroi ilun kolorekoa, orban androkonial bat arren hegalen ertzeko kostan. Azpialdea berde kolorekoa da, marra zuri eten bat duela atzeko hegaletan.

**Biologia**: garaieraren arabera, hegan egiteko garaia desberdina da; martxo-uztail bitartean, eskualdearen arabera.

**Landare elikagarriak**: beldarrek askotariko landareak onartzen dituzte: zistazeoak, erikazeoak eta fabazeoak gehienbat.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik gorako guneetaraino. Plastikotasun ekologiko handiko espeziea da eta askotariko inguruneetan aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik eta Europa osotik, Ekialde Hurbila, Errusia, Siberia eta Amur-ko eskualderaino. Euskadin edozein tokitan aurki daiteke, nahiz eta urriagoa den Gipuzkoan eta Bizkaian.

**Kontserbazioa**: ohiko tximeleta da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*C. avisen oso antzekoa da, baina gure kasuan begien inguruko ezkatak zuriak dira. Ezaugarri hori oso nabarmena denez, nahastezina egiten du.*

ezkata grisak
buruan eta zuriak
begien inguruan
♂
♂
androkonia
♀
androkoniarik
gabeko emeak
♂

# *Celastrina argiolus*

(Linnaeus, 1758)

*Kupido nagusia*
*Náyade*

**Deskribapena**: gainaldea urdina, ertz azpiko gunea iluna emeetan. Azpialdea oso argia, halako tonu urdinxka batez tindatua; zenbait puntu beltz ageri ditu, aurreko hegaletan marra itxura hartzen dutenak.

**Biologia**: helduak martxo-irail ikus bitartean daitezke ondoz ondoko bizpahiru belaunalditan.

**Landare elikagarriak**: beldarrek askotariko landareak onartzen dituzte, hala nola laharra, gorostia, huntza, lupulua, *Cornus sanguinea, Evonymus, Calluna, Coluthea* edo *Vaccinium* spp.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik beherako kotetaraino aurkitu ohi da. Zuhaixka edo zuhaiztun guneetarako joera du.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea eta Europa osoa, Asiako alde epelak, Japoniaraino. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztian aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da, moldagarritasun handikoa. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Espezie guztiz bereizterraza da hegalen diseinu xumea dela eta. Ezagutu ahal izateko, aurreko hegalen azpialdeko makula beltzetan arreta jartzea lagungarria da, horiek luzangak baititu, biribilkarak dituzten beste hainbat espezietan ez bezala.

marka beltz
luzangak
♂
marka beltz
luzangak

# *Cupido argiades*

(Pallas, 1771)

Duende naranjitas

*Kupido tantagorria*

**Deskribapena**: arrek urdina dute gainaldea. Emeak ilunak dira, tonu urdina ageri dutela hegalen zati handi batean; ozelo txiki batzuk eta laranja koloreko marka txiki batzuk atzeko hegalen uzki aldean. Bi-bien azpialdea tonu urdin-zurixkakoa da eta azal guztian makula beltzak ditu; uzki aldean, laranja koloreko bi orban. Gainera, bi isats-luzakin ditu.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean. Helduak apiril-irail bitartean aurkitzen dira.

**Landare elikagarriak**: Euskadin txilar burusoilaz (*Erica vagans*) elikatzen direla egiaztatu da, baina era berean litekeena da Lotus, Melilotus edo Trifolium bezalako lekadunak onartzea.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Belardietako berezko tximeleta dugu, batez ere hezetasun apur bat dutenetan.

**Banaketa eremua**: Espainiako iparraldetik, Europako gehienean eta Asia epelean zehar, Japoniaraino. Hiru euskal lurraldeetako hedadura osoan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: oso ohiko espeziea da belardi mota guztietan; hortaz, itxuraz, ez dago arriskuan. Dena den, oso litekeena da larreen ustiakuntza areagotzearekin zerikusia duten jarduerek tximeleta honen garapena eragoztea.

## Nola ezagutu?

Tamainari dagokionez, beste *Cupido* sp. batzuen antzekoa da, baina aise bereizten da atzeko hegalen azpialdeko uzki aldean dauzkan makula laranja-koloreengatik. Batzuetan makula horiek txikiak badira ere, ikusgai dira beti.

♂
♀
2-3 orban
laranja-koloreak

# *Cupido minimus*

(Fuessli, 1775)

Kupido iluna

*Duende menor*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, hala arretan nola emeetan, nahiz arretan ezkata urdin batzuk agertzen diren. Azpialdea zuri urdinxka da eta makula beltzak ditu.

**Biologia**: helduek maiatz-abuztu bitartean egiten dute hegan, urteko belaunaldi bakarrean, nahiz bigarren belaunaldi partzial bat ager daitekeen.

**Landare elikagarriak**: larba egoeran batez ere *Anthyllis vulneraria* lekadunaz elikatzen da, beste lekadun batzuen artean, hala nola *Astragalus, Colutea, Coronilla, Onobrychis* eta *Oxytropis*.

**Habitata**: mendi ertaineko belardietan aurkitzen da, normalean 300-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: iberiar Penintsulatik, Europa osoan eta Asia epelean zehar, Siberiaraino. Euskadiri dagokionez, Araban ongi banaturik dago eta Bizkaian zein Gipuzkoan bakanago agertzen da.

**Kontserbazioa**: ugaria ez bada ere, zabal banaturik dago gure lurraldean. Bizkaian populazio kopuru gutxiena aurkitu da eta, ondorioz, tximeleta honen kontserbazioa lehentasunezkoa izango litzateke eskualde horretan.

## Nola ezagutu?

Emeak *C. Osiris*enekin nahas daitezke; hala ere, *C. minimus*enak txikiagoak dira eta ezkata urdinxka gutxiago dute hegalen azpialdeko oinaldean. Gainera, puntu txiki bat ageri dute atzeko hegalen azpialdeko uzki aldean.

puntu beltz
txikia uzki
aldean
♂
ezkata
urdinak
♀

# *Cupido osiris*

(Meigen, 1829)

Kupido urdina

*Duende mayor*

**Deskribapena**: gainaldea urdinxka arretan eta ilunagoa emeetan. Azpialdea urdin-grisaxka da.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek maiatz-uztail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Onobrychis* (Fabaceae) generoko landareez elikatzen dira.

**Habitata**: 300 metroko garaieratik, 1000 metrotik beherako kotetaraino. Belardi hezeetarako eta baso soilguneetarako joera du.

**Banaketa eremua**: iberiar Penintsulatik, Europako hegoaldean eta Asia Txikian zehar, Erdialdeko Asiaraino. Euskadin, hiru lurraldeetan erregistratu da, nahiz oso urria den Bizkaian eta Gipuzkoan.

**Kontserbazioa**: ohiko espeziea da Euskadiko hegoalde guztian, nahiz Kantauri aldeko bi lurraldeetan kasik ez dagoen. Eskualde horietan ager litekeen edozein populazio berrik arreta berezia eta babesa bildu beharko luke.

## Nola ezagutu?

*C. minimusen* antzekoa da, nahiz tamaina handiagokoa. Arrak ezin dira nahasi, gainaldea urdina baitute. Espezie honen emeen azpialdeko oinaldea urdinagoa da eta ez dute *C. minimusen* hain bereizgarri den uzki aldeko puntu txiki hori.

urdinxka
♀
♂
♀

# *Cyaniris semiargus*

(Rottemburg, 1775)

Urdiniluna
*Semiargus*

**Deskribapena**: gainaldea urdinxka arretan eta iluna emeetan. Azpialdea grisaxka da puntu beltzekin, eta hegalen oinaldea urdinxka.

**Biologia**: belaunaldi bakarra ekain-uztail bitartean.

**Landare elikagarriak**: *Trifolium pratense, Armeria velutina, Anthyllis vulneraria, Onobrychis viciifolia* eta genero beretako beste lekadun batzuk.

**Habitata**: 300-900 metro bitarteko garaieran, belardi heze eta loredunetan.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa osoan eta Asia epelean zehar, Mongoliaraino. Euskadiri dagokionez, Araban ongi banaturik dago. Bizkaian erregistro bakarra dugu, 1898koa, "Bilbo ingurukoa", berretsi beharrekoa.

**Kontserbazioa**: hegoaldean ohikoa da, baina kantauriar zerrendan oso bakana da edo ez dago batere. Bizkaian edo Gipuzkoan ager litezkeen populazioek babesa mereziko lukete.

## Nola ezagutu?

*Glaucopsyche alexisen* antzekoa da. Azpialdeko puntuak aurreko eta atzeko hegaletan tamaina berdinekoak izatea du bereizgarri. *Cupido osiris* baino handiagoa da. Arrak *Phengaris alcon*enekin nahas daitezke, baina txikiagoak dira eta hegalen azpialdeko marrazkia harena baino askoz ahulagoa da.

lodiera bereko
puntuak bi hegaletan
puntuak kurba oso
nabarmenean
♂
♂

# *Favonius quercus*

(Linnaeus, 1758)

Haritz-zafiroa

*Nazarena*

**Deskribapena**: arren gainaldeak iridiszentzia urdinxka du. Emeak ilunak dira eta ageri duten marrazki urdinxka biziagoa da eta aurreko hegalen erdia baino gutxiago hartzen du. Azpialdea grisaxka da, zeharkako marra zuri bat eta laranja koloreko bi orban txikia ageri dituela uzki aldean, isats-luzakinen ondoan.

**Biologia**: belaunaldi bakarrekoa, baina ekain-uztailetik irailera arte hedatzen dena.

**Landare elikagarriak**: *Quercus* generoko edozein espezie (haritza, artea eta artelatza). Gure eskualdean ez dugu abaritzaren (*Q. coccifera)* erabilera berretsi, nahiz hori Sierra Nevada (Granada) bezalako lekuetan ikusi ahal izan den.

**Habitata**: kostaldetik 1000 metrotik gorako garaieraraino. Quercus generoko zuhaitzen baso edo formazioen inguruan beti.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europa gehiena, Asia Txikia, Errusiako hegoaldea eta Kaukasoa. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: hegoaldean ohikoa eta iparraldean gaur egun ezagutzen dena baino ohikoagoa izango da seguruenik, hautemateko zaila baita. Horren banaketaren ezaugarriak hobeto ezagutu beharra dago, benetako kontserbazio egoera jakin ahal izateko.

## Nola ezagutu?

Espezie nahastezina da, are hegan doala ere, garatzen den zuhaitzen adaburuen inguruan ikus daiteke eta.

# *Glaucopsyche alexis*

(Poda, 1761)

Arimazuria
*Alexis*

**Deskribapena**: gainaldea urdina, hegalen ertza beltza, askoz garatuagoa emeetan. Azpialdea grisaxka da, puntu beltzekin; hegalen oinaldea urdinxka du.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduek apiril-uztail bitartean egiten dute hegan.

**Landare elikagarriak**: lekadun ugariz elikatzen da. Besteak beste, *Adenocarpus, Hedysarum, Medicago, Genista* edo *Onobrychis* generokoetako landareak.

**Habitata**: kostaldetik hurbil dauden lekuetatik, baina 300 metrotik gora, 1000 metroko garaieraraino. Berezkoa da sastrakadun belardietan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europa gehienean zehar, Fennoskandia eta Siberiaraino. Euskadiri dagokionez, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian aurkitzen dugu. Azken horretan guztiz urria da.

**Kontserbazioa**: ez dago arriskuan, banaketa zabala duelako, nahiz askoz eskasagoa den kantauriar zerrendan.

## Nola ezagutu?

Aurreko hegalen azpialdeko puntu beltzak atzealdekoak baino handiagoak izateak bereizten ditu genero honetako espezieak gainerakoetatik. *G. alexisen*, hegalen azpialdeko ertza garbi dago; *G. melanopsek*, ordea, marrazki lauso bat ageri du. Gainera, ezkata urdinxka gehiago ditu atzeko hegalen azpialdeko oinaldean.

♂
♀
tamaina handiagoko puntuak aurreko hegaletan atzekoetan baino
♂
urdinxka
♀

# *Glaucopsyche melanops*

(Boisduval 1828)

Gandu-arimazuria

*Melanops*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan, ertz gunea beltza. Emeak ilunagoak dira, hegalak ere ezkata urdinez estaliak dituzte, baina neurri apalagoan. Azpialdea grisaxka, makula beltzekin; ertz gunean marrazki lauso bat du.

**Biologia**: helduak apiril-ekain bitartean ikus daitezke belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: Beldarrak batez ere *Dorycnium pentaphyllum*en gainean bizi dira.

**Habitata**: sastraka nagusi den ingurune ia beti lehorretan aurkitzen da, baita mediterranear basoko ertzetan eta soilguneetan ere, 400-900 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula, Frantziako hegoaldea eta Italiako ipar-mendebaldea. Euskadiko erregistroak soilik Arabako lurraldeari dagozkio, Eskoriatzako (Gipuzkoa) bat izan ezik.

**Kontserbazioa**: horren banaketa hegoaldera mugatua bada ere, ohikoa da Arabako zenbait gunetan. Gure iritziz ez dago arriskuan. Interes berezia izango luke Gipuzkoako Eskoriatzako populazio horren presentzia berrestea. Toki horretako alea 1976ko ekainaren 5ean harrapatu zuten 700 metroko garaieran eta Aranzadi Zientzia Elkarteko bilduman gorderik dago.

## Nola ezagutu?

Erraza da genero honi atxikitzea, aurreko hegalen azpialdeko makula beltzen tamaina atzekoena baino handiagoa delako. *G. alexisek* ez bezala, marrazki lauso bat du hegalen azpialdeko ertz gunean.

♀
♂
tamaina handiagoko puntuak aurreko hegaletan atzekoetan baino
♀
marrazki ahula hegalen ertzean

# *Laeosopis roboris*

(Esper, 1793)

Lizar-zafiroa

*Moradilla del fresno*

**Deskribapena**: gainaldea iluna; hegalen zati handi bat urdin kolorez pigmentatua, neurri apalagoan emeetan. Azpialdea grisaxka da eta ertz gunea guztiz apaindua du, makula laranja-koloreak, beltzak eta urdinxkak ageri dituela.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: lizarra (*Fraxinus* spp.) eta gartxua (*Phillyrea* spp.), oleazeoak biak.

**Habitata**: bere landare elikagarriz hornituriko basoalde hezeetarako joera du. 1000 metrotik beherako edozein garaieratan agertzen da.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula eta Frantziako hegoaldea. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen da, nahiz Gipuzkoan urrixeagoa bide den.

**Kontserbazioa**: Gure lurraldean ongi banaturiko espeziea da, ugaria leku jakin batzuetan. Ez dago arriskuan.



Nola ezagutu?

Haren diseinuak ezaguterraza egiten du.

♂
♀
triangelu laranja-koloreak, muturra zuria eta beltza
♀

# *Lampides boeticus*

(Linnaeus, 1767)

Estriada canela

*Leka-izartxo nagusia*

**Deskribapena**: gainaldea urdina, hegalen ertza iluna eta ozelo batzuk uzki aldean. Azpialdea marroi kolorekoa, marra zuriak eta marka laranja-kolore bat uzki muturreko ozeloen ondoan. Atzeko hegaletan isats-luzakin batzuk ageri ditu.

**Biologia**: belaunaldi ugari ditu hilabete bero guztietan. Euskadin, ale batzuek negua gainditzen dute. Helduak martxoko lehen astetik aurrera ikus daitezke, modu bereziki ugarian uztail-abuztu bitartean.

**Landare elikagarriak**: era guztietako lekadunak, basatiak zein baratzekoak, hala nola ilarra. Euskadin *Ulex europaeus* da gehien baliatuetako bat. Larba leken barneko haziez elikatzen da, edo infloreszentziez txikiegiak direnean.

**Habitata**: itsas mailatik garaiera handieneko gailurretaraino, horietara hill-topping jokabidea erabiliz iristen direla. Habitat mota guztietan aurkitzen da, nahiz otea nagusi den eremuetan bereziki ugaria izan.

**Banaketa eremua**: munduan zehar banatua, salbu eta amerikar kontinentean eta latitude hotzegietan. Iberiar Penintsula guztian bizi da, baita Euskadi osoan ere.

**Kontserbazioa**: ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Leptotes pirithousen antzekoa da. Dena den, hark ez bezala, azpialdeko marra zuri guztiak norabide berean doaz eta haietako batek trazu lodiago bat markatzen du ertz azpiko gunean.*


bi orban
beltz atzeko
hegaletan
lerro zuriek norabide
berari jarraitzen diote
♂
♂
bi orban
beltz atzeko
hegaletan
zerrenda zuri
bereizgarria
♂

# *Leptotes pirithous*

(Linnaeus, 1767)

Estriada gris

*Leka-izartxo txikia*

**Deskribapena**: arraren gainaldea urdinxka; emearena, aldiz, iluna, hegalen oinaldean gune urdinxka bat duela. Azpialdea marroia da, zuri koloreko trazu biribildu ugarirekin. Uzki aldean ozelo laranja-kolore, beltz eta urdinak ageri ditu, isats-luzakin txiki batzuen ondoan.

**Biologia**: espezie tropikala da eta a priori ez du negua jasaten; beraz, urtero birkolonizatzen du lurraldea, hegoaldeko eremuetatik abiatuz. Helduak maiatz-azaro bitartean aurki daitezke. Udazkenean ugariago izaten da.

**Landare elikagarriak**: beldarrek erabiltzen duten landare desberdin ugari dokumentatu da. Besteak beste, lupulua, intsusa, *Calluna vulgaris, Erica, Adenocarpus, Dorycnium, Lotus, Medicago, Sophora* spp., etab.

**Habitata**: euskadin itsas mailatik 900 metroetaraino aurkitzen da. Ingurune mota guztietan agertzen da, are hiri ingurunean ere.

**Banaketa eremua**: Afrikatik datorren migratzaile gisa ageri da Europako mediterranear ingurunean; izan ere, Afrikan oso ugaria da. Era berean, Asia Txikian eta Ekialde Hurbilean aurki daiteke. Iberiar Penintsula guztian dago eta Euskadiko edozein tokitan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Lampides boeticusen antzekoa da, baina horretan ez bezala, azpialdeko trazu zuriak ez doaz norabide garbi batean eta marrazki ondulatuak itxuratzen dituzte; gainera, ez du marra zuri lodiagorik agertzen.*

♂
lerro zuriek obaloak eratzen dituzte, ez diote norabide berari jarraitzen

# *Lycaena alciphron*

(Rottemburg, 1775)

Gorringo menditarra

*Manto púrpura*

**Deskribapena**: gainaldea laranja kolorekoa makula beltzekin, iridiszentzia urdina arretan. Azpialdea okrea, zerrenda laranja-kolore bat ageri du atzeko hegalaren ertz azpiko gunean.

**Biologia**: helduak ekain, uztail eta abuztuan aurkitzen dira. Belaunaldi bakarra dute urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Rumex* generoko landareen hostoez elikatzen dira, hala nola *R. acetosa* eta *R. acetosella*.

**Habitata**: 600 metroko garaietatik 1000 metrotik goragokoetaraino. Mendiko espeziea da eta ohikoa da kota garaietan ugariago ikustea.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europa gehienean zehar, Errusia, Asia Txiki eta Iraneraino. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen dugu. Bizkaiko erregistro bakarra 1898koa da, "Bilbo inguruan" aurkitua. Gainera, duela gutxi Ordunteko mendilerroan begiztatu da.

**Kontserbazioa**: urria eta Araban kokatua, eta are askoz urriagoa beste bi lurraldeetan. Hala eta guztiz, ez da arriskuan egongo seguruenik. Haren Bizkaiko habitata babestea garrantzitsua izan daiteke, itxuraz, Ordunteko mendilerroa interes bereziko kokalekua baita lurralde esparruan.

## Nola ezagutu?

Generoko beste espezi batzuen oso antzekoa da, baina azpialdearen diseinua du bereizgarri. Gainera, arra guztiz ezaguterraza da haren iridiszentzia urdina dela eta; emea beste espezieena baino argiagoa da.

more koloreko marrazkiak eta distira
torax urdina
♂
♀
puntu beltzak L. virgaureaerenak baino meheagoak
puntu-ilara L. hippothoerena baino irregularragoa
♂
♀

# *Lycaena hippothoe*

(Linnaeus, 1761)

Urbegietako gorringoa

*Manto cobrizo*

**Deskribapena**: gainaldea laranja-kolorea arretan, atzeko hegalen erdia iluna eta iridiszentzia urdina. Emeen aurreko hegalak laranja kolorekoak dira, makula beltzekin, eta atzekoak ilunak laranja tonuko ertz azpiko zerrenda batekin. Azpialdea grisaxka-laranja kolorea da, makula beltzak eta laranja koloreko orban txiki batzuk uzki aldean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean, ekain-uztail bitartean hegan egiten duena.

**Landare elikagarriak**: gure ingurunean *Rumex acetosa* da ezagutzen den landare elikagarri bakarra.

**Habitata**: gure eskualdean, 850 eta 1110 metroko garaieran aurkitu dira. Belardi hezeekin eta are urez beterikoekin loturik ageri da.

**Banaketa eremua**: Espainiako iparraldetik eta Europa gehienetik Asiako ekialderaino. Euskadin, bi populazio besterik ez da ezagutzen, bi-biak Araban. Bat Albertia mendian, Arlaban mendatean (Elgera mendilerroan oker kokatutakoa) eta beste bat Herrera mendatean duela urte gutxi aurkitua.

**Kontserbazioa**: behar-beharrezkoa da Euskadiko populazioak babestea, kontuan izanik horien banaketa mugatua. Herrera mendateko populazioen habitatak etengabeko aldaketak jasan ditu. Gaur egun Albertia mendiko populazioa existitzen den berretsi behar da eta haren kokapen zehatza aurkitu, ez baitago datu zehatzik ezta bilduma publikoetan alerik gorde ere.

## Nola ezagutu?

Arraren gainaldea *L. virgaureae*ren antzekoa da, baina atzeko hegalen erdia iluna du, eta iridiszentzia urdina, horrek ez bezala. Azpialdea *L. alciphron*en antzekoa da, baina atzeko hegalen azpialdeko lunula laranja-koloreak askoz tamaina txikiagokoak dira.

puntu-ilara *L. alciphronena*
baino erregularragoa
♀
♂
♂
isla urdineko
gune iluna
♀

# *Lycaena phlaeas*

(Linnaeus, 1761)

Gorringo arrunta

*Manto común*

**Deskribapena**: tamaina txikikoa. Aurreko hegalak laranja-kolorekoak makula beltzekin, eta ertza grisaxka. *Eleus* formari dagozkionak ilunagoak dira. Atzekoak grisak dira, salbu eta ertz azpiko gunean, laranja koloreko zerrenda bat ageri duena, zenbaitetan puntu urdin txiki batzuekin (*caeruleopunctata* f.). Azpialdea tonu grisekoa da atzekoetan, eta laranja kolorekoa aurrekoetan. Uzki muturrean isats-luzakin txikiak ditu.

**Biologia**: martxotik urrira bitartean aurki dezakegu, denbora horretan bata bestearen ondotik agertzen diren belaunaldi batzuetan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak mingarratz (*Rumex* spp.) espezie batzuez elikatzen dira.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik gorako garaieraraino. Belardi mota guztiak eta are laborantza lurrak eta hiri ingurukoak ere.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldetik, Europa osoan eta Asia epelean zehar, Japonia eta Ipar Amerikaraino. Euskadin, hiru euskal lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: ugaria ez izan arren, oso tximeleta ohikoa da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Lycaena* ohikoena da eta atzeko hegaletan isats txikiak agertzen dituen bakarra Euskadin.

isats txikiak
♂
arra, *eleus* forma
oso kontraste gutxiko diseinua
♂
♂
♀
orban urdin txikiak *caeruleopunctata* forman

# *Lycaena tityrus*

(Poda, 1761)

Gorringo iluna

*Manto oscuro*

**Deskribapena**: gainaldea iluna arretan, batzuetan laranja koloreko lunulak ertzean. Emeen aurreko hegalek laranja koloreko tonuak dituzte; atzeko hegalak ilunak, puntu beltzekin, eta laranja koloreko ertza. Azpialdea gris horixka, puntu beltzekin, eta laranja koloreko orbanak ertz azpiko gunean.

**Biologia**: bi belaunaldi ditu, bata udaberrikoa eta udakoa bestea. Hortaz, helduak apiril-irail bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: larba egoeran hainbat mingarratz espezie dute elikagai, hala nola *Rumex acetosa, R. acetosella, R. arifolius* eta *R. scutatus*.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metro inguruko garaiera duten kotetaraino. Belardi hezeak eta baso soilguneak berezko habitatak ditu.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, Europako zati handienean zehar, Asia Txiki, Siberia eta Altai mendietaraino. Euskadiko hiru lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: espezie urria dugu, nahiz ongi banatua gure eskualdean. Gure iritziz, ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Arrek gainaldea iluna duten *Lycaena* bakarra da. Emeen gainaldea *L. hippothoeren* antzekoa da, nahiz ertz azpiko makula beltzak askoz garatuagoak dauden.

krema koloreko azpialdea
♀
krema koloreko azpialdea
♂
♀
♂

# *Lycaena virgaureae*

(Linnaeus, 1758)

Urrezko gorringoa

*Manto de oro*

**Deskribapena**: arretan gainaldea laranja-kolore distiratsua da, ertzak beltzak, eta hiru puntu txiki aurreko hegalaren ertz azpiko gunean, miegii subespeziean berezkoak direnak. Emeen gainaldea margulagoa da, orban beltz ugarirekin. Bi-bien azpialdea laranja kolorekoa da, ilunagoa emeetan, makula beltzak, baita zuriak ere atzekoetan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak uztail-abuztu bitartean agertzen dira.

**Landare elikagarriak**: *Rumex acetosa* eta *R. acetosella* dira tximeleta honentzat dokumentatu diren landare elikagarriak, nahiz, seguruenik, beste batzuk erabiliko dituen.

**Habitata**: hosto erorkorreko basoetako bide bazterrak eta mugak, baita ibaiertzetan ere, batez ere 700-950 metro inguruko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europa osoan eta Asia Txikian zehar, Asiako erdialde, Siberia eta Mongoliaraino. Euskadin, Arabako ekialdeko eremuan ezagutzen da soilik.

**Kontserbazioa**: tximeleta oso urria eta kokaleku mugatuetakoa; hortaz, autonomia mailan babes neurriak hartzea egokia izango litzateke.

## Nola ezagutu?

Bai arraren gainaldea, bai bi-bien azpialdea guztiz bereizgarriak dira eta ez dute sailkatzeko arazorik ematen. Emearen gainaldea *L. alciphron*enaren oso antzekoa da.

♂
♀
orban
zuriak

# *Phengaris alcon*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Gentzianetako inurrijalea

*Hormiguera de las gencianas*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan, ertz gunea beltza. Ilunagoa emeetan, gune urdina hedadura murritzagokoa. Horrek orban beltzezko marrazki lauso bat ere izaten du, "katu oinatzen" itxurakoa. Azpialdea marroi grisaxka, makula beltzekin, eta gutxi garaturiko marrazki bat ertz azpian.

**Biologia**: helduek uda amaieran egiten dute hegan, uztail-abuztu bitartean, urteko belaunaldi bakarrean. Larba egoeran Myrmica generoko inurriek zaintzen dituzte inurritegien barnean.

**Landare elikagarriak**: *Gentiana pneumonanthe* soil-soilik.

**Habitata**: guztiz berezkoak dira Atlantikoko txilardi-otadi-iralekua nagusi diren guneetan. Kolonia guztiak kostaldean daude, itsas mailatik 350 metroko garaieraraino, gutxi gorabehera.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, Europako erdialde eta hegoalde gehienean zehar, Asia epel eta Siberiaraino. Euskadiri dagokionez, Gipuzkoan bakarrik ezagutzen da tximeleta honen presentzia. Oso litekeena da Bizkaian ere egotea.

**Kontserbazioa**: tximeleta guztiz ahula dugu eta, haren populazioen iraupena bermatuko badugu, estrategia aktiboa behar du. Aldaketa jakin batzuk, hala nola abeltzaintzaren areagotzea edo abeltzaintza tradizionala alde batera uztea, mehatxu handiak dira espeziearentzat. Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan sartu beharra dago.

## Nola ezagutu?

Emeak erraz ezagutzen dira gainaldean duten "katu oinatz" itxurako marrazkiagatik.

Gainera, *P.arion*enak baino askoz ilunagoak dira. Arrak *Cyaniris semiargusen* antzekoak dira, nahiz tamaina handiagokoak diren eta marrazki bat duten hegalen azpialdeko ertzean, lausoagoa hartan.

makula beltz ahulak
emeetan, arrek ez dute
♀
♂

# *Phengaris arion*

(Linnaeus, 1758)

Oreganoetako inurrijalea

*Hormiguera de lunares*

**Deskribapena**: gainaldea urdinxka, ertz beltzak eta makula zirkular beltzak atzeko hegalen ertz azpiko gunean. Aurrekoetan "katu oinatz" itxurako marrazki bat ageri du arretan zein emeetan. Azpialdea grisaxka da, makula beltzekin, eta urdinxka da torax ondoko gunean.

**Biologia**: ekainaren amaieratik abuztuko lehen astera bitartean egiten du hegan, batez ere uztailean. Beldarrak Myrmica generoko inurritegien barnean bizi dira.

**Landare elikagarriak**: oreganoa (*Origanum vulgare*) eta ezkai (*Thymus* spp.) espezie batzuk, nahiz gure lurraldean populazio guztiak bietako lehenengoaz baliatzen bide diren.

**Habitata**: itsas mailatik mendi ertaineko guneetara, 900 metro inguruko garaieraraino. Landare elikagarria hazten den belardi eta baso soilguneekin estu loturik ageri da.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, Europako zati handian zehar, Ekialde Urruneraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen da.

**Kontserbazioa**: bernako Hitzarmenean eta Habitatak Zuzentarauan sarturik dago. "Arriskuan" (EN) sailkatua ageri da "Europako Tximeleten Liburu Gorrian". Jasoa dago "Listado de Especies Silvestres en Régimen de Protección Especial y Catálogo Español de Especies Amenazadas" zerrendan. Abeltzaintza estentsiboa behera egin duenez, bizileku zuen belardi asko desagertu dira eta tximeleta honen atzerakada gertatu da. Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartu beharko litzateke.

## Nola ezagutu?

Gainerako edozeinetatik bereizten da "katu oinatz" itxurako marrazki garbiagatik, gainaldeko aurreko hegaletan ageri duena. Espeziek askok dute marrazki hori azpialdean, baina genero honetakoak dira hegalen barnealdean duten bakarrak.

"katu aztarna" itxurako makula beltzak gainaldean, arretan zein emeetan

# *Plebejus argus*

(Linnaeus, 1758)

Bitxiurdin ezproiduna

*Esmaltada espinosa*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan, ertza beltza. Emeak ilunak, makula laranja-koloreak ertz azpiko gunean. Azpialdea gris-urdina da makula beltzekin; ertz azpiko gunean laranja-koloreko lunula ilara bat du, ezkata urdin metalizatu koloreko ozeloekin batera.

**Biologia**: mirmekofiloa ezinbestean. Beldarrak Lasius generoko inurrien inurritegietan bizi dira. Helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan urteko belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: zistazeo, erikazeo eta lekadun espezie ugariz elikatzen da, hala nola *Cistus, Halimium, Lotus, Genista, Cytisus, Calluna, Erica* spp. etab

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik gorako garaieraraino, sastrakadun belardietan eta gune irekietan.

**Banaketa eremua**: espezie honen populazioak Iberiar Penintsulako hegoaldetik Japoniaraino banaturik daude. Euskadiko hiru lurraldeetan aski hedaturik dago.

**Kontserbazioa**: ohiko espezie da, eta oso ugaria leku jakin batzuetan. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdeko ertz urdin metalikoak bereizten du genero hau beste lizenido batzuetatik. *P. idasek* ez bezala, arrek ezten bat dute lehenengo zango pareko tibian. Xehetasun bat ikusi ahal izateko sakelako mikroskopio bat edo hurbilketa handiko argazki kamera bat behar da. Espezie hau bietan ohikoena da, nahiz biak koexistitu ohi diren.

♂
makula
metalizatuak
♀
♂
♂
eztena,
arraren lehen
zango pareko
tibian

# *Plebejus idas*

(Linnaeus, 1761)

Bitxiurdin ezproigabea

*Esmaltada sencilla*

**Deskribapena**: gainalde urdina arretan, ertz azpiko gunea beltza. Emeak ilunak, ertzean laranja koloreko makulak dituztela. Azpialdea argia da, urdinago arretan, makula beltzak. Ertz azpiko gunean lunula laranja-koloreak agertzen dira, eta ozelo urdinak atzeko hegaletan.

**Biologia**: Helduak ekain-abuztu bitartean ikus daitezke. Urteko belaunaldi bakarra dute. Beldarra *Formica* generoaren inurriekin estu loturik dago; inurriek zaintzen dute eta mendetasunezko lotura du horiekiko.

**Landare elikagarriak**: beldarrek landare espezie asko onartzen dituzte, hala nola zistazeoak, eleagnazeoak, erikazeoak eta batez ere lekadunak. Espainian *Cytisus, Astragalus* eta *Genista* spp. dokumentatu dira.

**Habitata**: 600-1000 metro bitarteko garaian, mendialdeko belardi inguruneetan, sastrakak edo baso soilguneak dituztenetan. Normalean, P. argus baino garaiera handiagoan egoten dira.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europa gehienean zehar, Asiaraino eta Altai-ko mendietaraino. Litekeena da Ipar Amerikan ere egotea. Euskadin, Arabako zenbait gunetan bakarrik hauteman da.

**Kontserbazioa**: populazio ezagun gutxiko espeziea da. Dena den, leku jakin batzuetan agian ugari izango da, *P. argus* askoz ohikoagoarekin duen antzekotasunagatik ohartu gabe gerta baitaiteke. Banaketa hobeto ezagutu beharra dago, baina gure iritziz ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdeko orban txikiek, kolore urdin metalikokoek, ongi bereizten dute beste lizenido batzuetatik. *P. argus* baino handixeagoa da eta atzealdeko tonua ez da hain urdina.

♀
♂
♀
makula metalizatuak
♂
eztenik ez arraren lehen zango pareko tibian

# *Lysandra albicans*

(Gerhard, 1851)

Zerutxo zuria

*Niña albina*

**Deskribapena**: gainaldea zuri-urdina da arretan eta marroia emeetan. Bi-bien ertz azpiko guneak ozelo beltzak ditu, laranja koloreko lunulekin emean. Arren azpialdea kolore krema oso argikoa da eta marroia emeetan. Bi-biek laranja koloreko lunulak dituzte ertz azpiko gunean.

**Biologia**: Uztail-irail bitartean egiten dute hegan, urteko belaunaldi bakarrean. Beldarrak estu loturik daude *Crematogaster* eta *Tapinoma* generoetako inurriekin.

**Landare elikagarriak**: beldarrak Hippocrepis generoko lekadunez elikatzen dira.

**Habitata**: 400-800 metro bitarteko garaieretan. Mediterranear landaredidun eremu lehorretan aurkitzen da.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea eta Espainia. Euskadiri dagokionez, Araban bakarrik ikus daiteke. Ohikoa da Arabako Errioxan, baina urriagoa gainerako lurraldean.

**Kontserbazioa**: banaketa aski mugatua du, baina zenbait lekutan ugaria da. Gure iritziz, ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Gainaldeko ertz azpiko gunean kokaturiko ozelo beltz garbiak, atzeko hegaletan bereziki ikusgarriak, dira *Lysandra* generoaren bereizgarria. Espezie honetako arrek zein emeek talde bereko beste batzuek baino tonalitate ahulagoa dute. Arrak *P. fulgensen* antzekoak izan daitezke, baina ez dute zerrenda zuririk bigarren hegal pareko azpialdean, ezta aurreko hegalen gainaldearen tonu ilunagoa ere.

♂
ozeloak ertzean
ezkata urdinik ez, *L. bellargusen* ez bezala
♀
laranja koloreko orban gutxi garatuak

# *Lysandra bellargus*

(Rottemburg, 1775)

Zerutxo bizia
*Niña celeste*

**Deskribapena**: arren gainaldea urdin argia, finbriak xake itxurakoak. Emeak marroiak dira, laranja koloreko makulak bi hegalen ertz azpiko gunean, kopuru aldakorrean ageri diren ezkata urdin barreiatuekin. Eme batzuk urdinak dira (*ceronus* f.).

**Biologia**: bi belaunaldi urtean. Helduak apiril-urri bitartean aurkitzen ditugu. *Lasius* edo *Crematogaster* bezalako generoetako inurriek zaintzen dituzte beldarrak.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Hippocrepis, Coronilla* eta *Anthyllis* generoetako lekadunen hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: kostaldetik 1000 metrotik beherako garaiera duten mendialdeetaraino. Era guztietako leku ireki eta eguzkitsuetan aurki ditzakegu, hala nola zuhaixka landaredidun belardiak eta mendi mazelak. Kareharrizko substratuetarako joera du.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europako erdialdean eta hegoaldean zehar, Asia Txiki, Ekialde Hurbil, Kaukaso eta Iraneraino. Euskadin, hiru lurraldeetan agertzen da, nahiz guztiz leku jakinetan Gipuzkoan.

**Kontserbazioa**: oso zabaldutako tximeleta da, zenbait lekutan oso ugaria izan daitekeena. Kontserbazio egoera onean dago.

## Nola ezagutu?

Arren urdin argia nahastezina gertatzen da, are hegan doala ere. Emeari dagokionez, atzeko hegalen gainaldeko ozeloen inguruko ezkata urdinek desberdintzen dute *L. coridon*etik. *L. albican*senek ez dute ezkata urdinik gainaldean. Bi sexuetako aleetan, finbriak guztiz bereizgarriak dira, nabarmenki xake taularen itxurakoak baitira.

ezkata urdin barreiatuak
♀
xake formako finbriak
ozeloak ertzean
♂
♂
♀
emea, *ceronus* forma
urdina, baina laranja-koloreko lunulak, arretan ez bezala
♀
forma ertaineko emea

# *Lysandra coridon*

(Poda, 1761)

Koridon zerutxoa

*Niña coridón*

**Deskribapena**: arren gainaldea urdina da, aurreko hegalen ertza iluna. Emeak marroiak, laranja koloreko makulak ertz azpiko gunean. Eme batzuk urdinxkak dira, hainbat gradutan. Bi-bietan ozelo beltzen ilara bat ageri da atzeko hegalen ertz azpiko gunean. Azpialdea marroi zurixka da, ilunagoa emeetan, eta laranja koloreko lunulak ditu ertzean.

**Biologia**: uztail-urri bitartean egiten du hegan. Zenbait generotako inurriek larbak zaintzen dituzte, harreman mutualistan.

**Landare elikagarriak**: beldarrak Hippocrepis comosa lekadunaz elikatzen dira.

**Habitata**: halako hezetasun bat duten belardiak eta mendiko larreak, normalean 500-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Espainiako ipar erdialdetik, Europako hegoaldean eta erdialdean zehar, Errusia eta Kazakhstaneraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurkitzen dira, Bizkaian eta Gipuzkoan askoz gutxiago hedaturik badaude ere.

**Kontserbazioa**: oso tximeleta ohikoa eta zabal banatua. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Lysandra* gisa, atzeko hegalen gainaldeko puntu beltzengatik ezagutu dezakegu. Arrak *L. albicans* baino urdinagoak dira, eta *L. bellargus* baino tonu motelagokoak. Emeek ez dute ezkata urdinxkarik bigarren hegal parearen gainaldeko ozeloetan, *L. bellargus*etan gertatzen den bezala.
*L. hispana*tik bereiztea oso zaila da.

zuriz inguraturiko ozelo beltzak
♂
♀
ohiko emea, ezkata urdin barreiaturik gabea
forma ertain urdinxkako emea
♀
♀
tonu marroi argia gune zuriekin kontrastean
emea, *syngrapha* forma
♂

# *Lysandra hispana*

(Herrich-Schäffer, 1851)

Zerutxo nafarra
*Niña mediterránea*

**Deskribapena**: Lehen belaunaldiko arrak *L. coridon*en oso antzekoak dira, baina tonu urdinxka bereizgarria dute. Bigarren belaunaldikoek ordea, urdin tonu argiagoa dute. Emea marroi iluna da eta laranja koloreko makulak ditu ertz azpiko gunean. Azpialdea marroi argia da, laranja koloreko lunulekin arraren zein emearen atzeko hegalen ertz azpiko gunean.

**Biologia**: *L. coridon* eta *L. albicans* espezietan ez bezala, bi belaunaldi ditu urtean (biboltinoa). Imagoak maiatz-ekain eta abuztu-urri bitartean azaltzen dira.

**Landare elikagarriak**: Euskadin beldarrak *Hippocrepis comosa* espezieaz elikatzen dira segur aski.

**Habitata**: Gipuzkoako populazioak hegoaldera begira dagoen kareharrizko ingurunea du kokaleku, haritza eta artea nagusi diren eremuetan, 500-600 metroko garaieran.

**Banaketa eremua**: Espezie hau Iberiar Penintsulako ekialdeko erdian, Frantziako hego-ekialdean eta Italiako iparraldean aurki daiteke soilik. Euskadin, Aralar mendilerroaren Gipuzkoako zatian bakarrik egiaztatu da haren presentzia.

**Kontserbazioa**: Espezie honek Euskadin duen banaketa eta biologia hobeto ikertzea beharrezkoa da. Arabako aipamen bakarra abuztuan hartutako ale bati dagokio; hortaz, ezin daiteke modu fidagarrian haren identitate taxonomikoa ezagutu. Baliteke babes neurri zehatzak beharko lituzkeen espezie urri bat izatea.

## Nola ezagutu?

Maiatzeko aleak bakarrik (*L. coridon*en oso antzekoak), ziurtasunez *L. hispana* gisa sailka daitezke; izan ere, *L. coridon* espezieak ustez uztaila arte edo, ekain amaiera arte ez du hegal egiten. Bigarren belaunaldiko arrek orban txiki laranjak izaten dituzte atzeko hegalen gainaldearen ertz azpiko gunean.

♂
♂
1. belaunaldia
♀
♂
Pequeñas máculas naranjas en
los ejemplares de la 2º generación

# *Polyommatus (Agrodiaetus) damon*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Marrazuri urdina

*Rayada azul*

**Deskribapena**: tamaina txikikoa. Arrak urdinxkak dira, hegalen ertza eta nerbiazioa beltz kolorekoak. Emeak marroi uniforme kolorekoak dira. Azpialdea krema kolorekoa da, makula beltzekin, eta marra zuri oso garbia ageri du atzeko hegaletan. Emeak zertxobait ilunagoak dira.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak uztailean eta abuztuan aurkitzen dira.

**Landare elikagarriak**: larbek *Onobrychis* spp. generoko lekadunak erabiltzen dituzte landare ostalari gisa.

**Habitata**: 400-1000 metro bitarteko garaieran, belar leku irekietan. Ohikoagoa mendialdeetan.

**Banaketa eremua**: Espainiako erdialdea eta iparraldea, Europako hegoaldea eta erdialdea, Asia Txikia eta Erdialdeko Asia, Mongolia eta Txinaraino. Euskadiri dagokionez, Araban bakarrik aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: hartzen duen hedadura murritza da eta ez da oso ugaria izaten. Betidanik abeltzaintza estentsiborako erabilitako leku irekiak bertan behera uzteak eragina izan dezake tximeleta honetan.

## Nola ezagutu?

Azpialdeko zuri koloreko marrak *Agrodiaetus* azpi-generoko hiruretako bati dagokiola adierazten digu argi eta arbi. Arrak kolore urdineko bakarrak dira. Azpialdea oso homogeneoa dute; azpialdearen ertz azpiko gunean marrazki guztiz txiki bat du, oso gutxi ikusten dena. Puntuak tamaina desberdinetakoak dira. Finbriak argiak.

ertz beltz zabala
hegalaren barnealdera sartzen diren lerro beltzak
trazu zuria

# *Polyommatus (Agrodiaetus) fulgens*

(Sagarra, 1925)

Marrazuri argia
*Rayada clara*

**Deskribapena**: gainaldea zuri-urdinxka arretan, aurreko hegalen barneko erdia ilunagoak ezkata androkonialen presentziagatik. Emeek kolorazio ilun uniformea dute. Azpialdea krema kolorekoa da arretan eta marroia emeetan, puntu beltz batzuekin; trazu zuri garbi batek atzeko hegala gurutzatzen du. Duela gutxi arte *P. ainsae* deitzen zitzaion.

**Biologia**: helduak uztail-abuztu bitartean ikusten dira, urteko belaunaldi bakarrean.

**Landare elikagarriak**: *Onobrychis* espeziaz elikatzen dira.

**Habitata**: 500-900 metro bitarteko garaieran, sastraka eta mediterranear eraginpeko landaredia dagoen eremu irekietan.

**Banaketa eremua**: Espainiako iparraldean bakarrik aurkitzen da, Leon eta Lleida artean. Euskadiri dagokionez, Araban ongi banaturik agertzen da, baina ez dago, ez Bizkaian, ez Gipuzkoan.

**Kontserbazioa**: tximeletaren banaketa EAEko hegoaldera mugaturik bada ere, presente dago hainbat kokalekutan. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Azpialdeko zerrenda zuriak *Agrodiaetus* taldekoa dela erakusten du. Arrak zurixkak dira, beste bi espezieetan ez bezala. Azpialdean ongi bereizten da atzeko hegalen ertz azpiko guneko marrazki ahul bat; gainera, puntuak tamaina desberdinekoak dira. Finbriak argiak.

♂
ezkata androkonialak
torax urdina
trazu zuria
♀
♂

# *Polyommatus (Agrodiaetus) ripartii*

(Freyer, 1830)

Rayada oscura

*Marrazuri arrea*

**Deskribapena**: gainaldea iluna arretan zein emeetan, ezkata androkonialak arren lehenengo hegal parean. Azpialdea krema kolorekoa da, ilunagoa emeetan, puntu beltzekin; marra zuri bereizgarria atzeko hegaletan.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Uztail-abuztu bitartean ikus dezakegu.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Onobrychis* generoko zenbait espeziez elikatzen dira.

**Habitata**: sastraka duen belardi zabalak, 500-900 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Europan zenbait populazio gune, Espainiako erdialdetik, Balkanetaraino eta Ekialde Hurbileraino. Euskadin, Arabako erdialdeko zerrendara eta hegoaldeko guneren batera mugatzen da.

**Kontserbazioa**: Euskal Autonomi Erkidegoko hegoaldera mugatzen den arren, hiru espezieen artean ugariena da eta nahiko ohikoa da gune askotan. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*Agrodiaetus* espezieen bereizgarria den marra zuria guztiz nabarmena da. Arretan, gune distiratsuago bat hauteman daiteke aurreko hegalen gainaldean, ezkata androkonialei dagokiena. Azpialdean marrazki ahul bat bereizten da atzeko hegalen ertzean. Hegal horietako puntuek tamaina berdintsuagoa dute eta finbriak beste bi espezieetan baino ilunagoak izan ohi dira.

trazu zuria
♂
♀
♂
ezkata
androkonialak
♀
♂

# *Polyommatus amandus*

(Schneider, 1792)

Amanda zerutxoa

*Niña amanda*

**Deskribapena**: arren gainaldea urdin kolorekoa, ilundua ertzetan eta nerbiazioan. Emeak ilunak dira, laranja koloreko lunula batzuekin atzeko hegalen gainaldean. Azpialdea krema kolorekoa da, oinaldea urdina eta zuriz inguraturiko puntu beltz batzuk. Era berean, laranja koloreko lunula txikiak ditu bigarren hegal parean.

**Biologia**: helduak maiatz-abuztu bitartean aurkitzen dira. Belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: larbak zalkebasaz (*Vicia cracca*) elikatzen dira. Eta segur aski generoko beste zenbait espeziez ere, eta baliteke *Lathyrus* spp. ere erabiltzea, gertuko beste herrialde batzuetan bezala.

**Habitata**: Arabako Errioxako laborantza lurretatik mendiko belardi ongi kontserbatuetaraino aurkitzen da, 450-1100 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europan zehar, Asia, Mongolia eta Ekialde Urruneraino. Euskadiri dagokionez, Arabako lurraldean bakarrik aurkitzen dugu.

**Kontserbazioa**: oso urria da Euskadin. Arreta berezia jarri behar zaio tximeleta honi, eta kontuan hartu honen kontserbazioaren garrantzia. Betidanik abeltzaintza estentsiboari esker irekita mantentzen ziren eremuen iraupenaren mende daude populazio asko. Jarduera horren beherakada belardiak murriztea eta baso soilgune batzuk desagertzea eragiten ari da.

## Nola ezagutu?

Beste *Polyommatus* batzuk baino handiagoa da. Arren gainaldeko nerbiazioa kolore beltzez markaturik dago. Emeenean laranja koloreko oso marka gutxi azaltzen dira. Azpialdean, aurreko hegalek ez dute laranja koloreko lunularik eta atzekoetan horiek oso murrizturik daude.


laranja koloreko orbanik ez aurreko hegalean eta oso txikiak atzekoan
♀
hegalaren barnealdera sartzen diren lerro beltzak
♂
laranja koloreko lunula oso txikiak, aurreko hegaletan maiz ez daudenak eta oso gutxi atzekoetan
♂
beste *Polyommatus* batzuen orban zuririk gabe
punturik gabeko gela
♀

# *Polyommatus daphnis*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Zerutxo koskaduna

*Niña dentada*

**Deskribapena**: arrak urdinak gainaldean. Emeak normalean ilunak dira, gune argiago batzuekin (*steeveni* forma); horietako batzuek (izeneko formakoek) kolorazio urdina ageri dute. Azpialdea krema kolorekoa da, ilunago emeetan.

**Biologia**: helduak uztail-abuztu bitartean aurkitzen dira. Inurriek beldarrak zaintzen dituzte.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Astragalus monspessulanus*en hostoez elikatzen dira Espainiako eskualde batzuetan. Euskadin, hala ere, ez da horren biologia ezagutzen.

**Habitata**: ezagutzen den populazio bakarra 800 metroko garaieran kokaturik dago, kareharrizko ingurunean, landaredi nagusia artadi duena.

**Banaketa eremua**: Espainiako ipar-ekialdetik, Europako hego eta erdialdean zehar, Errusiako hegoalde, Asia Txiki eta Iraneraino. Euskadin Arabako hego-mendebaldean kokatzen da.

**Kontserbazioa**: oraingoz, hartzen duen lurralde zati txikiaren berri dugu. Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan sartzea merezi du eta, horren iraupena bermatuko badugu, habitataren kudeaketa eraginkorra gauzatu beharra dago.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegaletako isats-luzakinak nabarmentzen dira, nabarmenagoak emeetan; horiek nahastezina egiten dute tximeleta hau. Hegan doala, ohartu gabe gerta daiteke, *Lysandra coridonekin* partekatzen baitu habitata.

atzeko hegala horzduna
emearen ohiko kolorazioa (*steeveni* forma)
♂
♀
♂
atzeko hegala horzduna
♀

# *Polyommatus dorylas*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Bihotz-zerutxoa
*Niña turquesa*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan eta iluna emeetan, azken horiek hegalen ertzean laranja koloreko makulak dituztela. Azpialdea krema kolorekoa da, makula beltzekin; laranja koloreko lunulak ertz azpiko gunean.

**Biologia**: helduak maiatz-abuztu bitartean agertzen dira. Urteko bi belaunaldi.

**Landare elikagarriak**: espainian *Anthyllis vulneraria* dugu dokumentutako landare bakarra espezie honen beldarrei dagokienez.

**Habitata**: sastraka duten gune irekiak, normalean kareharrizko substratukoetan. 500-1000 metro bitarteko garaieretan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Europako hego eta erdialdea, Errusiako hegoalderaino eta Ekialde Hurbileraino. Euskadiko hiru lurraldeei buruzko datuak daude. Bizkaiko presentzia (Bilbo ingurua) zalantzazkoa da, datu guztiak aspaldikoak baitira (1877-1898).

**Kontserbazioa**: hegoaldean zabal banaturiko tximeleta dugu; hortaz, gure ustetan ez dago arriskuan. Kostaldeko bi lurraldeei dagokienez, oso interesgarria izango litzateke horren presentzia era fidagarrian berrestea.

## Nola ezagutu?

Ez du *P. icarusek* lehenengo hegal pareko gune diskalean ageri duen puntu beltza. Hegalen azpialdeko ertzeko makula laranja-koloreen aldean trazu beltzik ez duen taldeko bakarra da. Gainera, orban horiek bihotz antzeko forma izan ohi dute.

puntu beltz
lodiagoak aurreko
hegalean
♂
laranja koloreko
zenbait orban,
bihotz itxurakoak
♀
punturik
gabeko gela
♂
♀

# *Polyommatus escheri*

(Hübner, 1823)

Gezi-zerutxoa
*Niña escher*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan eta iluna emeetan, azken horiek laranja koloreko markak dituztela ertz azpiko gunean. Azpialdea grisaxka da arretan eta marroia emeetan, puntu beltz batzuekin; laranja koloreko lunulak ertzean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak ekain-abuztu bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Astragalus monspessulanus*en hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: gune irekiak eta eguzkitsuak, 500-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Europako hegoaldeko herrialdeetan agertzen da soil-soilik. Euskadin batez ere Araban aurkitzen dugu, nahiz Urduñan (Bizkaia) eta Gipuzkoako hegoaldeko kokaleku batean ere erregistratu den.

**Kontserbazioa**: zabal banaturik dago lurraldeko hegoaldean zear; hortaz, gure iritziz ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Gainerako *Polyommatus*etatik desberdintzen duen ezaugarria: ertz azpiko guneko laranja koloreko lunulak puntadunak dira eta, gainera, horien barnealdeko marrazki beltzak ere puntadunak dira. Ez du *P. icarus*ek lehenengo hegal pareko gune diskalean ageri duen puntu beltza.

orban laranja-kolore oso garatuak hegalen ertzean
punturik gabeko gela
♀
♂
lunula beltz ongi garatuak eta zorrotzak
♀
♂

# *Polyommatus icarus*

(Rottemburg, 1775)

Ikaro zerutxoa

*Ícaro*

**Deskribapena**: gainaldea urdina arretan eta iluna emeetan, nahiz oso ohikoa den tonu urdin aldakorreko emeak aurkitzea. Azpialdea grisaxka arretan eta krema kolorekoa emeetan, puntu beltzekin; laranja koloreko lunulak ertz azpiko gunean.

**Biologia**: belaunaldi batzuk urtean duen espeziea. Helduak apiril-urri artean aurki daitezke.

**Landare elikagarriak**: Larba egoeran lekadun ugari onartzen du, hala nola *Astragalus, Dorycnium, Genista, Hippocrepis, Lotus* edo *Medicago* generoetakoak.

**Habitata**: itsas mailatik 1000 metrotik goragoko garaieraraino. Berezkoa da belardietan eta mota askotariko eremu ireki eta belartsuetan aurki daiteke.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulatik, Europa osoan zehar, Ekialde Urruneraino. Euskadiko lurralde guztian ongi banaturik ageri da.

**Kontserbazioa**: espezie oso ohikoa, kontserbazio arazorik ez duena, salbu eta belardietako beste edozein espezie arriskuan jartzen dutenak, hau da, nekazaritza jardueraren areagotzea edo pestiziden erabilera.

## Nola ezagutu?

Ezagutu ahal izateko, aurreko hegalen azpialdeko gune diskalean duen puntu beltza (batzuetan bikoitza) bilatu behar dugu. Espezie hurbilenetan (*thersites, escheri, amandus, dorylas*) ezaugarri hori duen bakarra baita. Oso gutxitan agertzen dira puntu hori gabeko aleak (*icarinus* forma).

♂
♀
ohiko emea
eme urdinxka
♀
♂
♂
♂
gelako puntua,
batzuetan
bikoitza
♀

# *Polyommatus thersites*

(Cantener, 1835)

Astorki-zerutxoa

*Niña tersites*

**Deskribapena**: arraren gainaldea urdin kolorekoa. Emea iluna da eta lunula laranja-koloreak ditu hegalen ertzean; ezkata urdin guztiz barreiatuak ditu. Azpialdea grisaxka da arretan eta marroi kolorea emeetan, puntu beltzekin; laranja koloreko lunula sail bat ertz azpiko gunean.

**Biologia**: bi belaunaldi ditu urtean, bata udaberrian eta bestea udan. Helduak maiatz-abuztu bitartean ikus daitezke

**Landare elikagarriak**: Larbak *Onobrychis* generoko lekadunez elikatzen dira.

**Habitata**: eremu irekietan aurki daitezke, hala nola belardiak edo gune eguzkitsu sastrakadunak. 500-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Afrikako iparraldea, Europako hegoaldea zein erdialdea, Errusiako hegoaldea, Asia Txikia, Erdialdeko Asia eta Mongolia. Euskadin, Araban bakarrik ezagutzen dira tximeleta honi buruzko datuak eta bertan ondo banaturik dago.

**Kontserbazioa**: tximeleta hau oso zabaldurik dago lurraldearen hegoaldean, eta ugaria izan daiteke zenbait leku jakinetan. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*P. icarusek* ez bezala, ez du punturik aurreko hegalen azpialdeko gune diskalean. *P. escheri* espezieak ez bezala, azpialdeko lunula laranja-koloreak handiak dira eta marrazki beltz oso ahul bat dute aldean.

♂
♀
orban laranja-
kolore handiak,
barnealdean
beltzez
mugatuak
♀
♂
punturik
gabeko gela

# *Pseudophilotes baton*

(Bergsträsser, 1779)

Ezkaizale tantagorria

*Abencerraje norteño*

**Deskribapena**: arren gainaldea urdin kolorekoa, puntu beltzak hegalen ertzean eta marka beltzak bi hegal pareen erdialdean. Emeen kolorazioa iluna da, urdin ukituarekin. Azpialdea zuri-grisaxka da, puntu beltzak dituela; lunula laranja-kolore zehaztuak atzeko hegaletan.

**Biologia**: bi belaunaldi urtean; imagoak apiril-abuztu bitartean aurki daitezke.

**Landare elikagarriak**: beldarrek ezkaia (*Thymus* spp.), *Calamintha nepeta* eta *Cuscuta epithymum* dituzte elikagai.

**Habitata**: kareharrizko substratu zuhaixkaduna duten eremu ireki eta harritsuak. 500-600 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldetik, Italia, Alemania eta Txekiaraino. Euskadin, Arabako lurraldera mugatzen da.

**Kontserbazioa**: hamar kokagune eskas ezagutzen dira. Hori dela eta, espezie honen ikerketa eta babesa interes berezikoak dira.

## Nola ezagutu?

*P. panoptesen* antzekoa da, baina atzeko hegalen azpialdea argiagoa da eta lunula laranja-kolore nabarmenak ditu. Horretaz gain, apur bat handiagoa da eta arren azpialdea urdin biziagoa. *Scolitantides orionen* antzekoa ere bada, baina hark ez bezala, makula laranja-koloreak bata bestetik banaturik ditu eta horiekin ez du inolako zerrendarik osatzen; azpialdeko puntuak zuriz inguratuak ditu.



xake formako
finbriak
laranja koloreko
bost orban

# *Pseudophilotes panoptes*

(Hübner, 1813)

Ezkaizale arrunta

*Abencerraje del tomillo*

**Deskribapena**: gainaldea urdinxka arretan, marka biribilak ertzean eta finbriak xake-itxurakoak; lau hegalen erdialdean marka beltz luzanga bat ageri da, txikiagoa atzekoetan. Emea ilunagoa da eta ezkata urdinak ditu azal gehienean. Azpialdea grisaxka da, puntu beltzak dituela; marka laranja-kolore oso txikiak atzeko hegalen ertz azpiko gunean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Garaieraren arabera, helduak martxo-ekain bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: larbak ezkaien (*Thymus* spp.) hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: garaiera apaletan, 400-700 metro bitartean; sastrakadi mediterranearra eta ezkaia ugari dagoen eremuetan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulan aurki daiteke soil-soilik. Euskadin, Arabako lurraldean besterik ez dago. Oso ohikoa da Arabako Errioxa bezalako lekuetan.

**Kontserbazioa**: *P. baton* baina askoz hedatuagoa dago. Ohiko espezie bat da eta oso ugaria gune batzuetan. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

*P. batonen* antzekoa da, baina azpialdea grisaxkagoa du eta lunula laranja-koloreak ez ditu espezie hark bezain nabarmenak; izan ere, espezie honetan lunulak ez dira ia ikusten, oso txikiak direlako. Arraren gainaldea urdin kolorekoa bada ere, ez da P. batonena bezain bizia.

xake formako finbriak
♂
♀
orban laranja-kolorerik ez edo oso txikiak

# *Satyrium acaciae*

(Fabricius, 1787)

Basaranetako buztanmotza

*Rabicorta del endrino*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, marka laranja-koloreak uzki aldean. Azpialdea marroi kolorekoa da, marra zuzen eten batekin gune postdiskalean eta lunula laranja-koloreekin ertz azpiko gunean. Horretaz gain, orban urdin bat eta isats-luzakin txiki batzuk ditu uzki aldean. Emeak abdomenaren muturra oso iluna du.

**Biologia**: helduek ekain-uztail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean. Arrautzek landare ostalariaren gainean hibernatzen dute.

**Landare elikagarriak**: beldarrak elorri beltzaren (*Prunus spinosa*) hostoez elikatzen dira.

**Habitata**: sastraka eta elorri beltza duten belardi zabalak, basoetatik hurbil gehienetan. 600-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparreko erdialdea, Europako hegoaldea zein erdialdea, Errusiako hegoalderaino eta Asia Txikiraino. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki daiteke, nahiz eta Gipuzkoan eta Bizkaian kokapen jakin batzuetara mugatzen den. Bizkaian, Urduñan bakarrik ikusi da.

**Kontserbazioa**: Euskal Autonomia Erkidego guztia kontuan harturik, arriskuan ez dagoela uste dugu, lurraldearen azalera zabala hartzen duelako eta leku batzuetan oso ugaria delako. Hala ere, babesari begira, Gipuzkoako eta Bizkaiko populazioen urria kontuan hartu beharra dago.

## Nola ezagutu?

Lunula laranja-koloreak handiak ditu eta bat eginik agertu ohi dira, laranja koloreko orban handi bat osatzen dutela. Azpialdeko marra zuria zuzena da eta uzki aldean duen orban urdina *S. spini*rena baino askoz txikiagoa da.


laranja koloreko makulak, askotan bat eginak
♀
puntu beltza
orban txiki grisaxka
lerro zuria, trazu nahiko zuzena osatzen duena

# *Satyrium esculi*

(Hübner, 1804)

## Abaritzetako buztanmotza

*Rabicorta de la coscoja*

**Deskribapena**: gainaldea ia beltza, laranja koloreko makula txiki bat uzki aldean. Azpialdea okre ilun kolorekoa da, laranja koloreko orbanekin atzeko hegalen ertz azpiko gunean eta marra eten zuri batekin gune postdiskalean.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldar egoeran zenbait haritz espezie erabiltzen ditu elikatzeko, hala nola *Quercus coccifera, Q. ilex, Q. pubescens, Q. pyrenaica, Q. robur* eta *Q. suber.*

**Habitata**: abariztiak, artadiak eta hariztiak. Gipuzkoako kostaldea, mendialde hezeetako belardiak eta Arabako Errioxako ingurune oso lehorrak. Itsas mailatik 1000 metroko garaieraraino.

**Banaketa eremua**: Afrikako ipar-mendebaldea, Iberiar Penintsula eta Frantziako hego-ekialdea. Euskadin hiru lurraldeetan ikus daiteke.

**Kontserbazioa**: gure lurraldean zabal banaturik dagoen espeziea da. Ez dago arriskuan.

### Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdeko makula laranja-koloreak elkarretatik banaturik daude eta goiko hirurak tamaina berekoak dira. Ez du makula urdinxkarik uzki aldean. Aurreko hegalaren azpialdeko marra zuria oso ahula da (edo ez dago) eta atzeko hegalarena nahiko zuzena da.

lerro zuria,
S. ilicisena
baino
zuzenagoa
♂
lodiera berdineko
puntuak
♂
♀

# *Satyrium ilicis*

(Esper, 1779)

Haritzetako buztanmotza

*Rabicorta del roble*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, laranja koloreko makula txikia uzki aldean. Emeak aurreko hegaletan laranja koloreko orban zabal xamarrak ditu. Azpialdea okre kolorekoa da; makula laranja-koloreak atzeko hegalen ertz azpiko gunean eta marra zuri eten bat bi hegal pareetan. Uzki aldean orban urdin oso txiki bat du.

**Biologia**: helduek ekain-abuztu bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: zenbait haritz eta arte espeziez elikatzen da (*Quercus ilex, Q. petraea, Q. pubescens, Q. pyrenaica* edo *Q. robur*).

**Habitata**: hariztien inguruko belardi, bide eta bide bazterrak. Kostaldetik 1000 metroko garaieraraino.

**Banaketa eremua**: Europa gehiena hartzen du, Iberiar Penintsulatik, Asia Txiki eta Ekialde Hurbileraino. Euskadin, espezie honen populazioak hiri lurraldeetan aurki daitezke.

**Kontserbazioa**: Euskal Autonomia Erkidegoan zabal banaturik dagoen tximeleta da. Ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdean dauden goiko hiru makulek tamaina desberdina dute eta txikitik handira lerrokaturik daude. Aurreko hegalen marra zuria garbi ikusten da eta atzeko hegalena ez da *S. esculirena* bezain zuzena.

♀
puntuak tamaina gradientean
♂
lerro zuria, S. esculirena baino bihurriagoa
♀
ezkata beltzak, laranja koloreko makulen bi aldeetan
ale aberrantea

# *Satyrium pruni*

(Linnaeus, 1758)

Buztanmotz kategorria
*Rabicorta escasa*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, zerrenda laranja-kolore bat atzeko hegalen ertzean. Azpialdea marroi kolorekoa da; marra zuri bat hegal bakoitzean eta zerrenda laranja-kolore zabal bat ertz azpiko gunean. Uzki aldean isats-apendize bat eta kolore urdineko orban txiki bat ageri ditu.

**Biologia**: eskuarki, ekainean egiten du hegan, nahiz eta uztail hasieran ere aleren bat ikus daitekeen. Belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: gure lurraldean elorri beltzaren (*Prunus spinosa*) erabilera besterik ez da berretsi. Beste herrialde batzuetan genero horren beste espezie batzuk erabiltzen dituela ikusi da.

**Habitata**: espezie honen koloniak leku jakin batzuetara mugatzen dira, 600-1000 metro bitarteko garaieran. Beti baso hosto erorkorren bazter eta soilguneetan.

**Banaketa eremua**: tximeleta hau kokaleku gutxi batzuetan aurki dezakegu: Espainiako iparraldea, Europako zati handi bat, Asia epela, Siberia eta Korea. Euskadin, Araba da Iberiar Penintsulako populazio gehien biltzen dituen lurraldeetako bat. Duela gutxi Bizkaian ere aurkitu da leku oso zehatzetan.

**Kontserbazioa**: Iberiar Penintsulako tximeleten artean, mehatxatuenetariko bat da espezie hau, zabal hamabost populazio baino gutxiago ezagutzen baitira lurraldearen zabalera osoan. Populazio horiek azalera gutxi hartzen dute eta, oro har, populazio dentsitatea oso apala da. Hori guztia dela eta, espezie honen babesak lehentasuna du. Mikroerreserben sorrera eta bestelako kontserbazio neurriak bultzatzea beharrezkoa litzateke, bai Araban, bai Bizkaiko populazio bakarrean aplikatu ahal izateko. Hala Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan, nola Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrendan sartzeko espezie aproposa litzateke.

## Nola ezagutu?

Tximeleta honetan bereziki bereizgarria da atzeko hegalen azpialdeko zerrenda laranja-kolore nabarmena. S. w-albumen antzekoa izan daiteke, baina S. pruniren marra zuriak kurbatuak dira eta ez dute "W" formarik hartzen.


puntu beltz lodiak
laranja koloreko zerrenda zabala
gainaldean ere laranja koloreko zerrenda

# *Satyrium spini*

(Denis & Schiffermüller, 1775)

Rabicorta de mancha azul

*Buztanmotz tantaurdina*

**Deskribapena**: gainaldea marroi iluna, marka androkonialak arretan eta laranja koloreko makula txikiak uzki aldean. Azpialdeak marra zuri eten nabarmena du, orban laranja-kolore txikiak atzeko hegalen ertzean eta orban urdin oso ikusgarria uzki aldean, isats-luzakinen ondoan.

**Biologia**: maiatz-abuztu bitartean; belaunaldi bakarra urtean.

**Landare elikagarriak**: beldarrak ramnazeoz elikatzen dira, *Rhamnus* generokoez batez ere; hala ere, beste genero batzuk ere erabiltzen ditu, *Frangula* eta *Paliurus* spp. besteak beste.

**Habitata**: 400-1200 metro bitarteko garaieran, askotariko inguruneetan, mediterranear mendialdeko eremu lehorretatik mendietako belardietara.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsula, Europako hegoaldea eta erdialdea, Errusiako hegoaldea, Iran eta Ekialde Hurbila. Euskadin, espezie honen populazio gehienak Araban aurkitzen dira, nahiz eta Bizkaia eta Gipuzkoako leku oso zehatzetan ere ikus dezakegun.

**Kontserbazioa**: espezie hau ez dago arriskuan Euskal Autonomia Erkidegoan, hegoaldean zabal banaturik baitago. Hala ere, Bizkaia eta Gipuzkoako populazioen ingurunea kudeatu beharko litzateke, horien kontserbazioa bermatu ahal izateko.

## Nola ezagutu?

Atzeko hegalen azpialdeko uzki aldean erakusten duen orban urdina generoko beste espezieetan baino nabarmen handiagoa da. Makula laranja-koloreak askoz txikiagoak dira. Marra zuria nahiko zuzena da.

androkonia
♀
♂
♂
♀
orban urdina
ale aberrantea

# *Satyrium w-album*

(Knoch, 1782)

W-zuria buztanmotza

*Rabicorta w-blanca*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, obalo itxurako marka androkoniala arretan. Azpialdea marroi kolorekoa da, marra zuri bat lau hegaletan eta zerrenda laranja-kolore bat atzekoetan. Uzki aldean isats-luzakinak ageri ditu.

**Biologia**: batez ere uztailean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean. Zuhaitzetarako duen joerak ikusten zaila egiten du, sasi eta intsusa loreetara hurbiltzen denean izan ezik.

**Landare elikagarriak**: zumarrei oso loturik dago. Beldarrek zenbait espezie onartzen badituzte ere, gure inguruan batez ere *Ulmus minor* espezieaz elikatzen dira; gutxiagotan *U. glabra* espezieaz.

**Habitata**: itsas mailatik 600 metroko garaieraraino, askotariko inguruneetan. Eskuarki, bide eta errepide bazterretan eta ibaiertzean, zumarrak dauden tokietan.

**Banaketa eremua**: Iberiar Penintsulako iparraldea, Europa eta Asia gehiena, Japoniaraino. Euskadin, Araba eta Gipuzkoako lurraldeetan bakarrik bildu dira datuak, baina litekeena da Bizkaian ere egotea.

**Kontserbazioa**: erresuma Batuari dagokionez, espezie honen presentzia %97an jaitsi da 1976tik hona. Hein handi batean, zumarrei gogor eragiten dien grafiosi gaitzaren eraginez. Gaixotasun horrek Iberiar Penintsulako zumar hostotxikiari ere gogor erasotzen dionez, gure lurraldean tximeleta honek antzeko beherakada jasan duela pentsa daiteke. Gaixotasun horrekiko erresistenteak diren bertako zumarrak landatzea da ZERYNTHIA elkarteak jada abiatu duen neurri bat, tximeletaren habitata berritu dadin eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezagutzen diren populazio gutxi horiek mantendu daitezen.

## Nola ezagutu?

Erraz bereizi daiteke hegalen azpialdeko zerrenda laranja-kolore zabala eta "W" letra itxurako marra zuria direla eta.

isats motzagoak arretan
♂
♀
"W" letra formako lerro zuria

# *Scolitantides orion*

(Pallas, 1771)

Orion

*Abencerraje orión*

**Deskribapena**: gainaldea iluna, urdin koloreko marrazkia txikiagoa emeetan. Azpialdea argia da, makula beltzak dituela; laranja koloreko zerrenda bat atzeko hegalen ertz azpiko gunean.

**Biologia**: belaunaldi bakarra urtean. Helduak maiatz-ekain bitartean ikus daitezke.

**Landare elikagarriak**: beldarrak *Sedum* generoaz soilik elikatzen dira.

**Habitata**: eguzkiak asko jotzen duen mendialde harritsua, eskuarki kareharriz osatua. 600-950 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Espainiatik, Europako erdialde eta iparraldean zehar, Asia epeleraino eta Japoniaraino. Euskadin, Arabako leku jakin batzuetan bakarrik aurkitu daiteke.

**Kontserbazioa**: tximeleta oso urria da eta Euskal Autonomia Erkidegoan populazio oso gutxi dago. Garrantzi bereziko espeziea izanik, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartzeko aproposa izango litzateke. Espeziearen kontserbazioa bermatzeko, haren presentzia erregistratu den tokiak babestu beharko lirateke.

## Nola ezagutu?

*Pseudophilotes baton* espeziea gogoarazten du. Hala ere, azpialdean desberdintzen dira: S. orionek zerrenda laranja-kolore jarrai bat erakusten du, P. batonek ordea, zenbait makula bereiz ageri ditu. Horretaz gain, *S. orionen* puntu eta trazu beltzak askoz nabarmenagoak dira eta ez daude zuriz inguratuak, *P. batonen* kasuan bezala.

lunula urdinxken seriea
♂
laranja koloreko zerrenda, bat eginiko zortzi makulak osatua
puntu beltz oso lodiak
♂
kolore zurixka
♀

# *Thecla betulae*

(Linnaeus, 1758)

Topacio
*Topazioa*

**Deskribapena**: gainaldea iluna arretan. Emeen kasuan, orban laranja-kolore deigarriak agertzen dira atzeko hegaletan. Azpialdea laranja kolorekoa da, trazu zurixkak dituela. Uzki aldean zenbait isats-luzakin ditu, eta horiek ematen diote espezie honi, neurri handi batean, bere itxura bereizgarria.

**Biologia**: helduek uztail-irail bitartean egiten dute hegan; belaunaldi bakarra urtean. Arrautzek landareen adarren gainean hibernatzen dute. Landare horiek izango dira, hain zuzen ere, gero etorriko diren beldarren elikagaia.

**Landare elikagarriak**: beldarrak elorri beltzez (*Prunus spinosa*) elikatzen dira nagusiki, baina landatutako edo apaingarri gisa erabiltzen diren beste errosazeo batzuk ere baliatzen dituzte, *P. cerasifera, P. insititia, P. avium edo P. armeniaca*, besteak beste.

**Habitata**: eremu irekietan nahiz basoaldean, baina beti hezetasun maila bat duten lekuetan, horietan hazten baita landare elikagarria. Kostaldetik gertuko eremuetatik mendialdeetara. 150-1000 metro bitarteko garaieran.

**Banaketa eremua**: Europa eta Asia gehiena, Txinaraino. Iberiar Penintsulako iparraldea eta erdialdeko eremu batzuk hartzen ditu. Euskadin, hiru lurraldeetan aurki daiteke.

**Kontserbazioa**: tximeleta oso ugaria da, baina ikusten zaila, jokabide iheskorragatik. Euskal Autonomia Erkidegoan espezie honen habitata oso zabaldua dagoenez, ez dago arriskuan.

## Nola ezagutu?

Espezie honen itxura eta kolorazioa oso bereziak izanik, bereizteko arazorik ez dago.

♀
orban laranja-
kolorea, arretan
agertzen ez dena
♀

# Zigenak eta beste zenbait heterozero

Nahiz eta “heterozero” izenak funtsezko balio taxonomikorik ez izan, erabilgarria da eta, hainbat hamarkadatatik hona, Papilionoideoak (gaueko tximeletak edo ropalozeroak) ez diren lepidoptero guztiz hitz egiteko erabili da. Oro har, gaueko ohiturak dituzten familiak biltzen ditu heterozero hitzak. Hala ere, talde hauetako zenbait espeziek beren ohiturak aldatu dituzte eta egunez egiten dute hegan, guztiz edo neurri batean. Hori dela eta, tximeletak bilatu eta argazkiak ateratzeko egiten ditugun irteeretan ohikoa da egunez ere ikustea.

Eranskin honetan Euskadin aurki ditzakegun zigena espezie guztiak sartu dira, bai eta horiekin loturik dauden beste tximeleta batzuk, ohikoak horiek ere (*Heterogynis, Adscita, Jordanita* eta *Aglaope*). Horretaz gain, oso maiz agertzen diren espezie asko bildu dira, eta guztiak ez badira ere, bai aurki ditzakegunetarik asko.

## Nola desberdindu ropalozeroak eta heterozeroak?

### Antenak

Ropalozeroak: mazo edo pospolo itxura



Heterozeroak: luma, hari eta batzuetan mazo itxura

### Atseden jarrera

Ropalozeroak: hegalak jarrera bertikalean

Heterozeroak: hegalak jarrera horizontalean



### Kolorazioa

Ropalozeroak: kolore biziagoak



Heterozeroak: kolore motelagoak



# Zygaenidae


Aglaope infausta
Jordanita sp.
zorrotza
kamutsa
Jordanita sp.
Adscita sp.
Heterogynis canalensis
Adscita sp.

# Zygaenidae

## Sei puntukoak

Zygaena filipendulae

manchas rojas definidas en el reverso

Zygaena transalpina

puntu gorri lausoak azpialdean

## Bost puntukoak

Zygaena viciae

Zygaena trifolii

ertz lodia

Zygaena lonicerae

ertz mehea

Zygaena occitanica

Zygaena fausta

# Zygaenidae


lepoko zuria
Zygaena rhadamanthus isabelae
Zygaena rhadamanthus rhadamanthus
Zygaena lavandulae
hegal iluna erdialde gorriduna
hegal gorria
Zygaena nevadensis
Zygaena loti
bihotz forma
Zygaena osterodensis
Zygaena sarpedon
gerriko gorria

# Esfingidae

Macroglossum stellatarum
Proserpinus proserpina
Hemaris fuciformis
Hemaris tityus

♀
Endromis versicolora
(Endromidae)
♂
♂
♂
Aglia tau
(Saturniidae)
Lasiocampa quercus
(Lasiocampidae)
♀
Saturnia pavonia
(Saturniidae)
♂

# Geometridae

# Erebidae - Arctiinae

Catocala nupta
(Erebidae)
Euclidia glyphica
(Erebidae)
Pyrausta cingulata
(Crambidae)
Nomophila noctuella (Crambidae)
Pyrausta purpuralis
(Crambidae)
Eurrhypis pollinalis (Crambidae)
Wheeleria spilodactylus
(Pterophoridae)
Amblyptilia punctidactyla
(Pterophoridae)
Merrifieldia baliodactylus
(Pterophoridae)

Thyris fenestrella
(Thyrididae)
Nemophora metallica
(Adelidae)
Bembecia ichneumoniformis
(Sesiidae)
Orgyia antiqua
(Erebidae)
♀
♂
♀
♂
Sesia apiformis
(Sesiidae)
Watsonalla uncinula
(Drepanidae)
Drepana falcataria
(Drepanidae)

# Espezieen zerrenda

Jarraian, Euskadiko eremuan erregistro bibliografikoak dituzten espezieen zerrenda aurkezten da. Hiru lurraldeetako bakoitzean (B- Bizkaia, G- Gipuzkoa, A- Araba) duten presentzia zehazturik dator. Era berean, galdera marka batez adierazten dira gure eskualdean zalantzazko presentzia duten kasuak. Izan ere, *Hyponephele lupinus* eta *Melitaea diamina*ri buruzko datuak zehaztugabeak, zaharrak dira, eta ez da alerik gorde ezagutzen diren bilduma publikoetan zein pribatuetan. *Erebia epiphron*en ale bakarra dago Aranzadi Zientzia Elkartearen bilduman gorderik; horrek datuari baliotasuna ematen badio ere, era berean etiketatze oker baten posibilitatea planteatzen da, ez baita informazio historikorik, ez garaikiderik. Hala bada, zerrenda honek Euskadiko Autonomia Erkidegoko eremuan aurkitu eta egiaztatu diren 158 espezie biltzen ditu guztira.

Zerrenda honetako tximeletez gainera, gida honek *Gegenes nostrodamus* espezieak ere barne hartzen ditu, Logroñon aipatu baitira Arabako mugatik metro batzuetara. *Danaus plexippus* ere ageri da, horren aleak ikus baitaitezke, dela artifizialki askatuak izan, dela litekeen udazkeneko etorrerakoak izan, Europako beste zenbait kostaldetan gertatzen den bezala.

| HESPERIIDAE | B | G | A |
|---|---|---|---|
| *Carcharodus alceae* | x | x | x |
| *Carcharodus baeticus* | x | | x |
| *Carcharodus floccifera* | | x | x |
| *Carcharodus lavatherae* | x | x | x |
| *Carterocephalus palaemon* | x | | x |
| *Erynnis tages* | x | x | x |
| *Hesperia comma* | x | x | x |
| *Heteropterus morpheus* | x | x | x |
| *Muschampia proto* | | | x |
| *Ochlodes sylvanus (= venata)* | x | x | x |
| *Pyrgus alveus (= bellieri)* | x | x | x |
| *Pyrgus armoricanus* | | | x |
| *Pyrgus carthami (= fritillarius)* | x | x | x |
| *Pyrgus cirsii* | | | x |
| *Pyrgus malvoides* | x | x | x |
| *Pyrgus onopordi* | | | x |
| *Pyrgus serratulae* | x | x | x |
| *Spialia sertorius* | x | x | x |
| *Thymelicus acteon* | x | x | x |
| *Thymelicus lineola* | x | x | x |
| *Thymelicus sylvestris* | x | x | x |
| PAPILIONIDAE | B | G | A |
| *Iphiclides feisthamelii* | x | x | x |
| *Papilio machaon* | x | x | x |
| *Parnassius apollo* | x | x | x |
| *Zerynthia rumina* | | | x |
| RIODINIDAE | B | G | A |
| *Hamearis lucina* | x | | x |
| PIERIDAE | B | G | A |
| *Anthocharis cardamines* | x | x | x |
| *Anthocharis euphenoides* | x | | x |
| *Aporia crataegi* | x | x | x |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Colias alfacariensis* | x | x | x |
| *Colias croceus* | x | x | x |
| *Euchloe crameri* | ? | x | x |
| *Euchloe tagis* | | | x |
| *Gonepteryx cleopatra* | x | x | x |
| *Gonepteryx rhamni* | x | x | x |
| *Leptidea sinapis* | x | x | x |
| *Pieris brassicae* | x | x | x |
| *Pieris mannii* | | x | x |
| *Pieris napi* | x | x | x |
| *Pieris rapae* | x | x | x |
| *Pontia daplidice* | x | x | x |
| *Zegris eupheme* | | | x |
| NYMPHALIDAE | B | G | A |
| *Aglais io* | x | x | x |
| *Aglais urticae* | x | x | x |
| *Apatura ilia* | x | x | x |
| *Apatura iris* | x | x | x |
| *Araschnia levana* | x | x | x |
| *Argynnis adippe* | x | x | x |
| *Argynnis aglaja* | x | x | x |
| *Argynnis pandora* | x | x | x |
| *Argynnis paphia* | x | x | x |
| *Boloria dia* | x | x | x |
| *Boloria euphrosyne* | x | x | x |
| *Boloria selene* | x | x | x |
| *Brenthis daphne* | x | x | x |
| *Brenthis hecate* | x | | x |
| *Brenthis ino* | x | | x |
| *Euphydryas aurinia* | x | x | x |
| *Euphydryas desfontainii* | | | x |
| *Issoria lathonia* | x | x | x |
| *Limenitis camilla* | x | x | x |
| *Limenitis reducta* | x | x | x |
| *Melitaea cinxia* | x | x | x |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Melitaea deione* | ? | | x |
| *Melitaea diamina* | | | ? |
| *Melitaea didyma* | | | x |
| *Melitaea nevadensis (athalia)* | x | x | x |
| *Melitaea parthenoides* | x | x | x |
| *Melitaea phoebe* | | x | x |
| *Nymphalis antiopa* | x | x | x |
| *Nymphalis polychloros* | x | x | x |
| *Polygonia c-album* | x | x | x |
| *Vanessa atalanta* | x | x | x |
| *Vanessa cardui* | x | x | x |
| SATYRINAE | B | G | A |
| *Aphantopus hyperanthus* | x | x | x |
| *Arethusana arethusa* | | | x |
| *Arethusana boabdil* | x | x | |
| *Brintesia circe* | x | | x |
| *Coenonympha arcania* | x | x | x |
| *Coenonympha dorus* | ? | | x |
| *Coenonympha glycerion* | x | | x |
| *Coenonympha pamphilus* | x | x | x |
| *Chazara briseis* | ? | | x |
| *Erebia epiphron* | | ? | |
| *Erebia euryale* | x | x | x |
| *Erebia meolans* | x | x | x |
| *Erebia triaria* | x | x | x |
| *Hipparchia fagi* | | x | x |
| *Hipparchia fidia* | | | x |
| *Hipparchia hermione* | x | x | x |
| *Hipparchia semele* | x | x | x |
| *Hipparchia statilinus* | x | | x |
| *Hyponephele lupina* | | | ? |
| *Hyponephele lycaon* | | | x |
| *Lasiommata maera* | x | x | x |
| *Lasiommata megera* | x | x | x |
| *Lopinga achine* | x | | x |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Maniola jurtina* | x | x | x |
| *Melanargia galathea* | x | x | x |
| *Melanargia ines* | | | x |
| *Melanargia lachesis* | | x | x |
| *Melanargia occitanica* | | | x |
| *Melanargia russiae* | ? | | x |
| *Minois dryas* | x | x | x |
| *Pararge aegeria* | x | x | x |
| *Pyronia bathseba* | ? | | x |
| *Pyronia cecilia* | | | x |
| *Pyronia tithonus* | x | x | x |
| *Satyrus actaea* | | | x |
| LYCAENIDAE | B | G | A |
| *Aricia cramera* | x | x | x |
| *Aricia montensis* | x | x | x |
| *Aricia morronensis* | | | x |
| *Cacyreus marshalli* | x | x | x |
| *Callophrys avis* | | | x |
| *Callophrys rubi* | x | x | x |
| *Celastrina argiolus* | x | x | x |
| *Cupido argiades* | x | x | x |
| *Cupido minimus* | x | x | x |
| *Cupido osiris* | x | | x |
| *Cyaniris semiargus* | ? | | x |
| *Favonius quercus* | x | x | x |
| *Glaucopsyche alexis* | x | x | x |
| *Glaucopsyche melanops* | | x | x |
| *Laeosopis roboris* | x | x | x |
| *Lampides boeticus* | x | x | x |
| *Leptotes pirithous* | x | x | x |
| *Lycaena alciphron* | x | x | x |
| *Lycaena hippothoe* | | | x |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Lycaena phlaeas* | x | x | x |
| *Lycaena tityrus* | x | x | x |
| *Lycaena virgaureae* | | | x |
| *Phengaris alcon* | | x | |
| *Phengaris arion* | x | x | x |
| *Plebejus argus* | x | x | x |
| *Plebejus idas* | | | x |
| *Lysandra albicans* | | | x |
| *Lysandra bellargus* | x | x | x |
| *Lysandra coridon* | x | x | x |
| *Lysandra hispana* | | x | ? |
| *Polyommatus (Adrodiaetus) damon* | | | x |
| *Polyommatus (Adrodiaetus) fulgens* | | | x |
| *Polyommatus (Adrodiaetus) ripartii* | | | x |
| *Polyommatus amandus* | | x | x |
| *Polyommatus daphnis* | | | x |
| *Polyommatus dorylas* | x | x | x |
| *Polyommatus escheri* | x | x | x |
| *Polyommatus icarus* | x | x | x |
| *Polyommatus thersites* | x | x | x |
| *Pseudopilotes baton* | | | x |
| *Pseudopilotes panoptes* | | | x |
| *Satyrium acaciae* | x | x | x |
| *Satyrium esculi* | x | x | x |
| *Satyrium ilicis* | x | x | x |
| *Satyrium pruni* | x | | x |
| *Satyrium spini* | x | x | x |
| *Satyrium w-album* | | x | x |
| *Scolitantides orion* | | | x |
| *Thecla betulae* | x | x | x |

# Antzeko espezieak edo erraz nahasten direnak bereizteko gako bisuala

# Identifikaziorako gako bisuala

Jarraian zenbait gako bisual aurkezten dira nahasten errazak diren espezie multzoak identifikatu ahal izateko. Xehetasun horiek irudi orrietan jadanik zehaztu diren arren -modu aski argian kasu askotan-, oso lagungarria gerta daiteke antzekoak diren zenbait espezie multzokatzea, horien arteko desberdintasun morfologikoak hobeto bereizteko, batez ere genero desberdineko espezieei buruz ari bagara.

## *Spialia, Muschampia* eta *Pyrgus* (Hesperiidae) generoetako espezieak bereizteko gako bisuala.




## *Thymelicus* (Hesperiidae) generoko espezieak bereizteko gako bisuala.



*Pontia daplidice*, *Anthocharis cardamines* emea eta *Euchloe* (Pieridae) generoa bereizteko gako bisuala.




*Arethusana* eta *Hipparchia* (Nymphalidae - Satyrinae) generoetako espezieak bereizteko gako bisuala.

## *Melitaea* (Nymphalidae) generoko espezieak bereizteko gako bisuala.

*M. deione*, *M. nevadensis* eta *M. parthenoides* espezieei dagokienez, gako hau gutxi gorabeherakoa eta balio mugatukoa da, aleen arteko aldagarritasuna handia baita. Datu zehatzak eskuratu ahal izateko beharrezkoa da arren armadura genitala ikertzea. Aldez aurretik ikertzaileak ale asko zehatz-mehatz behatu beharko ditu, geroago landa aldean espezie horiek egoki identifikatuko baditu.



*Coenonympha* eta *Pyronia* (Nymphalidae - Satyrinae) generoetako espezieak bereizteko gako bisuala



*Cupido*, *Cyaniris*, *Glaucopsyche*, *Lysandra*, *Aricia* eta *Polyommatus* (Lycaenidae) generoetako espezieak bereizteko gako bisuala.




*Lysandra* spp.
ozeloak ertzean
*Polyommatus* spp.
ozelorik gabea
*Polyommatus icarus*
gelako puntua
*Aricia* spp.
bi puntu elkarren ondoan
*P. escheri*
lunula beltz ongi garatuak eta zorrotzak
*P. thersites*
lunula beltzak ez horren garatuak
*P. dorylas*
lunula beltzik gabeak, zenbait orban bihotz itxurakoak
*P. amandus*
laranja koloreko lunula oso txikiak

# Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu aldez edo moldez argitalpen hau gauzatzen lagundu duten pertsona guztiei.

Guztiz bereziki nabarmendu nahi dugu Dan Lertxundi Manterola, Fernando de Juana Aranzana, Iker Novoa Fariñas, José María Fernández García, Joserra Undagoitia Etxebarría, Juan Carlos Vicente Arranz, Óscar Aedo Elguezabal eta Silvano Monasterio Corral-ek emandako laguntza, gidaliburu honen funtsezko alderdi batzuetan era aktiboan parte hartu dutelako.

Halaber, zinez eskertzen dugu Alberto de Castro, Ana Gracianteparaluceta López, Antonio García Carrillo, Carlos Gómez de Aizpúrua, Eneko Díaz Meñaka, Francisco José Martínez Pérez, Haizea Agirre Barrena, Ibón de Olano González, Javier Robres Cabezón, José Sebastián Estévez, Juan Hernández Roldán, Juan Manuel Pérez de Ana, Julio Ruiz Guijarro, Kike Vergara Jiménez, Miguel de las Heras, Óscar Moreno Iriondo, Rafael Pérez Fernández, Roger Vila Ujaldón, Rudi Verovnik eta Xabier Kintana Urtiagak emandako laguntza.
Era berean, gure esker ona agertu nahi diegu Eguneko Tximeleten Euskadiko jarraipen-programako boluntarioei buruturiko ahalegin handiagatik, horien laguntza funtsezkoa delako eta izango delako Euskadiko tximeletak gero eta gehiago ezagutzeko.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzari eskertzen diogu gure lanean ezarritako konfiantzagatik eta gida hau argitaratzeko aukera emateagatik.

*Anthocharis cardamines*

# Argazki kredituak

Gida honetako argazki gehienak egileek egindakoak dira. Hala ere, beste pertsona batzuen lankidetza desinteresatua beharrezkoa izan da; horiei esker espezie guztiak edo horien xehetasun anatomikoak irudikatzen dituen materiala gure esku izan dugu. Jarraian, irudi horien egileak agertzen dira:

J.C. Vicente Arranz --> Página 2 (imágenes central e inferior), página 2 (imagen inferior izquierda), página 2 (ejemplar inferior derecho), página 2 (imágenes superior e inferior), página 2 (imagen superior), página 2 (imagen inferior derecha), página 2 (imágenes superior e inferior), página 2 (imagen inferior izquierda), página 2, página 2, página 2

Joserra Undagoitia --> Página 2 (imagen central), página 2

Fernando de Juana Aranzana --> Página 2 (imagen superior), página 2 (imagen superior izquierda)

Kike Vergara --> Página 2 (imagen inferior)

Iker Novoa Fariñas --> Página (imagen central)

Óscar Moreno Iriondo --> Página 2 (imagen central)

Antonio García Carrillo --> Página 2 (imagen superior izquierda)

Miguel de las Heras --> Página 2

Javier Robres Cabezón --> Página 2 (imagen superior izquierda)

*Zygaena loti*

# Bibliografia


ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA. 2011. *Guía de las mariposas diurnas de Gipuzkoa*. Heteropterus Rev. Entomol., nº25. 38 pp.

BÄHR, G. 1928. Los nombres vascos de la abeja, mariposa, rana y otros bichos. *Revista internacional de los estudios vascos*, vol. 19, nº 1: 1-7.

CARASA, F. 1989. Presencia de Araschnia levana (Linnaeus, 1758) en la provincia de Álava. SHILAP *Revta. lepid*., nº 17(68):422.

FERNÁNDEZ DE GAMBOA, R.; MEZQUITA, I. Y MAGUREGUI, J. 2009. Primeras citas de Araschnia levana (Linnaeus, 1758) (Lepidoptera: Nymphalidae) para Bizkaia (norte de la Península Ibérica). *Heteropterus Rev. Entomol.,* nº 9(1):57-59.

GARATE, G. 1998. *Atsotitzak-refranes-proverbes-probervia.* Fundación BBK. 774 pp.

GARCÍA-BARROS, E., MUNGUIRA, M.L., STEFANESCU, C.; VIVES-MORENO, A. 2013. *Fauna Ibérica.Vol 37. Lepidoptera Papilionoidea.* 1213 pp.

GARCÍA-BARROS, E., MUNGUIRA, M. L., MARTÍN CANO, J., ROMO BENITO, H., GARCIÁ-PEREIRA, P. & MARAVALHAS, E.S. 2004a. *Atlas de las Mariposas Diurnas de la Península Ibérica e Islas Baleares (Lepidoptera. Papilionoidea & Hesperioidea).* Zaragoza: Monografías de la Sociedad Entomológica Aragonesa (SEA): 11. 228 pp.

GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 1975. *Catálogo de los lepidópteros que integran la colección científica del norte de España, de la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi, con expresión cronológica de capturas, repartición geográfica y altitudes de evolución.* Caja de Ahorros Prov. Guipúzcoa. San Sebastián. 448 pp.

GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 1976. Ampliación y desdoblamiento sobre especies del catálogo de los lepidópteros que integran la colección científica del norte de España de la Sociedad Aranzadi. *SHILAP Revta. lepid*., 4:27-30, 184-185.

GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 1977. *Atlas provisional lepidópteros del norte de España. Distribución geográfica. Programa U.T.M: Lepidopteros Papilionoidea, Hesperioidea, Zygaenoidea.* Tomo I. Diputación Foral de Álava.

GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 1983. *Catálogo de los lepidópteros que integran la colección científica de la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi. Vol. II.* San Sebastián: Caja de Ahorros provincial de Guipúzcoa. 496 pp.

GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 1988. *Atlas provisional de los lepidópteros de la zona norte. Distribución geográfica. Programa U.T.M: Lepidoptera ropalocera. Tomo III.* Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco. 190 pp.

KARSHOLT, O. & NIEUKERKEN, E.J. 2017. Lepidoptera, Papilionoidea. *Fauna Europaea* version 2.6.2. http://www.faunaeur.org (en preparación).

LAFRANCHIS, T. 2014. *Papillons de France. Guide de détermination des papillons diurnes.* Diatheo. 351 pp.

MEZQUITA ARAMBURU, I. 2009. *Mariposas de Bizkaia.* Colección Temas Vizcaínos. BBK. Vol. 404-405. 189 pp.

MEZQUITA, I. & DOMÍNGUEZ, Á. 2006. *Tras las mariposas.* Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz. 370 pp.

MEZQUITA, I. & GÓMEZ DE AIZPÚRUA, C. 2007. *Mariposas en Gipuzkoa.* Club Juvenil de Kutxa Caja Gipuzkoa San Sebastián. 112 pp.

MONASTERIO LEÓN, Y.; AEDO ELGUEZÁBAL, O.; ESCOBÉS JIMÉNEZ, R.; DÍAZ MEÑAKA, E.; PÉREZ DE ANA, J.M.; RUIZ GUIJARRO, J.; MARTÍNEZ PÉREZ, F. 2015. Cinco nuevos ropalóceros para la provincia de Bizkaia y algunos registros de interés para Euskadi (Lepidoptera: Papilionoidea). *Boletín de la Sociedad Entomológica Aragonesa (S.E.A.)*, nº 56: 245–250.

MONASTERIO LEÓN, Y.; ESCOBÉS JIMÉNEZ, R. 2013. *Mariposas del Valle de Aranguren (Navarra) / Aranguren Ibarreko tximeletak (Nafarroa).* Ayuntamiento del Valle de Aranguren/Aranguren Ibarreko Udala. 189 pp.

MONASTERIO LEÓN, Y.; ESCOBÉS JIMÉNEZ, R.; MORENO IRIONDO, Ó.; PÉREZ DE ANA, J.M. 2014. Nuevos datos sobre la presencia de algunos ropalóceros (Lepidoptera, Papilionoidea) de la comunidad autónoma del País Vasco (España). *Boletín de la Sociedad Entomológica Aragonesa (S.E.A.),* nº 54: 415–418.

MONASTERIO LEÓN, Y.; GARCÍA CARRILLO, A.; VILA UJALDÓN, R.; VICENTE ARRANZ, J.C.; ESCOBÉS JIMÉNEZ, R.; GARCÍA ALAMÁ, J.A.; MORENO IRIONDO, Ó.; HERNÁNDEZ ROLDÁN, J.; PARRA ARJONA, B.; MURRIA BELTRÁN, E.; ANTÓN LÁZARO, I.; BAQUERO HERCE, A.; OLIVARES VILLEGAS, J.; BAREA AZCÓN, J.M.; PÉREZ-FERNÁNDEZ, R.; JUBANY FONTANILLAS, J.; GUTIÉRREZ GARCÍA, D.; MONTAGUD ALARIO, S.; LÓPEZ ILDEFONSO, M. 2017. Propuesta actualizada de nombres comunes en castellano para las mariposas de la península ibérica y Baleares (Lepidoptera: Papilionoidea). *Boletín de la Sociedad Entomológica Aragonesa (S.E.A.),* nº 60 (en prensa).

MONASTERIO LEÓN, Y.; LERTXUNDI MANTEROLA, D.; ESCOBÉS JIMÉNEZ, R. 2017. Nuevos registros de lepidópteros de actividad diurna (Lepidoptera: Papilionoidea, Zygaenoidea) en Euskadi, Navarra y áreas limítrofes. *Arquivos entomolóxicos*, nº 17:27-42.

MONASTERIO LEÓN, Y.; VICENTE ARRANZ, J.C.; MORENO IRIONDO, O.; ESCOBÉS

JIMÉNEZ, R.; PARRA ARJONA, B.; DINCĂ, V. & VILA, R. 2014. Tres nuevas especies de mariposas (Lepidoptera: Papilionoidea) para la comunidad autónoma de La Rioja y confirmación de la presencia de Heteropterus morpheus (Hesperiidae). *Revista Zubía*, nº 32:73-87.

MONASTERIO LEÓN, Y.; VICENTE-ARRANZ, J.C.; ESCOBÉS, R.; MORENO, O.; PARRA, B. 2014. *Mariposas Diurnas de La Rioja.* Instituto de Estudios Riojanos. 476 pp.

MONTAGUD, S. & GARCÍA-ALAMÁ, J. A. (2010). *Mariposas diurnas de la Comunitat Valenciana (Papilionoidea & Hesperioidea).* Colección Biodiversidad, 17. Valencia. Conselleria de Medi Ambient, Aigua, Urbanisme i Habitatge, Generalitat Valenciana. 472 pp.

NEWLAND, D.; STILL, R. SWASH, A.; TOMLISON, D. 2015. *Britain´s butterflies. A field guide to the butterflies of Britain and Ireland.* Princeton Universtity Press. 240 pp.

OLANO, I., SALAZAR, J. M., MARCOS, J. M. & MARTÍN, I. 1989. *Mariposas Diurnas de Álava*. Instituto alavés de la naturaleza. 279 pp.

PAGOLA, S. & ZABALEGUI, I. 1997. Cacyreus marshalli Butler, 1898 llega a Guipuzcoa. SHILAP *Revta. lepid*., 25 (100):260.

PRECIADO, T. 2009. *Euskarak erakutsi koloreak ikusten*. Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco. 52 pp.

SOROAZU UGARTEMENDÍA, E. 1979. *Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. 365 pp.

# Índice de nombres científicos y comunes

NOTA: Pendiente elaborar en la maquetación final el típico índice **onomático** al final del libro para encontrar las especies por nombres científico y común en la página en la que se encuentran. Ejemplo debajo:


**B**

Blanca 104, 106

**M**

marrasendoa 106

**N**

napi 106

**P**

Pieris 104, 106, 108
Pyrgus 50, 52, 54, 56, 64

**S**

Sasi 64
Sertorio 64
sertorius 64
Spialia 64

**V**

verdinervada 106

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

ASOCIACIÓN ERYNTHIA